



Markel Irizar: bizitza bat bizikleta gainean

Jose Luis Fernandez Maureri elkarriketa



## ANTZUOLARREK BATUTAKO ELIKAGAIAK, GREZIAKO ERREFUXIATUENDAKO

Antzuolako Herri Eskolako ikasleek janari bilketa egin dute Zaporeak GKEarekin elkarlanean / 2

Antzuolako Herri Eskolako 5. mailako neska-mutikoak, batutako elikagaiak eskuetan dituztela.

XABIER URZELAI

**Udaltzainak armekin ibiltzea ahalbidetuko duen Polizia Lege berria onartuko dute hil honen 27an / 4**

**20 urte bete dira musakolarrek Arruena parkean astoaren eskultura jarri zutela / 10**



**ESKORIATZAKO ETA ELGETAKO JAIK / 20 eta 32**

**Hainbat ume zauritu dira, Bergarako igerilekuetan ireki berri duten ur parkean erorita / 26**

**Oteizak Arantzazun egin zuen esku-hartzearen gaineko erakusketa zabalik Arantzazun / 41**

**SINADURAK**

 IÑAKI CASAS / 6	 MARIA IZAGA / 15
 ENERITZ URRUTIA / 12	 AINTZANE OIARBIDE / 48



**VW Tiguan**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto



Dionewar II eskolako aterpetxea eraikitzen. NDANK NDANK



Antzuolako Herri Eskolako ikasleak batu duten janaria kaxetan sartzten. XABI URZELAI

# Elkartasun izpi batzuk mundura

Debagoiendarrek agerian utzi dute euren elkartasuna, beste behin ere; Ndank Ndank elkarteak materialez betetako kontainer bat bidali du Senegalera, eta Antzuolako Herri Eskolako ikasle batzuek janari bilketa egin dute, Zaporeak GKEarekin elkarlanean

## Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Senegalgo Dionewar herrira honetako iristear egongo da Bergarako Ndank Ndank elkarteak bidalitako kontainera. Bergarako San Martin Agirre eta Mariaren Lagundia ikastetxeetan eta Elgetako eskolan batutako materialaz gain, Elgoibarko Usuri optikak emandako ikusmena neurtzeko makina bat, betaurreko graduatu batzuk eta lente ezberdinak ere jaso dituzte edukiontzian. Horren harira, betaurreko gehiagoren beharra dutela azaldu du elkarteko kide Eli Dominguezek, eta herritarrak animatu gura izan ditu botatzeko dituzten betaurrekoak eurei ematera. Azkenik, bitxikeria gisa, txalaparta bat ere eraman dute, Arrasateko Ttakun Txalaparta Taldeak emanda. "Interesgarria izan daiteke musika fusioren bat egiteko edo".

Bidalitako kontaineraz gain, ordea, beste hainbat proiektu ere baditu esku artean 2011 ezker lanean ari den elkarteak. "Martxotik hona, azeleragailua zapaldu dugu. Izena aldatu behar ko diogu elkarteari, erritmo altuan goaz, eta ekintza pila batekin –hango hizkuntzan *pixkanaka-pixkanaka* esan gura du *ndank ndank* esamoldeak–".

Proiektuetako bat da Dionewar II eskolaren aterpea eraikitzea. "Horretan ari gara Fagor Ederlanek emandako dirulaguntzari esker", dio elkarteko kideak. Bestalde, Haur Hezkuntzarako

## BETAURREKOAK JASOTZEN ARI DA NDANK NDANK, DIONEWAR HERRIRA ERAMATEKO

beste eraikin bat egiteko asmoa ere badute, eta Bergarako jaientan egin zuten tonbola solidarioan lortutako 5.000 euroak horretan inbertituko dituzte. Azkenik, ur hodiak instalatzen ere ari dira.

## Gazteen ahalduntzea

Beste proiektu garrantzitsu bat gazteen ahalduntzea da. "Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara ikasle kopurua asko jaisten da, eta unibertsitate mailan, are gehiago. Dakar hiriburutik bi ordu eta erdira dago Dionewar. Batzuek badute aukera familiarikoren baten etxean-edo gelditzeke, baina 25 bat ikasle daude euren ikasketekin jarraitzeko arazoekin, ez dutelako non lo egin. Beraz, etxe batzuk alokatzeko lanean ari gara datorren ikasturtera begira. Bergarako Udalean eskatu dugu dirulagun-

tza eta uste dugu lortuko dugula, behintzat, ikasturte batez ikasle horiek etxebizitza duina edukitzea".

## Abuztuan, Dionewarrera bisita

31 laguneko talde bat Dionewar herrira joango da abuztuaren 4tik 18ra. Aipaturiko Haur Hezkuntzako bigarren eraikin horri "martxa apur bat" sartzeara izango da bidaiaren helburuetako bat. Horrez gain, haiekin batera erizain bat joango da. "Erizain horrek formakuntza jaso du optikarien eskutik. Asmoa da, han gaudela, beharra dutenei ikusmena neurtzea, eta, haien zako betaurreko egokiak edukiz gero, ematea. Beraz, orain bidean dauden makina eta betaurrekoei ez zaie abuztura arte erabilerririk emango. Hala ere, honi jarraipena eman gura diogu, eta horregatik jaso gura ditugu ahalik eta betaurreko gehien", dio Dominguezek. Halaber, hara joaten den erizainak hangoei formakuntza bat ematea ere bada beste helburuetako bat.

Honekin lotuta, Dominguezek eskerrak eman gura izan dizkio Usuri optikari. Han lan egiten duen neska bergarar batena izan baita ideia. "Guretzako, pozgarria

## ANTZUOLAKO IKASLEEK LESBOSKO ERREFUXIATUEN KANPALEKUETARA BIDALIKO DUTE JANA

da jendea gugana etortzea halako ideiekin, beti gu eskatzen ibili beharrean".

Dionewarren eta Debagoienaren arteko zubia indartzea da elkartearen helburu nagusia. "Bizi izateko eta bizitza ulertzeko beste era batzuk badaude, gureaz gain. Ikusarazi gura dugu han daukaten gizartearekiko konpromiso handi hori, eta bata bestearekiko begirune eta elkarlaguntza hori. Gizarte aberatsa da hangoa, zentzu horretan".

## Greziara ere badoa laguntza

Bestalde, Antzuolako Herri Eskolako 5. mailako B gelako 12 ikasleek janari bilketa bat egin dute, Maria Urien tutorearen eta Ainitze Segurola koordinatzailearen laguntzarekin.

Sukaldaritza lantzen ari dira gelan. Martxoan, komunikabideetan jakin zuten Zaporeak GKEaren berri, eta klasera eraman zuten gaia. Kasualitatez, gainera, Seguroaren laguna den Xabi Gesalaga oñatiarra Lesbosen zegoen momentu haietan, eta proposatu zion handik bueltatzean klasera joateko bere esperientzia kontatzera. "Lehenengo momentutik oso prest azaldu zen eta apiril hasieran, han bizitakoak kontatu zizkigun. Etxetik prestatuta ekarri zigun han ematen zuen otordu baten simulazio txiki bat, baita han erabiltzen zituztenen antzeko lapiko handi batzuk ere. Ikasleei kontatu zien nola lan egiten duten han, zergatik antolatzen

diren horrela, eta abar. Horrez gain, argazki pila bat erakutsi zizkien: errefuxiatu kanpalekue-tako etxeak nolakoak diren, han nola bizi diren...", dio Seguroiak.

Esperientzia hori gertutik bizi izan duen baten ahotik entzun izana "oso garrantzitsua" izan da ikasleentzat, eta, irakasleen laguntzarekin, janari bilketa bat egitea erabaki dute.

Aste Santuaren bueltan hasi ziren guztia antolatzen. "Zaporeak taldekoekin harremanetan jarri ginen, nola lagundu genezakeen

jakiteko, eta momentu haietan ze janariaren beharra zegoen esan ziguten. Gero, ikasleek euren proposamenak eman zituzten, ea zer egin genezakeen Antzuolako jendeari honen berri emateko. Beraz, ohar batzuk idatzi zituzten, euskaraz zein gaztelaniaz, eskolako gainontzeko ikasle guztien etxeetara bidaltzeko; Goienara ere bidali zuten informazioa, eta bi kartel erraldoi prestatu zituzten eskolako sarreran jartzeko, jendea animatzeko", azaldu du Seguroiak.

### Kantitatea, gutxienekoa

Ekainaren 6tik 14ra egin dute bilketa, eta honako hau batu dute: 26 poltsa makarroi, 25 kilo dilista, 11 kilo garbantzu, 19 kilo arroz, 10 kilo babarrun, 26 lata atun, 11 lata sardina, bederatzi litro olio eta espezieen 23 pote. "Ez da asko izan, auto batean sartzen da batutako guztia, baina gustura geratu gara bilketa-rekin. Gainera, bukatuta egon arren, eskolako sarreran ditugunez, oraindik ekartzen jarraitzen du jendeak".

Bestalde, bilketa honek asko lagundu die ikasleei, eta asko ikasi dute, Seguroiaren esanetan. "Gainontzeko ikasleei eta gurasoei ere azaldu diete zer batu gura izan duten, zergatik, eta abar. Gero, ikasi dute ze janari bidali daitekeen eta ze ez. Inplikaturik ibili dira, eta pozik egin dute lan", azpimarratu du.

Bilketa honen helburua "baliotetan hezte" izan da, batez ere. "Helburua izan da ikasleek kontzientzia hartzea gainontzeko guztiek ez daukatela guk daukaguna; besteen lekuan jartzea, eta nork bere txikitasetatik ekarpena egin dezakeela konturatzea".

Datorren astean etorriko da Zaporeak taldeko ordezkari bat janaren bila, gero Lesbosera bidaltzeko. Aste honetan etortzekoa zen, baina ezin izan du, azkenean. "Pena da, ikasleak oporretan egongo direlako datorren astean".

## Hilaren 12ra arte iraungo dute asteen hasitako mobilizazioek

Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileak euren aldarrikapenak kalera ateratzen ari dira, beste behin ere

### E.A. ARRASATE

Irail amaieratik mobilizazioetan dabiltzan Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileek 67. greba eguna dute gaurkoa, eta hilabete osoako mobilizazioak iragarri dituzte. Horietako bat da Debagoieneko egoitzetako langileek Bergarako Munibe plazan asteen egin duten kanpaldia. Modu horretan, euren aldarrikapenei ikusgarritasuna eman gura izan diete. "Kalean egon behar dugu, gure borroka ikusi dadin", azpimarratu du Bego Gainzak, Mizpirualdeko egoitzetako langileak.

ELA sindikatuak du gehiengoa sektorean, eta erresidentzietako ELAren arduradun Txomin Lasak azaldu duenez, eskari konkretuek soldatekin eta lan baldintzekin lotura duten arren, hausnarketa orokorragoa eskatzen dute jendartean. "Zergatik ez dago horren baloratuta emakumeen lana? Eskaera konkretuak egiten ari gara, bai, baina baita gizarteari interpelazio zuzen bat ere. Bukatu dezagun soldata arrakala", dio.

Asteen hasitako mobilizazioak uztailaren 12an amaituko dituzte, eta egoera baloratuko dute.

## Lesbosera, astebetetz laguntzera

Maria eta Nuria Agirre ahizpa aretxabaletarrak Lesbosera joango dira astelehenean, euren ekarpena egitera. "Uste dugu errefuxiatuentzat garrantzitsua dela ikustea jendeak ez dituela ahaztu, eta laguntzeko prest gaudela", azaldu dute.

Egunean 1.500 jatordu prestatu behar izango dituzte: "Horietatik 200 kalean bizi eta sistematik kanpo geratu diren migratzaileei banatuko zaizkie, eta gainontzeko 1.300ak

Moriako errefuxiatu kanpalekuan bizi diren haur eta emakumei". Moriako kanpalekuan bizi diren familiak asilo eskaerarekin zer gertatuko den zain daude. "Batzuk siriarrak dira, baina gehienak Afganistangoak, eta badaude afrikarrak ere; eritrearrak, esaterako", diote. "Behin-behineko egonaldia da haientzat Lesboskoa, baina, gehienetan, asko luzatzen da eta gogorra da, nola bukatuko den ez dakite eta".



Bailarako zaharren egoitzetako langileek Bergaran egindako kanpaldia. GOIENA

# SAN JUAN GAUA ZUZEN ZUZENEAN

## MAKALAREN IGOERA, ERREMENTARI DANTZA, SAN JUAN SUA ETA DANBORRADA ZUZEN-ZUZENEAN

- PLAZAKO PANTAILA ERRALDOIAN, 17:45ETIK AURRERA
- STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS-EN ETA ARRASATE.EUS-EN, 17:45ETIK AURRERA
- GOIENA TELEBISTAN, 17:45EAN ETA 21:15EAN

ZUZENEGOKO TABERNA HAUETAN IKUSTEKO AUKERA: EZKIÑA, TXOKO II, MONTE, LORA, ITURRIOTZ, ITZALA, KAJOI, NAHIA, ARRASATE, IAMAI, SANPRI, GOIZALDE, BASATI, OKORETEGI, OSORIK, TAUPA ETA ILUNTZ

**goiena**  
Zu hemen zaude.



**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA

Udaltzaingoak armak eraman behar dituen edo ez; polemika iaz sortu zen, Arrasateko eta Eibarko udaltzain batzuek pistolak erabiltzea eskatu ostean. Udaltzain hauek argudiatu zuten delinkuentzia kasuei aurre egiteko babesgabe zeudela. Ondorioz, polizien sindikatu batek salaketa jarri zuen, eta horrek kate luzea ekarri du.

Orain arte, tokian tokiko gobernuen oniritzia behar zuten udaltzainek suzko armak erabiltzeko, baina EAEn dauden 3.300 udaltzainetatik oso gutxi dira suzko armak erabiltzen dituztenak. Gipuzkoaren eta Arabaren kasuan, hiriburuetako udaltzainek soilik ibiltzen dituzte armak eta Bizkaian, berriz, zertxobait gehiago: Bilboz gain, Barakaldo, Getxo, Portugalete eta Durangon ere erabiltzen dituzte.

**Zer dio lege berriak?**

Legebiltzarrak ekainaren 27an emango dio behin betiko onespina, osoko bilkuran, Polizia Legearen erreformari, EAJren, PSE-EEren eta PPren babesarekin.

Lege erreformak haxe dio udaltzainek suzko armak erabiltzearen inguruan: *Udaltzainen kidegoko langile funtzionarioek erregelamendu bidez zehazturiko armak eta baliabide tekniko operatiboak eramango ditu aldean, ekainaren 28ko 15/2012 Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke Legearen 37.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera. Bide publikoko segurtasunerako zerbitzuak eta segurtasun eta zaintzakoak armekin emango dira.*

Hala ere, pistolaren erabilera mugatzeko aukera aitortzen die dekretuak udalei: *Alkateak erabaki ahal izango du, modu arrazoituan, zer zerbitzu emango diren armarik gabe, non eta ez dakarten berekin zentzuz larritzat jo daitekeen arriskuren bat langile funtzionarioen edo hirugarrenen bizitzarentzat edo osotasun fisikoarentzat.*

Legea bera da herri guztien dako, eta, hain zuzen, ez dago bereizketarik biztanle kopuruari dagokionez.

**EAJren ustez, "garrantzitsua"**

Iñigo Iturrate EAJko legebiltzarkidearen esanetan, erreforma hau "beharrezkoa eta garrantzitsua da", 1992ko testua



Debagoieneko udaltzain bat. MIRARI ALTUBE

# Polizia Lege berriak, eragina Udaltzaingoan

Eusko Legebiltzarrak ekainaren 27an emango dio behin betiko onespina Polizia Legearen erreformari. Lege proiektu honek Ertzaintzari, Udaltzaingoari eta aguazilei eragingo dien hainbat puntu lantzen ditu; adibidez, udaltzainen armen erabilera

"eguneratu" dutela argudiatuta: "Udaltzainen eskaerari erantzunez, armak eramateko eskubidea bermatuko zaie segurtasun operazioetan ari direnean. Esaterako, udal barruan edo eskolako eremuan ari direnean ez dute armarik eramango, noski. Segurtasun operazioetan, berriz, alkateak erabakiko du armak

**"UDALTZAINEN  
ESKATU BEZALA,  
ARMAK ERAMATEKO  
ESKUBIDEA  
BERMATUKO ZAIE"**

IÑIGO ITURRATE, EAJ

eramatea beharrezkoa den ala ez. Eta segurtasun operazio batean armak eramatea ez dela beharrezkoa erabakiko balu alkateak, herri horretako udaltzainburuaren txostena beharko du hori argudiatuz. Hori bai, alkate batek ezingo die armen erabilera orokorra debekatu bere herriko udaltzainei".

**EH Bildu, "kritiko"**

Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkidearen esanetan, "polizia ereduaren inguruan "hausnarketa sakona egin eta berri bat sortzeko aukera ona galdu da". Horretaz gain, PPK ekarritako proposamena dela eta hauen helburua alkateek

udaltzainei pistolak eramateko "erabateko erraztasuna" ematea dela esan du.

"Lege berri honen arabera, Udaltzaingo guztiak behartuta daude segurtasun efektuazioetan armatuta joatera, eta alkateak erabakiko du noiz den segurtasun operatiboa eta noiz ez, eta, ondorioz, noiz eraman behar

**"POLIZIA EREDUAZ  
HAUSNARTU ETA  
BERRI BAT EGITEKO  
SEKULAKO AUKERA  
GALDU DA"**

JULEN ARZUAGA, EH BILDU

duten arma eta noiz ez. Esaterako, eskola aurrean trafikoa zuzentzen egotea segurtasun operatiboa da? Alkateari dagokio hori interpretatzea".

Gaineratu du EH Bildun ez direla armen aldekoak: "Egun baino arma gehiago egongo dira udaletan? Eta udaltzain batzuek ez badute armarik nahi, erresetatu egin beharko litzateke".

**Aldeko eta aurkako iritziak**

Udaltzainen artean ere aurkako eta aldeko iritziak daude. Aretxabaletako udaltzainak, esaterako, ez dira suzko armak eramatearen aldekoak, eta segurtasuna eman beharrean kendu egiten dietela argudiatu dute: "Segurtasun operatibo batean guri arma kendu eta eraso egitea gerta liteke; dena den, oraindik ez dugu lege berri honen xehetasunen inguruko bilera informatiborik jaso.

Arrasaten udaltzain den Aitzol Osak ere kontrako iritzia du: "2012an Segurtasun Legea onartzean, udalaren eskumen osoa segurtasun kontseiluaren esku geratu zen. Armen erabilera, poliziaren autoaren errotuluak, uniformeak... Nire ustez, ordea, udaltzainek tokiko autonomia behar dute. Armei dagokionez, lege berri honek ez du zehazten ze arma mota; beraz, ez dute ezer zehaztu, eta uztailean, legea onartzean, goera berean egongo gara. Nolako armak izango diren zehazten duen dekretu bidezko lege hori falta da; 7 urte izan dituzte hori zehazteko, eta ez dute egin".

Osak gaineratu du armak eramateak kostu ekonomiko handia ekarriko diela herrietako udalei, batez ere, txikiei, eta gastu hori zeini dagokion ez duela zehazten erreforma honek.

Amaitzeko, Arrasateren kasuan, alderdi politiko guztiak batu eta eredu propio bat sortzeko beharra dagoela azpimarratu du: "Giza baliabideez hitz egin behar dugu, eta ez armatzeaz. Bestalde, ezin dugu momentuan Gobernuan dagoenaren menpe ibili, eredu propio eta luzerako bat behar dugu".

Iñaki Arriaga Arrasateko udaltzainburua izan da duela aste gutxi arte, eta, Eibarko udaltzainekin batera, "pistolak eramateko eskubidea" aldarrikatu zuenetako bat da: "Lege berri honekin ez da aldaketa handirik egiten; azken finean, erabakia

## Udaltzainak herririk herri

HERRIA	Emakumeak	Gizonak	% biztanleko
ARRASATE	9	23	%0,14
BERGARA	2	18	%0,13
OÑATI	6	9	%0,13
ARETXABALETA	1	2	%0,04
ESKORIATZA	0	2	%0,04
ANTZUOLA	1 (aguazila)	0	%0,04
ARAMAIO	1 (aguazila)	0	%0,06
ELGETA	0	0	%0,00
LEINTZ GATZAGA	0	0	%0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>18</b>	<b>54</b>	<b>%0,06</b>

## Polizia Lege berriaren ezaugarriak

Lege erreforma honen puntu gehienak Ertzaintzari dagozkio. Esaterako, batzorde berri bat sortuko da, "Ertzaintzaren lanaren kontrolaz eta gardentasunaz" arduratuko dena. Dena den, EH Bilduk puntu hau salatu du, ertzainez osatua izango dela argudiatuz. Bestalde, Ertzaintzako funtzionarioek egindako lanaren

eta urteen araberako gehigarri ekonomiko bat izango dute. "Urteak zeramatzen hau eskatuz, eta beste arlo batzuetan dagoeneko egina zegoen; hezkuntzan, esaterako". Ertzaintzan emakumeen eta gizonen kopurua parekatzeko aurrerapausoak ere eman dira. "Ertzaintzako kursoetan emakumeen plazen %30

gordeko dira", dio EAJko Iturratek. Udaltzaingotik Ertzaintzara pasatzeko prozesua erraztu egingo da. Amaitzeko, ertzain izateko adina aldatu egingo da: 35etik 38ra igoko da. Aguazilei dagokienez, berriz, lege erreforma honi esker, "kategoriaz igoko dira eta udaltzainen kategoria" bera izango dute. Beraz, "formakuntza eta eskubide berak" izango dituzte.

beti geratzen da alkatearen esku, erabaki politikoa da. Nire ustez, Udaltzaingoa polizia integral bat izatea nahi badugu, armak behar ditugu. Zergatik Ertzaintzak bai eta Udaltzaingoa ezin ditu armak eraman? Herritarrekin duen hurbiltasunari eragingo lioke? Ez dut uste... Hurbiltasuna beti dago hor". Arriagak gaineratu du Arrasateko Udaltzaingoa gauzez ere egiten duela lan, eta hor labanak, matxeteak... denetik ikusten dela. "Egun batean zerbait geratzen bada eskuak burura eramatea alferrik da. Zer

egin behar dugu Arrasaten pertsona bat tirokatzen badute, 2017an San Andresen gertatu zen moduan? Korrika alde egin? Udaltzaingoa barruan oso polizia onak eta profesionalak daude, baina beste batzuk ez dira polizia sentitzen, aguazil gehiago, eta, ondorioz, ez dute armarik nahi, erosoago daude armarik gabe".

### Gauzez, Arrasaten bakarrik

Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan udaltzainek egunez bakarrik egiten dute lan,

21:30 edo 22:00 aldera amaitzen dute, eta, gauzez zerbait geratzen bada, Ertzaintzari dagokio. Arrasaten, aldiz, egun eta gau ari dira lanean udaltzainak.

Antzuolan eta Aramaion, berriz, udaltzainaren ordezkari aguzila dute eta hau autoritate publikoa den edo ez orain arte argitu gabe egon dela adierazi digute bi udalek, herriaren araberako zereginetara egokitzen direla. Antzuolan esaterako, herriko aguazilak isunak jartzeko eskumena du, baina Aramaioak ez.

Azkenik, Elgetan eta Leintz Gatzagan ez dute ez udaltzain eta ez aguazilik: "Udalak ez du isunik jartzen eta zerbait larria gertatuko balitz Ertzaintzari deitzen diogu, baina oso kasu gutxi izaten dira. Bestalde, Ertzaintzak egunero egiten du buelta bat herrira ea guztia ondo dagoen ikusteko, Udalak ardura hori emana dio" azaldu du Elgetako Udalak.

### Lan-poltsa bateratua

2018ko abenduaren 14ko 1449/2018 errege-dekretuari esker, ezau-

garri batzuk -urte kopurua udaltzain moduan, kotizatutako urteak, adina...- hainbat udaltzain epe motzean erretiratu dira, eta, arrazoi honengatik eta ohiko bajengatik, udaltzain faltan geratu dira hainbat herritan hilabete batzuetan. "Horrelako egoerei aurre egiteko eta udalen gastuak murrizteko asmoz", lege berri honek udaltzainen lan-poltsa bateratua adostu du. Herri bakoitzak, ordea, bere lan-poltsa propioa izango du. Udaltzainen formakuntza prozesua ere bateratuko da.



# Ezkontza berezia eta ahaztezina!

**GURE AMETSA**  
Restaurante • Jateketa








**943 71 49 52**  
Leintz Gatzaga  
[www.gureametsa.es](http://www.gureametsa.es)



ZABALIK

IÑAKI CASAS

## Entzutea, hori da berrikuntza

Gauzak egiteko, erabakiak hartzeko, ezagutza bat izan behar da. Eta gauzak egin behar horrek edo erabakiak hartze horrek eragina badu pertsona talde batengan, hobe duzu haiek ondo ezagutu. Eta hala ez bada, har ezazu haiek ezagutzeko denbora bat, ezer egin edo erabaki aurretik; bestela, seguruz, hanka sartuko duzu eta.

Izan ere, denborak erakutsi du bai enpresa munduan, eta baita administrazioan, batez ere, pertsonak kontuan hartzen ez dituen gobernantzak porroterako bidea hartuko duela, lehenago edo geroago.

Beldurra ematen dute praktika asanblearioek, horiek gobernaezinak eta kudeatzeko oso zailak izan daitezkeelako. Egia da. Hori bai, egiteko beste modu batzuk ere badaude, pertsonen iritziak kontuan hartuta, haien errealitateaz jabetuta eta haiek esandakoak zuzen eta egoki jasota.

### MUNDU OSOKO LEHEN MAILAKO ERAGILE ETA ERAKUNDE ASKO ARRASATERI BEGIRA DAUDE

Are gehiago, jasotako informazio hori guztia erabil daiteke errealitatea eraldatzeko eta hura hobea izan dadin ahalegintzeko: momentuaren beharrei egokituagoa.

Egiteko modu horiek hazten ari dira berrikuntza

sozialaren bitartez: entzuteko erremintak eta plataformak eskainita; izan ere, horiek erabilia, agertoki berriak azaltzen dira, etorkizunean leku jasangarri eta adeitsuagoa lortzeko bidean.

Bada, plataforma horiek martxan daude Arrasaten. Eta kooperatibismoan aitzindari izan ginen neurrian, aberastasu-iturri solidarioagoa eta hobeto banatua sortuta, bidea zabaltzen ari gara entzutearen bitartez gure balio eta sinismenak ezagutzeko, gure K; hain zuzen ere, jakiteko zer gura dugun gure enprekin, gure enpleguarekin, gure kulturarekin.

Eskualdea bere etorkizuna marrazten ari da. Mundu osoko lehen mailako eragile eta erakunde asko Arrasateri begira daude; izan ere, pertsona ausart batzuen bitartez, orain arte ukaezinak ziren eskemak hausten ari dira. Entzutea da berrikuntza, eta herri honek, beste behin ere, argi izan du hori, eta arriskatu egiten du.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Migratzaileak

#### AMAGOIA MUJKA TOLARETXIPI

[HTTPS://LABUR.EUS/BJ7FB](https://labur.eus/bj7fb)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Mugak ixtea eta segurtasuna eta kontrola indartzea, edota Europara ez iristeko mugen kudeaketa beste herri batzuen esku uztea, diruaren ordainez.

Horretara mugatzen ari dira Europako herrialde gehientsuenen migrazio politikak, giza eskubideen errespetua hobetsi eta nazioarteko legedia bete beharrean.

Gaur egun Europako Batasunetik bultzatzen ari diren egitasmoez – estatuek hitzartutakoak– migranteen eskubideen

murrizketa beldurgarriak dakartzate, tokian tokio alderdi politikoen proposamen xenofoboek eta baztertzaleek lagunduta.

Baina mugak itxi arren, eta segurtasuna eta kontrola areagotuta ere, iristen jarraitzen dute, gero eta egoera kaskarragoan, bizia arriskuan jarriz –maiz iristeko zoria izan gabe–, ez dutelako zeharkaldia kapritxo egiten; ezinbestean uzten dutelako etxea, pobrezia, gerra edota genero arrazoiengatik.

Eta mundua gero eta pobreago eta arriskutsuagoa

denez, inoiz erregistratu den desplazatu gehien dago egun: 70 milioi.

Gurean, azken urtean bikoiztu egin da hemen geratzea erabaki dutenen kopurua, baina, hona kostata iritsita ere, lautik bati onartzen diote asilo eskaera, eta luze zain egon ondoren.

Euskal Herrira datozeinei asiloa ematea Madrilen eta Parisen esku dago, baina itxaronaldia arintzeko baliabideak jartzea hemengo instituzioen betebeharra da, eta gu denona ere bai.

Post gehiago 8. orrialdean.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Berebizbar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Erakundeak aldaketetara egokitzen jakin du"

JOXE RAMON BENGOETXEA LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

**Amaia Zabala Tolosa** OÑATI

Mundu osotik etorritako 250 aditu inguruk hartuko dute parte egubakoitzera bitartean Oñatin egiten ari diren Lege Soziologiako Nazioarteko Kongresuan. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen 30. urteurrenaren baitan egingo dute kongresua, eta erakundeko zientzia-zuzendari izandako Joxe Ramon Bengoetxeak, egun EHUko irakasle eta Erakundeko patrono denak, azaldu ditu kongresuaren nondik norakoak.

**Erakunde bezala horrelako nazioarteko kongresu bat antolatzea ez zen erronka makala izango, ezta?**

Inoizko kongresurik handiena kopuru aldetik eta antolakuntza aldetik ere benetako erronka izan da. Guztien etorrera, garraioa, 10 lekuak. Valen Gordoa institutuko langilea artista bat da horretan eta berarekin langile guztiak aritu dira



Joxe Ramon Bengoetxea, erakundeko kidea. TXOMIN MADINA

antolakuntzan. Alderdi akademikoaz, berriz, une honetako zuzendari Noe Cornago arduratu da, institutuak dituen mundu mailako ikerketa batzordeetako buruekin eta

batzorde zientifikoko kideekin elkarlanean.

**Parte hartuko duten 250 lagun horiek nondik datoz eta nortzuk dira?**

Mundu osotik etorri dira. Nik zuzentzen dudana

mintegian, esaterako, Australiako batek eta Euskal Herriko bik parte hartuko dute. Gehienak europarrak dira, gertutasunagatik, baina Ameriketatik ere badatoz; batez ere, Hego Amerikatik. Afrika eta Asiatik ere badatoz batzuk; beraz, kontinente guztietatik. Horietako asko ikerketa munduan dabiltzanak dira, eta Oñatiko masterreko ikasle izanek beste batzuk.

**Belaunaldiak lotzen justizia globalaren alde da izenburua. Zer lantzen ari zarete bertan?**

Bi helburu ditugu: batetik, 30. urteurrena ospatzea, ez baita gutxi. Eta, bestetik, aukeratu dugun gaia lantzea. Espektrora zabal bat hartzen saiatu gara, jende gehiagorengana iristeko, eta, hain zuzen, justizia globala hautatu dugu. Aurreko belaunaldietatik jaso duguna, hurrengo belaunaldiei begira ditugun ardurak... Ikuspegi planetario eta ekologikotik zer-nolako baldintzak utziko dizkiegu? Zein puntutaraino dugu gure baliabideak xahutzeko eskubidea? Eta Europak urteetan ustiatu dituen herrialdeei konpentsatzeko beharra zenbaterainokoa da? Hori guztiori ari gara lantzen kongresu honetan.

## HAU BE BADOGU!

**Klima aldaketaren erakusle argia**



Alarmak piztu dituen argazki hau biral egin da asteon. Steffen Oslen Danimarkako zientzialariak Groenlandiako izotz geruzen urtzea erakutsi du, hain zuzen ere, irudi honen bidez.

@urquialacarra: "Beldurra ematen du".

@IeltxuO: "Klima aldaketa oraindik serio hartu nahi ez dutenentzako oharra dator Groenlandiatik..."

#SistemaAldatuEzKlima".

@ambiseguro: "Groenlandiak bi milioi tona izotz galdu zituen egun baten" (itzulita).

**Dena gertu San Juan jaietarako**

Aste bukaeran lehertuko dira San Juan jaiak Euskal Herriko hainbat txokotan. Arrasaten ere jaietz gozatzeko gogotsu daude erabiltzaileak: @Xabi\_Goro: "Ez naz oso zenezaliek, baina entzierroko bidea mugatzen duten makilak jarrita ikustea, Sanjuanak badatozenaren seinale da".

@bakolea: "Sanjuanak datoz... Sartu akelararrera!".

@maitebarru: "Sanjuanak heldu arteko hau kosta egiten ari zait...".

**Nafarroa izan da iruzkinen erdigune**

Politikak eta politikariek baldintzatuta, #Nafarroa eta #Navarra traolak trending topic izan dira asteon. Europa mailan traol erabilienez zerrendan izan da, hain zuzen ere:

@iUlyar: "Nafarroa, behin eta berriro, katearekin loturik".

@anavelasco2: "Eguneko laburpena: Euskadi gehiago, Nafarroa gutxiago".

@bizipox: "Egun on, Nafarroa. Dena ez da galdu. #Nafarroa".

## ITURRI ONETIK

## Gertu 'Handia'-ren egileen azken lana

Urriaren 31n estreinatuko dute zine areto komertzialetan *La trinchera infinita*, Aitor Arregi oñatiarraren azken filma. *Handia*-ren ostean, Moriarti faktoriako kide ere badiren Joxe Mari Goenaga eta Jon Garañorekin batera egindako lana da. Iaz Andaluzian eta Euskal Herrian errodututa, Belen Cuesta eta Antonio de la Torre ditu protagonisten nagusi. Espainiako gerraren ondorioz 30etik gora urtez etxean ezkutututa egon zirenen istorioa kontatzen du. Donostia Zinemaldian aurkeztu nahi dute irailean.

## ALBISTE IZAN ZEN



2007-06-19

## Garaiako lehen eraikina inauguratu zuten

Garaiako Berrikuntza Guneko lehen eraikina inauguratu zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Ino Galparsoro Arrasateko alkatea, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia eta Jose Mari Aldekoa Mondragon taldeko presidentea ere bertan ziren. Eraikin modularrak -11.200 metro koadroko azalera- 9 milioi euroko inbertsioa izan zuen. Aurretik, lurzorua erosi eta urbanizazio lanak egiteko, beste 24 milioi inbertitu zituzten.

## GUTUNAK

Eskerrik asko,  
Ausolan!ARANTZA IREGI ETA BEGO ARREGI  
ARRASATE

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu Ausolan-ekoei, aurreko larunbatean langile ohiei eskaini ziguten egun polit horregatik.

Gure eskerrik beroenak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna  
Eskertza-gutuna  
Eskari-gutuna

Ildati zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)  
helbidera!

Erantzun-gutuna  
Aldarrikapen-gutuna  
Kexa-gutuna

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Alcasser

AMAIA NAUSIA PIMOULIER  
HTTPS://LABUR.EUS/JT4UP  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Toñi, Desiree eta Miriam desagertu zirenean ia 11 urte nituen. Oso ongi gogoratzen dut garai hura, eta baita gorputzak agertu ziren eguna ere. Epaiketa hasi zenean, berriz, 1997. urtean, 15 urte nituen. Nire nerabezeroaren eta lehen gaztaroaren urteak Alcasserreko nesken desagertpenaren eta hilketaren ikerketa, epaiketa eta ondorioen inguruan eman ziren. Nire oroimenean nahiko ongi grabatu zen ere komunikabideen paper lotsagabea eta krudela zein izan zen. Istripu baten aurrean bezala, begiak ezin kendu, garai hartako gizarateak komunikabide gehienek eskaintzen zizkieten hiru neskak horien bahiketa, bortxaketa, tortura eta hilketaren detaile guztiak irentsi zituen. Ni neu ere, nire nebarekin batera, Estatuko kate nagusi bateko gaueko programa ikusten geratzen ginen auzi honen inguruan ematen ziren teoria konspiranoikoak aho zabalik entzuten.

Oroimenean oso garbi daukat grabatuta ere Alcasserreko auziak nire baitan, nire inguruko lagunengan eta inguruko helduengan izan zuen eragina. 14 urte inguru genituen, Toñi, Desiree eta Miriamen adina desagertu zirenean, gure etxeetan lehen irteeren inguruko negoziazioa eman

zenean. "Zein ordutan itzuliko da Leire?" edo "ama, Itziarri ordu erdi gehiago uzten diote". Azken autobusa arte uzten zidaten niri, eta "Kontuz norekin ibiltzen zareten, ez egin auto-stopik, ez itzuli etxera bakarrik" eta horrelakoak botatzen zizkidaten etxetik ateratzerakoan. Leirek Alcasserreko neskei gertatutakoarengatik beldur handiena adierazten zuen gure lagunaren artean, eta arren eskatzen zigun bere portaleraino laguntzeko. Hiru lagun baginen, gogorazten zigun: "Alcasserreko neskek hiru ziren".

Gaur, 37 urte ditut eta Nerea Barjolaren *Microfísica sexista del poder* (Boterearen mikrofisika sexista) gaiaren inguruko hitzaldi bat entzun nuen arte ez nintzen ohartu zenbateraino eragin zuen nire gaztaroan Alcasserreko auzi horrek. Komunikabideek berehala neskatilengan jarri zuten ardura, gauean auto-stopia egitea erruleta errusiarrera jokatzera bezain arriskutsua zela esanda edo arduragabeak izan zirela azpimarratuz. Bortxaketak biktimaren errua direla esaten denean bezala, gauean kalean bakarrik zihoalako, mozkorturik edo ezezagun batekin hitz egin zuelako. Kasu honen inguruan Netflixek emititu duen dokumentala ikusi berri dut, eta perspektiba handiagoa eman dit oraindik. Beldurpean hezi gaituzte emakumeak, gure nerabezeroan, neskatilek izatetik emakumeak izatera

pasatzen garen garai horretan jasotzen ditugun mezuak behin eta berririo geure burua zaindu edo errespetarazi behar dugula errepikatzen dutenean.

Gaur, emakume heldu baten begiradarekin, 90eko hamarkadan gure lehen harreman sexualak bizitzen ari ginen garaira begiratuz, besteekin harremantzeko moduak eraikitzen diren garai sentsible hori aztertuz, ohartzeko naiz zenbat mezu ezkor, beldurgarri eta errudungarri jaso genituen. Orduan babesak askatasunari lasterketa irabazi zion eta Alcasser bezalako errelato ikaragarri haiek gure buruen autokontrola bilatu eta lortu zuten. Beldurrez eta arrotz bizi genituen gure hiri eta herrietako kaleak. Edonon eta edonorengatik erasoak jaso genezakeela sinistu genuen, eta *kontuz* ibiltzen ez baginen, zerbait gertatuz gero gure errua izanen zela sinistu genuen.

Nerea Barjola eta beste aditu, ikerlari eta feministen lanei esker diskurtsoa deseraiki dugu. Dagoeneko badakigu ardura ez dela gurea, erasotzaileak ez gara emakumeak, eta hamarkada erdi batean 1.000 emakume erail dituztenean (Espainiako Estatuko datuak) fokua beste nonbaiten jarri behar dugula. Nik ez dut nahi nire alabek nire autozentsura eta beldurra bizitzea, eta nerabezeroa iristen direnean ez diet kontu beldurgarrikerik aipatuko, askatasunez eta pozez kaleak beraienak direla azpimarratuko diet.

## Zaintzak

ONINTZA ENBEITA  
HTTPS://LABUR.EUS/IMMOS  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Hogeita batgarren mendeko munduak ez zuen oso ondo ulertu gure ahizpa zaharrak amaginarreba etxean hartzea; eta erresidentziara eramatea ere ez. Azken urtean hunkigarria egin zait hainbeste maite nuen gizon baten arrebak eta iloba hura zaintzen ikustea. Harro sentitzen naiz senar ohia zaintzen ari den lagunarekin hitz egiten dudanean. Munduarentzat inozoa baino ez da, baina bizitzak eman dituen bueltak ikusita, gertatu direnak jakinda, badakit egiten ari dena dela egin dezakeen onena, eta kritikatzera baino aukera hobea iruditzen zait berak gizon hori zaintzen duen bitartean, nik bera zaintzea. Bost aldiz jaiota ere, ezingo nuke ordaindu Madriletik itzultzean zelan hartu ninduten lagunak. Ez nentorren ondo, ez nentorren indartsu; ez nentorren. [...] Azkenaldian obsesio baten moduan bizi dut zaintzaren gaia. Iruditzen zait epaitu egiten dugula nor ari den zaintza *guaya* egiten eta nor ari den inozoarena egiten ezarri zaion katea hausteko indarririk gabe. [...] Eta azkenean emoziorik gabeko zaintzak irabaziko du, bakoitzaren interesen arabera.

Post gehiago 6. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





# Udako etenaren aurretik, pentsio duinak eskatzen

Goizeko elkarretaratzea manifestazioarekin ordezkatu zuten astelehenean pentsiodunek, uda aurreko azken aldarriak egiteko. Ez ziren bakarrik aritu eta alboan izan zituzten, besteak beste, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta Mugimendu Feminista

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Azken bi urteetan astelehenetan egiten dabilzan legez, aste honetan ere kalera atera dituzte euren eskariak Arrasateko pentsiodunek. Baina ikasturte honetako azken mobilizazioa izanik, elkarretaratzearen ordezkaria manifestazioa egin zuten.

Hala, Herriko Plazan hasi eta bukatu zen ibilbidean, euren aldarrikapen nagusiak oihukatu zituzten; besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa; eta 2011n eta 2013an izandako murrizketak bertan behera uztea.

"Ez dugu 1.080 euroko pentsioa eskatzen guretzako zifra polita delako. Ez, horixe; merkatu bateratuak ezarritako kopurua da, gu bizi garen tokiko ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuta kalkulatu zutena. Bizitza duin bat eduki ahal izateko hori da zifra, eta gure eskubidea betetzea da eskatzen duguna", azaldu zuen Gaurgeroa-Duintasuna elkarteko kide Karmele Iparragirrek. Aipatutako eskakizunak egia bihurtzeko dirua "egon badagoen arren", "borondatea falta" dela salatu zuten pentsiodunek. "Gure ustez, dagoen dirua ez da ondo banatzen. Nik 700 euroko pentsioa jasotzen badut, ez dizkiot seme bati 500 emango eta beste guztiei 200. Gure etxean dirua



Asteleheneko manifestazioa Otolara Lizentziaduna kalean. TXOMIN MADINA

ahalik eta justuen gobernatzen dugun bezala, erakunde publikoetako dirua era berean gobernatu beharko litzateke".

## Eragileen babesa

Herriko beste kolektibo batzuei ere dei egin zieten manifestazioarako, eta mobilizazioan izan ziren, esaterako, herriko mugimendu feministako partaideak eta EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko hainbat zinegotzi ere. "Mugimendu feministatik oinarrizko eskubideak aldarrikatzen dituztela uste dugu. Bi-

zitzak erdigunera ekartzea eskatzerakoan, beste gauza batzuen artean, bizi-baldintza duinak eskatzen ditugu. Gainera, pentsioen afera honetan emakumeak bereziki kaltetuta daude, eurak direlako adin konkretu batetik aurrera pobrezia egoerak gehien pairatzen dituztenak. Garrantzitsua iruditzen zaigu ere pentsiodunak babestea, azkenaldian ikusten ari garen eskuinaren gorakadaren aurrean; asko galtzeko arriskua baitago", adierazi zuen Mugimendu Feminista-ko Leire Estevezek.



XABI GOROSTIDI

## Udalbatza berria, eratuta

Zapatu eguerdian hartu zuten kargua 2019-2023 agintaldian arrasatearrak ordezkatzeko dituzten 21 zinegotziek. Osoko bilkura aretoa jendez bete zen zinegotzien senideekin eta lagunekin, baita zinegotzi ohiekin ere. Alkatea izendatzeko orduan ez zen sorpresarik egon eta Maria Ubarretxena izan zen aukeratua, EAJK eta PSE-EEK emandako hamabi botoen babesarekin.

## Erguin auzoko lau igogailuak batera esleitu dituzte

Ekainaren 13an argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lanak esleitzeko lehiaketa publikoa, eta uztailearen 9ra arte izango dute aurkezteko epea interesa duten enpresek. 2.752.652,66 euroko aurrekontua dute lanek -BEZA barne- eta urtebeteko exekuzioa epea ezarri dute. "Lanak urte amaieran hasia espero dugu", adierazi du Ubarretxenak. 2019ko aurrekontuan 100.000 euroko partida zegoen lan hauek exekutatzeko hasteko, eta 2018ko soberakinetatik beste 200.000 euro gehitu zitzaizkion. Hala, kostu totalaren 300.000 euro aurten ordainduko dira, eta, urte anitzeko gastua denez, gainontzekoa aurrerago.

## OHARRAK

### Abaroatik Kantabriara

Ordiziako irteeraren ostean, Kantabria aldera joango dira uztailearen 11n, Puente Viesgo eta Isla herriak bisitatzerako.

### Udaleko Turismo saila

Bi hitzordu asteburu honetan: ekainaren 22an, *Besaide, eskalada familiar*; eta 23an, rappela, tirolina eta *slackline*-a Santa Barbaran.

### Pertsonal-buru bila

Arrasateko Udalaren langile zerrendan hutsik dagoen Giza Baliabideetako Arduradun plaza oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa prozesua zabalik dago. Hautagaiek uztailearen 9ra arte eman dezakete izena.

Jose Ramon Otamendi

*harategia*

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

errekak

taberna - jatetxea

Ondo ibili sanjuanetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate

Tel.: 943 53 32 72

erreka@errekajatetxea.eu



Iban Diaz *Jefe*, Iban Goñi –azken auzo-alkatea–, Marino Yuste, astoa, Mikel San Miguel eta Eduardo Celemin *Txelis*. XABI GOROSTIDI

# Musakolako astoa, 20 urteko arrastoa

Eguaztenean, ekainaren 19an, 20 urte bete ziren Arruena parkean astoaren estatua jarri zutela. 2.000.000 pezetako kostua izan zuen, herritarrek eta auzoko enpresek ordaindu zuten, eta lau urteko borrokaren ostea lortu zuten astoa jartzeko baimena

**Xabi Gorostidi** MUSAKOLA

Astoa burugortasunarekin lotzen den animalia da; *asto bat baino burugogorra* zara esaldia da horren adierazle. Eta Musakolako bizilagunek –astakilo samarrak direnez–, burugogorkeria horri esker lortu zuten auzoko ikur den astoaren eskultura jartzea. Ideia izan zutenetik eta jarri zuten arte lau urte igaro ziren, eta ate asko jo zituzten asto famatua Arruena parkean jartzeko.

"Ideia auzo-alkatetzan sortu zen, Juan Ignacio Biain bertako buru zela. Lau urtez aritu ginen jartzeko ahaleginetan. Xabier Zubizarreta *Txiron* alkate zela ez genuen jartzerik lortu, eta, 1997an egin zioten zentsuramozioaren ostean, berriz ekin genion hiruko Gobernuaren ordezkariekin. Hala ere, Loitik ere ez zuen begi onez ikusten astoa jartzearena. Gogoratzen dut hainbat traba jarri nahi izan zizkigutela: astoaren lursaila ordainarazi, astoa jartzeko lanen obra-baimena ere kobratu nahi ziguten... dena ziren trabak!", gogoratzen du orduko auzo-alkatetzan zegoen Eduardo Celemin *Txelis*-ek.

**Auzotarrek ordaindua**

Astoa egiteko bi aurrekontu eskatu zituzten, eta Lourdes Umerez eskultore eskoriatzarraren alde egin zuten. Eskultura 2.000.000 pezeta kostatu zen, eta, bidean aurkitutako trabak ikusita, euren kabuz lortu zuten finantzaketa. "Bi kontu-korron-

te jarri genituen, eta auzotar ugarik egin zuten ekarpena. Alkatetzatik bagenuen alde aurretik aurrez zutako zerbait, baina zati handiena ekarpenen bidez lortu genuen. Aipagarria izan zen JMA eta Joma enpresek jarri zuten diru-kopurua", oroitzen du Celeminek.

300 kiloko brontzezko eskultura da Umerezen artelana, eta Eskoriatzako Bolibar auzoko asto batean dago inspiratuta. Astoaren forma dela eta Bizkai-ko Foru Aldunditik diru-laguntza bat lortzeko zorian egon ziren, baina ez zen posible izan.

**Eskulturaren kokapena**

Eskultura jartzeko oniritzia lortu ostean, buruhausteak eta tirabirak ez ziren guztiz amaitu. Korapilo sorta horretako azken kapitulua astoaren kokapenarekin lotuta zegoen. "Hemen ere ezin ados jarri... baina argiak izan ginen, eta Udalekoek amua jatea lortu genuen, Lourdes Umerez gantxo bezala erabilita. Udalekoek puntu batean kokatu nahi zuten, eta guk, ordea, beste batean. Baina guk nahi genuena lortzeko, are urrunago zegoen toki bat planteatu genuen. Estrategia honako hau zen: Udalekoen eta gure artekoen negoziazioa hasterakoan, Lourdesek erdibideko puntu bat proposatzea, errealitatean guk nahi genuen puntua zena. Biain alkateari okurritu zitzaion, ziur baitzegoen Umerezen erdibideko proposamenari baiezkua emango ziote-



## 1999ko ekainaren 19an jarria

Gaiteroekin eta dotore-dotore jantzita egin zuten kalejira astoa jartzeko. Haren azpian, JMAko giltzak, Musakolako jaien egitaraua, astoaren eta moto-klubeko pinak, diruz lagundu zutenen zerrenda eta *Arrasate Press*-ko ale bat sartu zituzten, besteak beste.

**ad Ibabe**  
G A R A J E A  
TXAPA. PINTURA ETA MEKANIKA  
**Gora sanjuanak!**  
Gesalibar auzoa 31  
Tel.: 943 79 99 61 • Faxe: 943 79 13 90

**Gora, sanjuanak!**  
*Adara*  
ILE-ARRANDEGIA  
Tel.: 943 08 10 68  
Bitari etorbidea 15 behe  
adarailepandegia@gmail.com  
Arrasate



50eko hamarkadan, Musakolako astoarekin eta soinu jolearekin kalejiran. JOXE ARANZABAL

la Udalekoek". Baina kokapen zehatza erabakita, azken tirabira bat falta zen oraindik: astoa nora begira jarri. Eta hemen ere auzotarren nahia bete zen, berriz ere, Umerezen bitartez. "Guk astoa Eroskira begira jarri nahi genuen, harekin argazkia ateratzekoan Musakola atzealdean agertzeko. Baina Udalekoek ez zuten astoa Bergarara begira jarri nahi, euren ustez herritik joaten ari zela irudikatuko zuelako. Baina Lourdesen laguntza izan genuen berriz ere. Hark azaldu zien Bergarara begira jarri arren, argazkiak ateratzekoan Arrasate agertuko zela atzean, eta, azkenean, konbentzitu egin zituen", gogoratzen du Marino Yustek.

#### Astoa ikur, zergatik?

Musakola baserri-auzoa izan da betidanik. XX. mendeko industrializazioaren eraginez gaur egun duen itxura hartu zuen, baina urte luzez belardiak eta baserriak izan dira nagusi. San Isidro bera auzoko patroizateak ere hori baieztatzen du, hura baita nekazarien patroia. Beraz, hortik abiatuta, erraz uler dai-

teke auzoak asto bat izatea ikur gisa. Baina zergatik astoa? Eta ez behi bat, adibidez? Auzoko beterranoen azalpenen arabera, 50eko hamarkadan du jatorria astoaren kontuak. Ate joka dau den San Juan Jaiak heltzerakoan, auzoko gazteek kalerako bidea modu berezian egiten zuten: San Isidro elkarte gastronomikotik abiatzen ziren eta asto bat eramaten zuten erdialdera parrandan. "Diotenez, kalera heltzerakoan astoa mozkortzen zuten".

Joxe Aranzabalek badu astoa erabiltzen zen beste froga bat. "Gogoan dut argazki bat, non nire Angiozarko osaba itsua astoaren alboan agertzen zen soinua jotzen. Antza, sanisidrotan kalejira egiten zuten Iturriperaino; astoarekin eta soinua-rekin". Jaietako karteletan, adibidez, 1989an erabili zuten lehenengo aldiz astoaren irudia. Orduan hasi zen gaur egun arte mantendu den astoaren eta dragoiaren ikonografia zirikatzailea. Auzo-alkatetzan ondo gordeta dute 89ko pegatina hura, non astoak ostiko galanta ematen dion dragoiari.

## Auzo-alkatetzeta eta jaiak, kolokan

Une honetan auzo-alkatetzarik gabe dago Musakola. Iban Goñi izan da alkatea azken hamar urteetan, baina maiatzaren 26az geroztik hutsik dago alkatetzeta. "Auzo-alkate figura indarra galtzen ari da. Lehen, hilean behin batzartzen ginen Udalean, Hirigintza batzordean, eta auzokideengandik jasotako kexak helarazten genizkien Hirigintzako arduradunei. Baina azken agintaldian, bilera horiek desagertu egin dira, eta kexa guztiak BAZetik bideratzen dira. Niri, hainbat auzokide gerturazten zaizkit kexak helaraztera, eta BAZera eramaten ditut. Baina erantzun oso berandu datoz, eta, bitartean, ez naiz gai auzokideei ganorazko erantzunik emateko. Postari lanak egitea bezala da".

#### 2020ko jaiak, kolokan

Aurtengo San Isidro jaietako egitarauko agurrean, jai batzordeak argi esan zuen ez duela jarraitzeko asmorik, eta 2020ko jaiak kolokan daude une honetan.

"Udalak jaietarako ematen digun dirua gutxituz joan da azken urteetan. Horrez gain, fakturretako asko berandu ordaintzen dizkigute, zazpi edo zortzi hilabetera, eta dirua aurreratu behar izaten dugu. Guztia trabak dira, eta horrela ezin genuen jarraitu. Boluntariok egiten dugu lan, irabazi asmorik gabe eta gure denbora libre auzoari eskainiz, eta hala lan egiten duzunean, trabek askoz min handiagoa ematen dute", azaldu du Goñik.



Sagardotegi batera joandako Musakolako lagun taldea. IBAN GOÑI



Olagarro-jana. IBAN GOÑI



Iazko I. San Silvestre proba. GOIENA

#### Auzoaren aldeko ekintzak

Azken hamarkadan, auzo-alkatetzak auzoaren aldeko hainbat ekintza sustatu ditu. Eguazteneko elkarte izan dira, buruari bueltak eman eta auzorako ekintzak prestatzeko. Musakolako BTT proba, Gazte Eguna, bertso-afaria, urtero arrakastatsua den sagardotegira irteera—sarrerak segituan agortzen dira eta hiru autobus betetzen dituzte—, olagarro-jana—bi urtez egin zuten, eta inguruko tabernetako ardo zuria agortu egin zen—, Musakolako Balkoira erromeria eta abenduaren 31n egin zuten I. San Silvestre proba dira batzuk.

"Ahalegina egin dugu auzoa biziberritzeko, baina hori guztiori galtzeko zorian dago orain".

#### "Txikiteoa eta loteria"

Marino Yuste: "Eguazteneko batzartzen ginen auzo-alkatetzako ordezkariak, eta orain arte horrela irau du. Ez dago auzorik herrian hori egiten jarraitzen duenik. 90eko hamarkadan, garai gogorak ziren politikoki, baina EAJko, HBko, PSE-EEko eta IUko ordezkariak astero egiten genuen batzarra, ostean txikiteoa, eta beti erosten genuen loteria; giro benetan sanao genuen gure artean".

**B**  
Iturriotz 4  
943 79 12 05  
ARRASATE  
*Ondo pasa sanjuanak!*

**Izozkitegia**  
Gozotegia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia  
**San Juan jai zoriontsuak!**  
Iturriotz 7  
Tel.: 943 79 81 68  
ARRASATE

**eya**  
etxetresna elektrikoak  
estilo guztietako lanparak zure esku  
**Ondo pasa Sanjuanak!**  
Iturriotz 21 · Tel.: 666 387 506 · eya@telefonica.net  
ARRASATE

# Monterron parkea, trikiti doinuen agertoki

Ekain hasieran, 'Loratu da hazia' diskoa aurkeztu zuen Arrasateko Trikitixa Eskolak eta bihar, diskoko hamaika kantuak eskainiko ditu Monterron parkean, 18:30ean hasita. Bertan, ekoizpenean lagundu duten hainbat protagonista izango dira

## Maialen Regueiro ARRASATE

Ekain hasieran, aurkeztutako *Loratu da hazia* diskoaren aurkezpena egin zuten Arrasateko Trikitixa Eskolako kideek eta bihar, zapatua, diskoko abestiak taula gainean ikusteko aukera izango da Monterron parkean, 18:30ean hasita. Diskoa hamaika abestiz osatuta dago eta hainbat kolaboratzailek hartu dute parte ekoizpenean; besteak beste, Kristina Solanok eta Ane Zuzubiskarrek.

## 100 ikasletik gora

*Loratu da hazia* diskoan, beharrezkoa izan da hainbat kolaboratzaileren lana, baina baita Arrasateko Txikitixa Eskolako ikasleena ere. Arrasateko trikiti irakaslea Irati Gutierrezek aipatu duenez, 100 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte diskoan eta, hain zuzen, bihar guztiak taularen gainean ikusteko aukera izango da.

Biharko emanaldian, diskoak dituen hamaika abestiak eskainiko dituzte. Horren harira, Gutierrezek honako hau aitortu du: "Gure asmoa diskoan parte hartu dutenak biharko emanaldian izatea zen. *Zuni* kantuaren egile Kristina Solano, esate baterako, Monterron parkean izango da". Horrez gain, Gutie-



Ekain hasieran egin zuten diskoaren aurkezpena Kulturaten. IMANOL BELOKI

rezek honako hau aurreratu du: "Hainbat sorpresa izango dira eta horietako bat Arrasateko dantzariekin lotuta egongo da".

## Harrera ona

Diskoak orain arte izan duen harrerari dagokionez, honako hau adierazi du Gutierrezek: "Diskoaren emaitzarekin pozik gaude, eta, horregatik, salmentari dagokionez itxaropena geneukan. Momentuz, feedback ona jaso dugu". Honen harira, Gutierrezek aipatu du biharko

emanaldian mahai bat jarriko dutela diskoak saltzeko.

## Maketa lehiaketa

Bestalde, Trikitixa Elkarteak maketa lehiaketa antolatu du, beste urte batez; 25 urtetik beharoko hartzen dute parte. Edizio honetan, Arrasateko Trikitixa Eskolako bi talde aukeratuak izan dira lehiaketan jarraitzeko: batetik, Eider Luengo aretxabalarra; eta, bestetik, Ekiñe Casado eta Maite Lizundia trikitiarekin eta Haritz Olaeta eta Izar Ruiz de Austri gitarrearekin.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Gogora etorri ahala

Norbera da norberaren etsai handiena, norbera da norberari exijitzen diona, norbera da norberari nora heldu edo zer lortu nahi duen esaten diona. Gu gara gure mugak, gure oztopoak, gure hesiak jartzen garenak. *Beldurra* izan daiteke, agian, hitza, bai. Zer esango duten, zer pentsatuko duten, zer irudituko zaien; lagunei, familiari, ezagunei, ezezagunei... Askotan, horrela izaten da, gu izaten gara gure etsai nagusiak gauza berrien aurrean.

Batzuetan, berekoiak izan behar gara, zergatik ez? Mundura ekarri gintuzten zoriontsu izateko, bizitza bizitzeko eta arazoak alde batera utziz gudan sinistu eta egunerokotasuna bizitzeko.

Ahaztu eta sentitu, sentitzen duzuna bizi, eta bizi duzuna zuk aukeratu. Horrela beharko litzateke, nahiz eta, askotan, korapiloa askatzeko gai ez garen.

Eta, agian, nik ere ez dakit zergatik idazten dudan hau, nire herrian argitaratuko den egunkari batean, baina hala burura etorri eta barrena askatu dut, eta bakoitzak nahi duena pentsa dezala.

## GORA ETA BEHERA



MARKEL IRIZAR

## Edukiontzien erabilera desagokia



Arrasatear bat haserre agertu da Debagoieneko Ospitale ondoan dauden edukiontzia ez direlako egoki erabiltzen. Garbigunera bota beharreko zaborra edukiontzi arruntan tokian uzten da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

**JOSE MARI SALEGI**  
HARATEGIA • URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu  
(txorizo, tripakiak...)

943 79 45 55  
Olarte kalea 20  
ARRASATE

SAN JUAN  
JAI ZORIONTSUAK!

**Nua**  
ESTETIKA ZENTROA

GOZATU SANJUANAK!

Sebero Altube plaza 7  
ARRASATE  
943 79 62 14  
[nuaestetika@gmail.com](mailto:nuaestetika@gmail.com)

**ZUBI-LAN**  
KONPONKETAK ETA SALMENTAK  
ONDO PASA SANJUANAK!

MOTORRAK  
Salmenta  
Konponketa  
Basogintza

TRESNAK  
Nekazaritza  
Lorezaintza  
Basogintza

Markulete poligonoa  
Ekutio kalea 4, 17. pabillioia, Arrasate  
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33  
[jmabizeta@gmail.com](mailto:jmabizeta@gmail.com)

**Husqvarna**

# Jarrera matxistak onartuko ez dituen jaia

Domeka da San Juan bezpera eguna, baina, asteburua dela aprobetxatuta, gaurtik hasita egitaraua jaietako hitzorduz beteta dator. Nobedadeetako bat da eraso matxisten aurkako bi zerbitzu berri jarriko dituztela herritarren esku

## Xabier Urzelai ARRASATE

Hastera doaz San Juan jaiak, baina jendea gaurtik dago ondo pasatzeko gogoz. Hala, San Juan bezpera domekan izango bada ere, gaurtik aurrera herritarrek San Juan jaien usainean ibiliko dira kalean.

## Eraso sexistarik ez

Egitarauko nobedadeak baino gehiago, eraso sexisten aurrean herritarrek eskura izango dituzten zerbitzuak dira albiste. Izan ere, Arrasateko Mugimendu Feministaren, Berdintasun Sailaren eta Kultura Sailaren

elkarlanari esker, jaietan izan daitezkeen indarkeria matxista kasuei aurre egiteko baliabide berriak eskura izango dituzte arrasatearrek. Hala, ekainaren 22tik 26ra arte, 24 orduko arreta telefono zerbitzua egongo da erabilgarri: 688 80 91 37.



Suaren gainetik salto egiten. GOIENA

Bestetik, ekainaren 22an, 23an eta 25ean, indarkeria sexistarik gabeko gunea egongo da Arbolapetan jarriko duten karpan (20:00-06:00). Bertan, indarkeria sexistan eta autodefentsa feministan adituak diren emakumeak izango dira.

## Txosnaguneko egitaraua

Txosna batzordeak egitarau zabala prestatu du San Juan jaietarako, eta, txupin ofiziala domekan jaurtiko duten arren, zapatutik zabalik egongo dira txosnak. Hainbat musika estilo entzuteko aukera egongo da, baita ekintza ugari egitekoak ere. Herriko eragileekin batera, taula gainean, lanean, barran, arduetan edota festan "genero berdintasunarekin bat" egin dutela gogorarazi du txosna batzordeak.

## Sanjuanetako egitaraua

### EGUBAKOITZA 21

**18:00** Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte amaierako ikuskizuna.

**19:30** Herrixa Dantzan, Seber Altuben.

**21:30** Kantu afaria Jose Letona plazan. Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearekin.

### ZAPATUA 22

**18:00** Txosnen irekiera.

**19:00** Trikitixa Eskolakoaren diskoaren aurkezpena Monterron parkean.

**21:00** Herriko Plazan dragoi-jana. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

**22:00** Txosnaguneko kontzertua: Tremenda Jauria eta Kumbia Queers.

### DOMEKA 23

San Juan jaien V. argazki lehiaketa ARTgazki elkartearen eskutik.

**12:00** Txosna batzordeak antolatuta txupinazoa. Ondoren, triki-poteoa.

**14:30** Herri bazkaria Uarkape pilotalekuan.

**16:00** Buenuena jatetxean 23. Mus Txapelketa.

**16:30** Etxafuegoak Herriko Plazatik. Ondoren, Seber Altube plazan Potxin eta Patxin taldearen *Zirkuko izarrak* emanaldia.

**17:00** Txopo-poteoa Incansables txarangak lagunduta.

**18:00** Herriko Plazan makala jasotzea.

**18:30** Errekortadore gaztetxoek txapelketa (8-15 urte). Ondoren, gaztetxo guztiendako zezentxoak eta poneyak.

**19:30** San Juan Bataiatzailearen parrokiaren Salbe Solemnea.

**21:00** Erremetari dantza.

**22:30** San Juan sua.

**23:00** Erromeria txosnaguneko Gora Herria taldearekin.

**23:15** Biteri plazan hasita nagusien danborrada, SUCDeK antolatuta.

**00:00** Solstizioari akelarrea txosnaguneko Pottogorriren eskutik.

### ASTELEHENA 24

**08:30** Diana, Arrasateko gaiteroekin.

**08:30** Arbolapetatik Izenbarikuak txarangak girotuta zezenketei alternatiba. Uluak-ek antolatuta.

**09:00** Entzierroa. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpatorpea, Zerkaosteta eta J.M. Arizmendiarieta plaza. Gero, zaleentzat bigantxak plazan.

**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, Meza Nagusia.

**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien konpartsa eta kalejira.

**11:00** Arrasate Musikaleko Musika Bandaren kalejira. 11:30ean, Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta gaiteroekin.

**12:00** Herriko Plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa.

**12:30-14:30 eta 16:30-19:00** Puzgarriak Biteri plazan Real Sociedad Fundazioak eskainita.

**12:30** Etxaluzen (Abaroa) omenaldia 80 urtetik gorakoek.

**13:00** Kontzertua Monterron parkean, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin.

**17:00** Herriko kaleetan zehar *street boulder* txapelketa, txosna batzordeak antolatuta.

**19:00** Txosnaguneko kontzertua: Ekiñe Casado eta Txerrikumeak.

**19:30** Errekortadoreen erakustaldia zezen-plazan.

**19:30** Kalejira erdiguneko kaleetan zehar gaiteroekin eta Arrasate Musikaleko haize-taldearekin.

**23:00** Santa Barbaratik Su artifizial ikusgarriak.

**23:15** Monterron parkean Tartean taldearen ikuskizuna: *Ez dok hiru. Euskal Musikaren benetako istorioa.*

**01:00** DJak txosnaguneko. The Big Mac.

### MARTITZENA 25

**08:30** Diana Arrasateko gaiteroekin.

**09:00** Entzierroa.

**11:00-14:00** Jolas parkeak Biteri plazan, Monterronen eta Otalora kalean -Aspacerekin eta Auzokorekin elkarlanean-. Biteriko plazan, ikusmenarekin jolasten, bizitza eskuetan, gurpil aulkiaren magia, sormen gunea, puzgarriak, aurpegi margotzea... Monterronen, ipuin kontalariak, Saharako jolasak, oihaletatik zintzilik, ur zirkuitua...

**12:00-20:00** Gazteen gunea Kulturategi plazan: karaokea, eskuter erakustaldia, DJak, tailerrak, irrati saioa...

**12:00** Azokan, *Zeuk in, zeuk jan* bazkaria.

**12:00** Karaokea Biterin.

**12:30** Arrasateko Trikitixa Eskolarekin kalejira.

**12:45** Eguzkilaruri ongietorria eta makal txikiaren igoera Biterin.

**13:00** Seber Altube plazan Trapu Zaharra taldearen *Sefini*.

**14:30** *Zeuk in, zeuk jan* kuadrillen arteko herri bazkaria.

**17:30** Txosna batzordeak antolatuta poteo girotua.

**19:00** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* ikuskizuna Monterronen.

**20:00** Bertso jaialdia Seber Altube plazan, AEDk antolatuta. Partaideak: Maider Arregi, Onintza Enbeita, Jokin Uranga eta Iñaki Viñaspre. Gai jartzaileak: Oihana eta Haizea Arana.

**20:30** Herriko Plazan Puro Relajo mariabxien kontzertua.

**23:00** Kontzertuak txosnaguneko: Wood Strings, Los WC eta Egurra eta Kitto.

### EGUAZTENA 26

**08:00** Txosnak antolatuta, sokasalto gaupaseroa.

**08:30** Diana Arrasateko gaiteroekin.

**09:00** Entzierroa. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

**11:00** Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartsa kalejira.

**12:00** Herriko Plazan Eusko Labelako produktuak dastatzea, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

**18:00** *Dirt jump* eta trialsineko *freestyle* bizikleta ikuskizuna Zaldibarren.

**19:00** Seber Altuben Lore Gazteak taldearen dantza emanaldia.

**20:00** Kontzertua herriko plazan: Koban.

### ZAPATUA 22

**18:00** Txosnaguneko irekiera ekitaldia.

**22:00** Kontzertuak: Kumbia Queers eta Tremenda Jauria musika taldeekin.

### DOMEKA 23

**12:00** Txupina txosnaguneko.

**12:30** Triki-poteoa.

**14:30** Herri bazkaria. Txartelak salgai Jaizale, Iluntz eta Irati tabernetan, ekainaren 3tik aurrera.

**17:00** Txopo-poteoa.

**18:00** Makala jasotzea plazan.

**23:00** Gora Herria erromeria.

**00:00** Solstizioaren akelarrea, Pottogorriren eskutik.

### ASTELEHENA 24

**08:30** Izenbarekuak txaranga, Uluak-en eskutik.

**17:30** *Street boulder* txapelketa erdiguneko eta txosnaguneko olinpiadak.

**19:00** Ekiñe Casado eta Txerrikumeak txosnaguneko.

**01:00** DJ Bull.

### MARTITZENA 25

**14:00** *Zeuk egin, zeuk jan* bazkaria.

**17:30** Poteo girotua.

**19:30** Presoen aldeko manifestazioa.

**20:00** Bertso saioa.

**23:00** Wood Strings, Los WC eta Egurra eta Kitto.

**08:00** Sokasalto gaupaseroa.



Barajuengo auzo-alkate Gorka Astondoa, bertako beste bizilagun batekin, zoru hondatua, kableen azpian. JULEN IRIONDO

## Hurrena berri on bat behar lukeen auzoa

Hainbat dira urteotan azpiegitura lanak egin zaizkien auzoak, eta Barajuenen txanda ere bada dagoeneko. Aurreko aldiaren eskatu zuen Udalak lanok Aldundiaren Foru Planean aintzat hartzea; Aldundiak ez zuen onartu, eta berriz egin dute eskaria

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Kiroldegiko lanekin batera, Barajuengo azpiegitura lanak eskatu ditu Aramaioko Udalak Aldundiaren Foru Planean baliabideekin egiteko. 25 etxebizitza daude Barajuenen, eta auzoak konponketa eta berritze premia handiak ditu. Saneamendurekin lotutakoa da premia horietako bat: "Aurreko obra duela 30 urte egin zen, eta dagoeneko ez dago egoera onenean. Eta kontua litzateke saneamendua Aramaioraino eramatea, eta asmoa izango litzateke handik Arrasatera eramatea gero. Orain, putzu beltz bat dugu, eta asmoa da hori kendu eta ur guztiak Aramaiora eramatea", dio Gorka Astondoa auzo-alkateak.

Saneamendu lanak aprobeztatu lituzkete, gainera, telefonoaren eta argindarraren kableak lur azpian sartzeko, eta zuntz optikorako eta gasarentzako hoditeria ere prest uzteko: "Kable guztiak goitik daude, eta behin edo behin arbolaren batekin

apurtu du bateren bat eta auzotar batzuk argirik gabe utzi; hori saihestu nahi dugu, eta, horretaz gain, itxura hobea eman nahi diogu auzoari. Bestetik, Telefonica ari da Aramaion zuntz optikoa sartzeko. Hona oraindik ez da ailegatu, baina ea aprobeztatu ditzakegun lanak zuntza ere sartzeko. Baserri guztiak dute baimena emanda horretarako; eta baita gasa ere. Gero, bakoitzaren erabakia izango litzateke horiek etxeraino eramatea edo ez, baina, behintzat, aukera edukiko".

Internet telefono kable bidezkoa dute gaur egun, eta bizkortasunean eta asko igartzen da hori. Honekin guztiarekin batera, uraren hoditeria berri

**MILIOI ETA ERDI EUROKO AURREKONTUA DUTE BARAJUENEN EGIN BEHARREKO LANEK**

beharra ere badago Barajuenen, ur-ihes asko izaten dira eta. Lur azpiko lan horiek guztiak egin da, auzoko bide nagusia asfaltatzea faltako litzateke, oso hondatuta dago eta, eta auzotar ugariaren kexa iturri izan ohi da hori. Eliza inguruan autoen abiadura murrizteko badenak egitea ere nahi dute.

**"Agian, urtebete"**

Barajuengo azpiegitura lanak egitea aurreko Foru Planerako ere eskatu zuen Udalak, baina Aldundiak ez zuen onartu, lanotarako behar adinako aurrekonturik ez zuela eta. Auzotarrek espero dute oraingoan jasotzea Aldundiaren finantzazioa.

Lanak badute aurrekontua: 1.476.829,22 euro dira, BEZa barne. Epeei dagokienez, oraingoz, ez dago jakiterik, Aldundiak Foru Planean onartuko balitu, noiz hasiko liratekeen lanak. "Agian, urtebete pasa daiteke Aldundiaren erabakia jakiterako", dio Lierni Altuna alkateak.

## Ari dira San Martin jaietarako zehaztasunak ezagutarazten

Txosnaguneko egitarauaren berri eman du Asanbladak, eta leloa eta kartelak aukeratu ditu, berriz, Udalak

**J.I. ARAMAIO**

Uztailaren 5etik 8ra izango dira aurtengo San Martin jaiak, eta, lehenengo egunean, Niña Coyote eta Chico Tornado, Brigade Loco eta Rukula taldeen kontzertuak izango dira txosnagunean. Hilaren 6an, berriz, Green Grass Festival deiturikoa egingo dute, 18:00etan, eta The Potes eta Kañeria 13 taldeek joko dute gauean. Domekan, *Zuk in, zuk jan* afaria izango da, eta film laburren lehiaketa eta Berba Pasie egingo dituzte ondoren. Jaietako azken egunean, azkenik, umeentzako jolasak egingo dituzte, 10:00etan, eta DJ Gabak egingo du saioa gauez.

Film laburren lehiaketari dagokionez, lanak USB batean aurkeztu behar dira, .mp4 edo .avi formatuan. Ur parkea izan behar da gaia, eta 5-10 minutuko iraupena izan behar dute.



Vivi Pinedaren lana. ARAMAIOKO UDALA

Bestetik, Beñat Iñarrak –umeean– eta Vivi Pinedak –nagusiean– irabazi dute San Martin jaietako kartel lehiaketa. Azkenik, hau da jaietako aurtengo leloa: *San Martin, San Martin, neskak eta mutilak berdin!*; Karlos Ugarterena da.

### Sanjuanak ospatuko dituzte asteburuan Azkoaga auzoan

Bihar, zapatua, 18:00etan jasoko dute txopoa. 21:30ean, auzo afaria egingo dute, eta ondoren, erromeria. Domekan, 18:00etan, haur eta gazteentzako jolasak egingo dituzte; 20:00etan, parrilada; 22:00etan, kalejira eta sua; gero, suziriak. Astelehenean, 12:00etan, meza izango da; gero, parrilada; 17:00etan, puzgarriak; 18:00etan, mus eta briska txapelketak.

### Aramaion egongo da egunotan Puntu Berde Mugikorra

Hondakin bereziak biltzeko zerbitzua Ibarren egongo da gaur eta hurrengo martitzenean, 11:00ak eta 13:00ak artean. Hilaren 26an, berriz, ordu bete egingo du Gantzagan, Etxagueen, Arexolan eta Oletan, 11:00ak eta 15:00ak artean. Hurrengo egunean, azkenik, Untzillan, Barajuenen, Azkoagan eta Uri barrin egongo da.

### Lobo & Carmine gaur, Sastiñako Musika Festibalaren barruan

20:00etan hasiko da emanaldia. Country-mex erako musika egingo du bikoak, modu akustikoan. Letrei ematen diete melodiei besteko garrantzia, edo handiagoa. Ahotsak, gitarra eta ahoko soinua dira emanaldian entzungo direnak. "Musikako Bonnie and Clyde sentitzea gustatzen zaigu apur bat", diote taldeko kideek euren aurkezpenean.

### Gorbeialdeko adineko pertsonen topaketa uztailaren 5ean

Donostian egingo dute, eta hau izango da egitaraua: 11:00etan, bisita gidatuak; 13:00etan, meza; 14:30ean, Araeta jatetxean bazkaria; 17:00etan, bingoa eta dantzaldia; 20:00etan, topaketaren amaiera eta itzulera. Autobusa 09:45ean aterako da, Aramaioko geltokitik. Udaletxean eman behar da izena, ekainaren 28a baino lehen.

# "Ikasketa prozesu bat izan da nobela sortzea"

MIREN AMURITZA 'BASA' ELEBERRIAREN EGILEA

Baserriko emakume gogor bat du protagonista berriztarraren lanak, eta herriaren ezaugarriengatik Aramaiokoa ere izan ahalko zitekeen mundu bat irudikatzen du

J.I. ARAMAIO

Lehen nobela du hau Amuritzak. **Sabina, andre basa bat edo *basandre* bat, zergatik bereizketa hori?** Sabina da nobelako protagonista, baserrian bizi den andre bat, eta oso inportantea iruditzen zitzaidan bereizketa hori egitea: *basandre* hitzak badauka halako adiera mitologiko, oniriko, bat, pertsonaia jainkotiar bat izan zitekeen, eta halako pertsona bat, adineko, baserriko emakume bat karamelu gozoa izan zitekeen halako idealizazio bat egiteko; baina nik ez nuen hori egin nahi. Sabina da andre basa bat, andre biolento bat, andre menderakaitz bat, zentzurik lurtarrean.

**Euskal Herrian ezagutu dugun emakume figura hori gogora ekarri arazi du...**

Bai, askotan berba egin izan da balizko euskal matriarkatu bati buruz, baina gero eta froga gehiago ditugu hori existitu ez dela esateko. Nire liburuaren helburua ez zen matriarkatuaren deseraikuntza bat planteatzea, baina egia da Sabinaren pertsonaiak eta, batez ere, bere gaur egungo basatasun hori nondik datorren azaltzeko aditzera ematen duela hori guztia. Niretzako, pertsonaia bat biolento agertzea edo ez agertzea ez da interesga-



Miren Amuritzak. GOIENA

## "MOMENTUKO FEEDBACKERA OHITUTA, LIBURUAREKIN TANTAKA DATOR"

ria, baizik eta azaltzea zergatik den pertsona hori horrelakoa. **Nolako izan da sorkuntza prozesua?** Ez da erraza izan. Ibilian nintzen zutabegintzan edo ipuingintzan, idazten, eta pentsatzen nuen nobela bat izango zela berdina

baina luzean egitea; baina ez du zerikusirik. Bakarkako ordu asko izan dira, gabezia batzuk deskubritzeko modua, gabezia horiei buelta emateko modua, ikasketa prozesu bat. **Nolako harrera izan du?**

Orain arte, ona. Hasieran, hurbilekoei pasa nien liburua, eta lasaitu nintzen apur bat; gero, aurkezpena egin genuen, eta lasaitu nintzen beste apur bat; baina guztiz-gutztiz ez naiz trankildu. Bertsolariok ohituta gaudela feedbacka momentuan jasotzera, eta orain tantaka dator.



ENEKO AZURMENDI

## Udalbatza berria, eratuta

Zapatuan izan zen ekitaldia, eta bertan izendatu zuten Lierni Altuna, berriz ere, alkate. EH Bilduko zazpi hautetsien botoak jaso zituen, eta EAJko biak abstenitu egin ziren: "Gure asmoa, EAJk nahi badu, behintzat, elkarlanean aritzea eta guztiok batera herriaren alde ahalik eta onena egitea da, orain arte moduan", zioen Altunak. Elkarlanerako gertu agertu zen EAJ ere.

## Ikasleen garraiorako laguntzak, Udalean eta Diputazioan

2018-2019 ikasturtean unibertsitateko, batxilergoko edo erdi edo goi mailetako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar izan dutenentzat dira Aldundiaren laguntzak. Ekainean eska daitezke. Antzerako laguntza eskaintzen du Udalak ere –uztailaren 19ra arte eska daiteke–.

## Euskara ikasteagatik eta sustatzeagatik Udalaren laguntzak

Euskara ikasteagatik eta Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzeagatik bakarrik ematen zituen orain arte laguntzak Udalak. Horiei gehitu zaizkie, orain, kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeko laguntzak –errotulazioa, webguneak...–. Lehena eskatzeko epea urriaren 25era arte da; bigarreneko, urte amaierara arte.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

## Txoriak eta 'Mozart efektua'

Orain dela ez asko, Internetetik galduta nenbilen egun batean, *Mozart efektua* deituriko fenomeno batekin topo egin nuen. Musika klasikoan murgilduta bizi naizen arren –eta, orain, sarrera probekin, inoiz baino gehiago–, ez nekien ezer horri buruz. Badirudi Mozarten sonata batzuk garuneko toki espezifikoak martxan jartzeko gai direla. Ez hori bakarrik, alzheimerren efektuak ekiditeko edo arintzeko balio omen dute, esnatzen dituzten zona horietan garatzen baita gaixotasuna. Datu horiek nahiko txundituta eta hunkituta utzi ninduten; izan ere, familiako txori kantaria ni naizen arren, beste txori handiago batek sartu ninduen munduan, eta azkenaldian txoritxo horrek ez du gehiegi kantatzen. Esan genezake txoritxo askok burutik alde egin diotela eta oso kostata bueltatzen direla. Ez dakit balioko ote duen edo ez, eta ez naiz hasiko bafleetan Mozarten opera guztiak *a tope* jartzen. Baina, badaezpada, eta kontuan hartuta galtzen den azken memoria musikala dela, nik Mozarten sonatak jartzen jarraituko dut, ea txoritxo bueltatu eta nirekin kantuan hasten den. Bitartean, nire txoriak gogoratuko dira bion partez.

## Amuritzak Aramaion, lanaren gainean

Txirritola euskara elkarteak antolatuta eta irakurzaletasuna bultzatzeko *Begixekin leiru, bihotzaz gozatu* kanpainaren barruan, Aramaion izan berri da Miren Amuritzak. Talde polita elkartu zen idazlearen azalpenak entzuteko.

Astean bukatu da euskarazko liburua irakurri eta ondoren fitxa bat beteta saria eskuratzeko aukera ematen duen kanpaina.



Amuritzarekin egindako literatura solasaldia. JOKIN BEREZIARTUA

# Sua, dantzak eta tantaia protagonista domekan

Antzinako sinismenak eta usadioak gogora ekartzeko eguna da San Juan bezpera, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Dantzekin ekingo diote arratsaldeari, suarekin jarraitu, eta tantaiaaren altxatzeak borobilduko du eguna

## Mirari Altube ARETXABALETA

Udako solstizioari ongiatorria egiteko ohitura zaharrak gogora ekarriko dituzte, beste behin, domekan, ekainaren 23an, Kultura Sailari esker.

Plaza dantzarekin emango diote hasiera ospakizun egunari (18:00). Leizarra musika eskolakoek dantzan egiteko gonbidapena egingo diete dantzari, ikasleen gurasoei zein herritarrei. Jarraian, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran joango dira, txistularien laguntzarekin. Eta gauean (21:00), Alaiki taldeak girotuko ditu Herriko Plaza inguruak.

## 2001ean jaiotako kintoak

San Juan suaren bueltako ekitaldiak dantzariak abiatuko dituzte. Mitarte kaletik irtengo dira (22:20) horiek, txistulariekin batera kalejiran, eta Herriko Plazara iritsitakoan sanjuanetako zortzikoa egingo dute dantzan. Bukatutakoan isiotuko



Herritarrek San Juan suaren bueltan elkartuta iaz. M.A.

dute sua, baita kantuan egin ere herritarrek.

Ondoren, 2001ean jaiotako kintoek, 60 neska-mutilek baino gehiagok, Durana kalera eroanda izango duten tantaia altxatuko dute.

## Irak atarietan


Astelehenean, San Juan eguna, herriko atari guztietan irak izango dituzte herritarrek. Izan ere, aurten ere lanean jardungo du taldetxo batek gau guztian, ohitura hori gal ez dadin.

## San Juan bezperako ekitaldiak




**MIKEL ARCE**  
DANTZA IRAKASLEA

"Aretxabaletan ohitura denez, sanjuanetako zortzikoa egingo dute dantzan 24 bat dantzari, eta horren ondoren, Xabi Solano musikariaren koreografia bat. Ohiko zortziko bat da, baina pauso batzuk egun horretan bakarrik egiten dira. Behin dantzak bukatutakoan, sua isiotuko dute".



**JESUS MARI HERRASTI**  
BOLUNTARIOA

"Aurten ere jarriko ditugu irak etxe atarietan, eta gurutzeak hainbat ateburutan. Seguru asko, egunean bertan jasoko ditugu ira horiek Leizabal baserri inguruko pinudian, eta gauerdia ostean hasiko gara banatzen. Azken urteotan, taldetxo osatu da eta lana bizkorrago egingo dugu".



**JOSU AIZPURUA**  
KINTOA

"Tantaia aukeratzera zapatu goizean joango gara, eta domeka eguerdirako ekarriko dugu herrira. Hamabi metro baino gehiago ezin duela izan esan digute, eta enborrak 100 zentimetro baino gutxiago. Altxatutakoan, gazta, ogia eta ardoa eskainiko ditugu; Udalak emango dizkigu horiek".



Udalbatzako kideak, zapatuan, kargua hartu ostean. MIRARI ALTUBE

## Alderdiak hasi dira agintaldiko lanak zehazteko harremanetan

Zapatuan eratu zen lau urterako udalbatza; kargua hartu zuten zinegotziek eta Unai Elkoro izendatu alkate

## M.A. ARETXABALETA

Inolako ezusteko barik eratu zen udalbatza joan den zapatuan. Unai Elkoro jeltzalea izendatu zuten alkate taldekideen botoekin, eta pozik hartu zuen hark aginte-makila. Harekin batera hamaika zinegotzik hartu zuten kargua, eta bat geratu zen hartu barik: EAJko Alex Seiler. Hura kanpoan zen egun hartan, eta orain, parte hartuko duen lehenengo osoko bilkuran egin beharko du zin.

## Batzorde banaketa, erabakitzeaz

EAJk eta EH Bilduk osatu duten udalbatza behin eratuta, agintaldia hasitzat eman dute. Orain, hilabeteko epea dute Gobernua osatzeko eta batzordeak banatzeko. Dena den, lanean dagoeneko hasita daude; udalbatza eraketa aurretik bilera bat izan zuten elkarrekin, eta ondoren, beste bat. "Uste dut hamabost

egunetan guztia zehaztuta izango dugula. Gure asmoa da batzorde bat eskaintzea EH Bilduri", adierazi du alkateak. Eta gaineratu du agintaldi honetan ez dutela batzorde askorik eratzeko asmorik: "Batzordeak murrizteko asmoa dugu, koordinazioa errazte aldera; lau edo bostekin nahikoa. Eta batzordeetara alderdi bakoitzeko bi kide joango lirake". Agintaldi polita izango duelakoan dago: "Proiektu asko ditugu, ekonomikoki egoera onean gaude, eta aukera politikak ditugu gauza asko egiteko. Konbentziturak nago agintaldi ona izango dela".

EH Bilduko Ion Albizuk, berri, elkarlanerako dei egin du: "Herritarrek elkarlanerako apustua egin dute, hori eskatzen digute udal agintariok eta hori da eskatu dioguna udalbatza osoari, eta, bereziki, Unai Elkoro alkateari".

## Kontzertuak Aretxarterekin

Egubakoitz iluntzeak girotzen dihardu azken asteotan Aretxarte merkatarien elkarteak. Joan den astean, Txerrikumeak herriko taldearen kontzertua izan zen Mitarte kalean, eta oraingoan, *Ramones it's alive!* emanaldia izango da Lau Bankuko plazan (19:00); Ramones punk talde ospetsuaren bertsioak eskainiko dituzte.







Jorge Arechavaleta mexikarra udaletxeko osoko bilkuren aretoan, zapatuan. MIRARI ALTUBE

# Arbasoen jaioterria ezagutzera Mexikotik

Jorge Arechavaleta gaztea Mexiko iparraldeko Monterrey hirian bizi da; Madrilen egon da azken hilabeteotan Zuzenbide ikasketak egiten, eta aste bukaeran Aretxabaletara etorri da, arbasoen herria bisitatzera

## Mirari Altube ARETXABALETA

Mexiko iparraldeko Monterrey herrian bizi da Jorge Arechavaleta, eta aste bukaeran, Aretxabaletan izan da bisitan. "Nire aitajauna ere etorri zen hona orain dela 30 urte; beste senide batzuk ere etorri izan dira. Eta neuk ere tradizioarekin jarraitu beharra nuen; horregatik etorri naiz ezagutzera", adierazi du.

## Abizenaren jatorria

Zuzenbide ikasketak egiten dabil Arechavaleta, eta Madrilera etorri da, sei hilabetez, ikasketak horiek osatzera. Joan den egubakoitzean etorri zen Aretxabaletara: "Nire familiaren eta abizenaren jatorria ezagutu guran gerturatu naiz. Jakin dudanez, XIX. mende erdira arte bizi izan zen hemen nire arbasoren bat, orain dela 200 urte inguru arte". Senideek eskatu diote artxiboetan begiratzeko datu interesgarriren bat topatze aldera, eta gogo horrekin zegoen

zapatuan. Domekan itzuli zen Madrilera eta handik Mexikora. Herriko historia kontuetan aditu Aitor Antxia Leturiak dio sasoi batean herri izenak jartzen zizkietela abizen umezurtzei, eta gaur egun Arechavaleta abizena duenik ez dagoela herrian.

## Udalbatzaren eraketa ezagutu

Unai Elkoro alkateak egin zion harrera joan den zapatuan, eta udaletxeko bazterrak eta inguruak erakusten jardun zuten: "Erdigunean eman genuen bueltatxo bat. Eta gero, batzokira gonbidatu nuen mokadutxo bat jatera".

Zapatuan, gainera, datorren agintaldiko udalbatza eratu zen

**"NIRE AITAJAUNA ERE ETORRI ZEN ORAIN DELA 30 URTE HONA, BAITA BESTE SENIDE BATZUK ERE"**

eta alkateak kargua hartu zuen. Ekitaldi hori bertatik bertara bizi izateko aukera izan zuen Arechavaletak: "Ez neukan, inondik inora, honen berri, eta kasualitate handia izan da. Izan ere, nik neuk Monterreyko Udal Gobernuan dihardut lanean eta neuri tokatu zitzaidan orain dela urtebete inguru hango udal eraketan parte hartzea. Hortaz, esandako moduan, kasualitate handia da hau bizi izatea. Eskertuta nago alkateari, geratzera gonbidatzeagatik".

Hango ekitaldiak eta hemengoak ez dutela inolako antzik azaldu du: "Hemengo askoz ere apalagoa da; eta nik uste dut hala izan behar duela. Gurean askoz ere *show* handiagoa dago: argiak, musika, suziriak... Hango eta hemengo agintariak elkartzeko dira eta protokolo handiagoa dago. Udal baten helburua, azken baten, da herritarren zerbitzura lan egitea, eta, hori betez gero, zenbat eta apalago egin gauzak, hobeto".



PEDRO ETXEBARRIA

## Erretiratuen dantza erakustaldia

Gogoak bakarrik behar dela dantzan egiteko erakutsi dute Basotxo erretiratuen elkarteko hainbat kidek astean egin dituzten erakustaldietan; saltsa dantzak eta plaza dantza, besteak beste.

Jaiki elkarteko kideek eta Altraste dantza konpainiak ere erakustaldi dotoreak eskaini dituzte, astean, *7x7 Kultura kalean* egitasmo barruan.



M.A.

## Agurra ikasturteari musikarekin

Senideen eta herritarren aurrean emandako kontzertuarekin bukatu dute, urtero legez, ikasturtea Leizarra musika eskolako kideek. Trikitilariak, txistulariak, gitarra-joleak, biolin-joleak eta gehiago elkartu ziren, baita abesbatzako neska-mutikoak ere. Kontzertu bitartean, musika ikasketak bukatu dituztela ziurtatzen duten diplomak jaso zituzten hainbatek.

## Kuadrillen zazpiko futbol txapelketa uztailaren 21ean da

Debagoieneko kuadrillen arteko futbol txapelketa antolatuko du, beste behin, UDAK; uztailaren 21ean izango da. Dagoeneko zortzigarrena da, eta izena emateko epea zabalik dute. Hona hemen horretarako bideak: [udaretxabaletake@gmail.com](mailto:udaretxabaletake@gmail.com); Whatsapp: 635 20 64 33; eta Instagram: [@udaretxabaleta](https://www.instagram.com/udaretxabaleta). Azken eguna uztailaren 18a da.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra da 16 urtetik gora izatea -2002an jaiotakoak barne-. Talde bakoitzak arduradun bat izendatuko du, eta, izena ematerakoan, haren izena eta telefono zenbakia eman beharko ditu, baita 100 euro sartu ere Laboral Kutxako kontu honetan: ES 93 3035 0002 16 0020703093.

Sariak honako hauek izango dira: txapeldunak, 600 euro; txapeldunordeak, 300 euro; eta hirugarren sailkatuak, 100 euro.

# Aste Zapatistaren barruan, ekintza ugari oraindik ere

Aste osoan zehar hainbat hitzordu izan dira, egunez egun, Aste Zapatistaren bueltan. Antolatzaileak "pozik" agertu dira 19. edizioan jaso duten erantzunarekin, baina oraindik gaurko eta biharko egunak geratzen zaizkie disfrutatzeko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Hainbat hitzordu izan dira Aste Zapatistaren bueltan aste osoan zehar. Hala ere, oraindik ez da amaitu jaia, baina EskoZap elkarteak "pozik" agertu dira orain arte egindako ekintzek izan duten erantzunarekin.

"Jose Arana nagusien egoitzako egoiliarrek paseoa atera genituen bertako langileen eta senitartekoan laguntzarekin, trikitilariak girotuta. Josteko hainbat teknika probatzeko aukera izan da, arrakasta handia izan duen aldaketa klimatikoaren gaineko hitzaldia izan dugu Josefina Fraile aktibistaren eskutik, Buztingintzakoak urteko azkenengo saioa egin dute plazan...", adierazi dute EskoZap elkarteak kideek.

Astea amaitu barik, gaur eta bihar, hainbat ekintza izango dituzte. Gaur, 11:00etan, Iurre Romaretazabala EskoZap elkarteak kidea *Beste mundu bat posible delako* hitzaldia eskaintzen izango da, Luis Ezeiza Eskolan. Bertan, Chiapasen (Mexiko) egindako elkartasun ekintza batzuen berri emango die ikasleei, eta hangoek Eskoriatza herria oso presente dutela azpimarratu. 18:00etan, berriz, Alaitzen taldearen emanaldia izango da nagusien egoitzan. Ondo-



Aldaketa klimatikoaren inguruko hitzaldian batu zirenak. ESKOZAP

## PURO CHILE TALDEAREN KONTZERTUA IZANGO DA GAUR, INKERNU TABERNAN, 22:30EAN

ren, 19:30ean, Jaiki Elkartearen *Gorputza gogoan* dantza ikuskizuna izango da Fernando Eskoriatza plazan, eta, egunari amaiera emateko, 22:30ean, Puro Chile taldearen kontzertua izango da Inkernu tabernan.

## Festa eguna, zapatuan

Zapatua izango da Aste Zapatistako egun handia. Goiz osoan zehar, artisau azoka izango da Fernando Eskoriatza plazan, eta 14:30ean, berriz, ohikoa den herri bazkari mexikarra egingo dute. Oraindik, gainera, salgai dituzte txartelak, 15 eurotan. Inkernu, Naira, Hotela eta Goxo Txiki tabernetan.

Bazkalostea, berriz, Iñaki Bizkai akordeoilariak girotuko du, eta gauean, 00:00etatik aurrera, Margu disc-jockeya izango da Naira tabernan.



Eskoriatzako udalbatza berria osoko bilkura aretoan. IMANOL BELOKI

## Udalbatza berriaren eraketan esker mezuak izan ziren nagusi

Inolako ezusteko barik eratu zen udalbatza, eta Joserra Zubizarreta izango da berriro alkate, bigarren

**I.B** ESKORIATZA

Pasa den zapatuan eratu zuten udalbatza berria Eskoriatzan, eta, zinegotziek kargua hartzeaz batera, Joserra Zubizarreta izendatu zuten alkate, bigarren. Hori egiteko orduan, EH Bilduko ordezkariak euren buruari eman zioten botoa, eta berdin EAJkoek ere; Elizateen Elkartekoek, aldiz, alderdi jeltzaleari eman zioten botoa, eta alkatezari uko egin.

Udalbatza hamaika zinegotzik osatuko dute, eta EH Bilduko Nestor Arana falta da kargua hartzeko. Kontu pertsonalenga-

tik ezin izan zen bertan egon, eta egiten den lehenengo osoko bilkuran hartuko du zinegotzi kargua.

## Esker on mezuak

Eskoriatzarrei, EAJri eta etxekoei eskerrak emanez hasi zuen berbaldia Joserra Zubizarretak, kargua berritu bezain pronto. Emozioz beteta, momentu hunkigarria bizi izan zuen. EH Bilduko Eluska Irazu bozeramaileak ere eskerrak eman zizkien babesa adierazi dieten herritar guztiei, eta lanerako prestutasuna agertu zuen.



I.B


## Dorleta eraikineko lanak, hasita

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dorleta eraikina egokitzeko lanekin hasi dira, ikasleek ikasturtea bukatu bezain pronto. Orain dela urtebete adierazi zuten moduan, eraikina berritu beharra ikusi zuten, fakultateak izandako hazkundeari aurre egiteko, eraikin efizienteagoa izateko eta itxuraldatzeko, besteak beste. Irail aldera arte iraungo dute lanek.

## Atxorrotx mendiaren margolana Chiapasen

Atxorrotx mendia Gurutze Santuaren ermitarekin batera margotu dute Chiapasako Zitim komunitateko osasun etxe baten fatxadetan.

Eskoriatzarekiko maitasuna Iurre Romaretazabala eskoriatzara urtero joaten da Chiapasera laguntza eskaintzera, eta, adierazi duenez, oso presente dute Eskoriatza han.



Zitim komunitateko osasun etxeko fatxadetan Atxorrotx margotuta. ESKOZAP

# Trukoz betetako pilota txapelketa, domekan

17. urtez, Kontzejupe Pilota Txapelketa jokatu da domeka honetan. Bikoteka, 10:00etan, 16 urteko azpiko gazteen saileko partiduak eta emakumezkoen kategoriak jokatu dira; eta 15:00etan, aldiz, gizonezkoen kategoriakoak

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskupilotan jokatzeko kantxa berezia da kontzejupea. Izan ere, udaletxe azpiko arkupeetan maltzurkeriaz betetako pilota partiduak jokatu izan dira, eta horiek ondo ezagutzen dituzte bertan ordu asko sartu dituztenek. Maltzurkeriaz, trebezia, baina, aldi berean, kiroltasunez betetako partiduak izaten dira. Izan ere, udaletxeko ateko koxkara botatzen dute pilota askok; beste batzuek, aldiz, atzeko pareraino, eta errebotean eraman behar izaten dute pilota parte-hartzaileek... Halakoak eta beste hainbat ikusteko aukera izango da domeka honetarako Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Kontzejupe Pilota Txapelketaren 17. edizioan.

## Partiduak, bikoteka

Lehen, liga modura antolatzen zen, eta astean zehar jokatzeko ziren partiduak; gaur egun, aldiz, egun bakarrean egiten da txapelketa.



Haurrak kontzejupean. GOIENA

pelketa. Hala ere, eskupilotarekiko zaletasuna duten herritarrez betetzen da Fernando Eskoriatza plaza ingurua. Hori horrela, 16 urtetik beherako haurrak izango dira, bikoteka, txapelketari hasiera emango diotenak.

10:00etan hasiko dira partiduak, eta izen-ematea bertan egin behar da, pixka bat lehenago joanda. Horiekin batera, emakumezkoen partiduak izango dira. Azken hauek pasa den edizioetan indarra hartu dute; iaz, esaterako, emakumezkoen lau bikote izan ziren.

15:00etan, aldiz, gizonezkoen partiduak izango dira. Horietan, adineko jendea gazteekin batu ohi da; hala, esperientziaren eta gaztetasunaren arteko nahasketa sortzen da. Batzen diren bikoteak ere ohikoak izaten dira txapelketan, baina nahi duenak eman dezake izena.

## Zapatuan beharrean, domekan

Kontzejupe Pilota Txapelketa domekan egitea erabaki dute antolatzaileek. Normalean, zapatuan egin duten arren, zapatu honetan Aste Zapatistako bazkaria izango da bertan, eta domekan, ekainaren 23an, izango da txapelketa.



Iazko udalekuan ateratako talde argazkia. GOIENA

## Irteeren aldeko apustua Gatzagako udalekuan

Udaleku itxiak astebetekoak izango dira eta udaleku irekiek, berriz, bi asteko iraupena izango dute

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Udalekuek bi eskaintza egongo dira Gatzagan. Hain zuzen ere, udaleku irekiak 3 eta 11 urtera arteko gaztetxoentzat zuzendutakoak izango dira eta itxiak, berriz, nagusiagoak diren zatitakoak. Begirale moduan, aldiz, Miren Zubillaga eta Aitor Ajuria arituko dira.

Udaleku irekiak uztailearen 8tik 12ra bitartean eta uztailearen 15etik 19ra bitartean izango dira. Herrian bertan hainbat ekintza eta jolas egingo dituzte, baina irteerak ere ez dute hutsik egingo.

go aurten. Hiruerreketara goiz-pasa, Landara, Gopegiko igerilekuek, Hontza Extrem abentura parkera... halako irteerak prestatu dituzte. Horietara udaleku itxietan arituko direnak ere joango direla adierazi dute begiraleek.

## Arbizun udaleku itxiak

Udaleku itxiak pasatzera Arbizuko kanpinera joango dira, uztailearen 28tik abuztuaren 2ra bitartean. Bizikletan irteera, Beriainera mendi irteera eta Iruñera egun-pasa egingo dituzte, besteak beste.



I.B

## Gimnasten urte bukaerako saioa

Gimnasia erritmikoko taldeak urte bukaerako erakustaldia eskaini zuen martitzenean, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Harmailetan senitartekoak eta lagunak izan ziren erakustaldia ikusten, eta, guztira, 30 gimnasta batu ziren euren abileziak erakusteko asmoz. Bakarkako saioak zein taldekakoak ikusi ahal izan zituzten bertaratu zirenek.

## Tantaia altxatzea eta San Juan suaren piztea domekan

Ekainaren 23a San Juan bezpera da, eta, ohiturari jarraituz, Fernando Eskoriatza plazan tantaia altxatu eta sua piztuko dute datorren urtean Santa Ageda neska-mutil izango diren gazteek. Hain zuzen, 2002an jaiatu ziren herriko neska-mutikoek.

Egunerako antolatu duten egitaraua, berriz, honako hau izango da: 12:00etan, Fernando Eskoriatza plazan elkartuta, txorimaloaren bila ibiliko dira, datorren urterako lore-sendorra prestatzeko. 19:30ean, buruhandiak izango dira; tantaia, berriz, 22:00etan jasoko dute, eta hau amaitzean, 22:30 aldera, San Juan sua piztuko dute. Amaitzeko, berriz, erromeria izango da.



I.B

## Lanak errepide alboan

Leintz Gatzaga inguruetako errepideen konponketa lanak amaituta, Zarimutzeko bidegurutze parean ere egin dituzte hainbat lan. Hain zuzen ere, Eskoriatzako noranzkoan eskuinetara dagoen harrizko paretaren egonkortu egin dute, harriak errepidera ez jausteko eta segurtasuna bermatzeko.

# EGITARAUJA

## EGUBAKOITZA 28

### BEZPERA

**12:00** Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, herriko plazan (4-12 urte).

**17:30** Chef Nature, Markeliñe taldearekin, Gorosarri plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian–.

**18:00** Gesaltza TXARANGA, herriko kaleetan.

**18:30** Arientzako kanpai joleen saioa kanpandorretik.

**19:00** Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoilariak herriko txistulariak izango dira. Ondoren, Musika Eskolako banda, txistulariak, buruhandiak eta Gesaltza TXARANGA kalejiran.

**19:30** Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALBEA abestuko du San Pedro elizan.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.

**00:30** Dantzaldia Puro Relajo taldearekin, plazan.

## ZAPATUA 29

### SAN PEDRO EGUNA

**10:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**11:00** GOITIBEHERA JAITSIERA herrikoia Bolibarko errepidetik.

**11:45** ELIZBIRA.

**11:50** Udalbatza elizara joango da, txistulariek lagunduta.

**12:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

**12:30** Apaxi ipuin kontalaria, Zaldibar antzokiko plazan (0-6 urte).

**13:00** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, herriko plazan.

**17:30** Kuadrillen arteko jokoak –6-12 urte, PLAZAN; eta 12-17 urte, GERNIKA PLAZAN–.

**18:30** ESKUPILOTA partidak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Sarrerak: 5 euro 1. partida: Aritz Zubia/Mikel Etxezarreta vs Aritz Zugasti/Asier del Campo. 2. partida: Urbietta II/Beroiz vs E. Labaka/Merino.

**18:30** Hiri-dantzak, break dance eta rap saioak, plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**19:30** MEETING POINT dantza ikuskizuna Ertza taldearekin plazan.

**20:00** Dantzaldia Nuevo Talisman orkestrarekin.

**20:30** Jokoetan parte hartzen dutenentzat afaria gaztelekuan.

**22:00** Disko festa liburutegiaren kanpoaldean 12-17 urte bitarteko gaztetxoentzat –alkoholik gabeko koktelak, musika, opari zozketa...–.

**22:30** MUSIKAL GUZTIAK IA IA ikuskizuna DEMODE QUARTET taldearekin, Gorosarri plazan.

**23:30** Dantzaldia, plazan, Nuevo Talisman orkestrarekin.



GOIENA

### Eskoriatza Herri bazkaria

Urtero moduan, euskal jai eguna ospatuko dute eskoriatzarrek. Eguerdian plazan talo eta sagardoa dastatu ostean, trikiti doinuez girotutako bazkaria egingo dute.

**Herriko plazan, 15:00etan**

## DOMEKA 30

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Herriko hildakoen aldeko MEZA.

**12:00** Entzierro txikia Apotzagako bidetik Intxaurtuetara. Bertan, errekortadore eskola ibiltaria.

**23:30** SONIDOS DE MEXICO mariatxi taldea, plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian–.

**13:00** MUSIKAL GUZTIAK IA IA ikuskizuna DEMODE QUARTET taldearekin, Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**16:00** 28. MUS TXAPELKETA, erretiratuen tabernan.

**18:00** Kuadrillen arteko jokoak, IX. Banderia, Santa Marina plazan.

**18:00** Irulitxa TXARANGA, herriko kaleetan zehar. Erretiratuen tabernan.

**18:30** HAUREN DANBORRADA.

**22:00** ZAPATOS EN EL AIRE ikuskizuna, Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**23:00** Kontzertua: Onki Xin eta Nogen, plazan.

## ASTELEHENA 01

### EUSKAL JAIA

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELA, herriko plazan.

**12:00-14:00 eta 17:00-20:00** parkea: uretako txirista erraldoia eta rokodromoa tirolinarekin.

**12:00** Musika Eskolako DANTZA TALDEA, plazan.

**13:00** TRIKITILARIEKIN KALEJIRA.

**15:00** HERRI BAZKARIA, herriko plazan. Prezioa: 17 urtera arteko menuak, 10 euro; 18 urtetik gorakoak, 18 euro. Txartelak salgai: Inkernun eta Goxotxikin.

**Ondoren**, kantu txapelketa. Oinarriak: webgunean eta app-ean.

**19:00** VI. buruhandien txirindulari lasterketa, plaza ondoan –16 urtetik gorakoentzat–.

**Ondoren** Buruhandiak eta Laket taldearekin dantzaldia.

**22:00** Dantzaldiak jarraituko du Laket taldearekin.

**00:00** BANDERA JAITSIERA eta suzko eruberak –suak Gernika plazatik botako dira–.



San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58

**MARTIN** frutategia  
Frutan eta txarkuterian  
espezialista

Ondo ibili sanpedrotan!



Txistulari taldea egungo argazki batean. GOIENA

# Txistulariak protagonista jaietako pregoian

Urteetan egindako lanari orogarri bezala, Eskoriatzako txistulari taldeak izango du aurtengo sanpedroetan pregoia botatzeko ardura. Hala, haien eskutik hasiko dira jaiak ekainaren 28an, 19:00etan, udaletxeko balkoira igota

## Jone Olabarria ESKORIATZA

Gaur egun, hamalau kide inguruk osatzen dute Eskoriatzako txistulari taldea, eta eurak izango dira, hain zuzen, aurtengo pregoia botako dutenak. Erabakiaren berri izan zutenean "ohorea eta plazera" sentitu zutela azaldu du taldeko Jota Arrietak: "Eskoriatzako herriak gure lana baloratzen duela sentitu dugu".

Talde moduan, eta omenaldia aurten iritsi den arren, herrian betidanik izan diren txistulari guztiei zuzendutako keinua izatea nahiko lukete: "Herriko txistulari guztiei eskaini nahi

diegu pregoia, egun talde formal bezala egituratuta gauden arren, Eskoriatzan txistua jo duten guztiak omendu nahiko genituzke: izandakoei, egun gabiltzanoi eta etorriko direnei".

Taldeko kide gehienek ezagarrri bera partekatzen dutela azaldu dute: "Oso gaztetan hasi ginen jotzen, eta, zenbait urtez *eszedentziak* hartu ditugun arren, umeak izan ditugulako edo, denak bueltatu gara txistura". Etorkizunaz galdetuta kezkatuta agertu dira, eta adierazi dutenez, "orain ez dugu gazte askorik taldean, ia denak guraso

izandakoak gara. Herriko haurrek txistua ezagutu eta jotzen ikas dezatela bultzatu beharko litzateke, tradizioa bizirik mantendu dadin".

Dena den, itxaropentsu daude eta, batez ere, gogotsu San Pedro jaietara hasiera emateko: "Ez genuen espero pregoilari izendatzea eta oraindik ez dakigu nola egingo dugun, nork hitz egingo duen edo zenbat igoko garen. Protokoloan ez gara oso adituak, guk txistua jotzen dugu, eta, hortaz, denak igoko gara balkoira, hori da intentzioa". Konpromiso ugari izaten dituztela dio: "Askotan



Txistulariak erraldoiekin kalejiran, 1955eko ekainean. ESKORIATZAKO ARTXIBOA



Eskoriatzako taldea 90eko hamarkadan. ESKORIATZAKO ARTXIBOA

kexatzen gara lan handi izaten dugulako, baina gustura joaten gara, gure afizioa da".

## Txistularien maisu

Bestalde, egungo txistulariek gogoan izan nahi dute Mario Padilla, hura ere txistulari taldeko kide izandakoa eta herri-

## "OHOREA ETA PLAZERA DA ESKORIATZAKO JAIETAN AURTEN PREGOILARI IZATEA"

ko txistularia izan zena: "Taldekide gehienok ikasi genuen Mariorekin txistua jotzen, hura izan zen Eskoriatzan txistularion maisu".

Kontatu dutenez, "gure erreferente zuzena eta aita pontekoa da". Herritar ugari ikasi zuten harekin txistua jotzen, eta horren adierazle dira Mario Padillari egindako omenaldiak: "Noizbehinka egin izan dugu kalejiraren bat Marioren omenez, eta ehun lagundik gora batu izan gara, denak harekin ikasi edo ibilitakoak. Esker oneko hitzak baino ez ditugu".

Gora San Pedro jaiak!

**Hemen**  
GARBIKETAK

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45  
www.hemen-garbiaketak.com  
hemen@hemen-garbiaketak.com

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

BIMTRADA

# Kontraesanez betetako dantzaren topagunea

Kaleko ikuskizun onenaren Max saria irabazi ostean, larunbatean iritsiko da Ertza konpainiaren 'Meeting point' ikuskizuna Gorosarri plazara. Dantza garaikidea, eta breakdance estiloak uztartzen dituen piezak "giza kontraesanak" lantzen ditu.

**Jone Olabarria** ESKORIATZA

Dantzak batu zituen *Meeting point* ikuskizuneko protagonistak, eta, hain zuzen ere, dantzari bueltatu nahi izan diote "bizitzak egindako oparia". Erlazioei buruz, pertsonen arteko harremanez eta bizitzaz, batez ere, mintzo da Ertza konpainiak Eskoriatzara eramango duen emanaldi laburra.

Ordu laurden irauten duen kale ikuskizunak hiru lagunen bizitzek nola eta noiz topo egin zuten azaltzen du. "Protagonistetako bik, herrialde berean hazitakoek, jaioterria utzi zuten eta, 8.000 kilometrora, bizitza berri baten bila alde egin zuten. *Putzua* gurutzatu behar izan dute eta urte batzuk pasatzen utzi, planetaren beste punta batean elkartu, elkar ezagutu, eta elkarren loturak aurkitzera iristeko", azaldu du Asier Zabaleta Ertza konpainiako kideak.

Hura da, hain zuzen ere, hirugarren protagonista istorio horretan: "Kasualitatez elkartu ginen, *casting* batean, eta orduetik hona banaezinak gara". Zabaletaren espezialitatea dantza garaikidea izanik, breakdancerean eta hip-hoparen hizkuntzak nahastu dituzte, hiruren artean, bizitzaren bueltez hitz egiteko.



Ertza konpainiako kideak, *Meeting point* ikuskizunean. ERTZA KONPAINIA

## Ibilbide oparoa

Ertza konpainiak 2004an hasi zuen bidea, Asier Zabaleta (Ezki, 1972) dantzari eta koreografoaren zuzendaritzapean. Suitzan urte batzuk eman ostean, Euskal Herrira itzuli eta konpainia abiarazi zuen. Bertan, dantzara mugatu barik, artearen askotariko diziplinak nahastuz, baina estilo garaikidean oinarrituz, pieza ezberdinak sortzea du helburu.

"Gizakiaren eta gizartearen kontraesanen inguruan galderak plazaratu nahi ditugu, eta espa-

zio publikoetara nahiz aretoetara eraman. Dantzaren estetika garrantzitsua den arren, barnean daraman mezuari ematen diogu garrantzi berezia, hitzek komunikatu ezin dutena kontatzeko", azaldu du Zabaletak.

Sortu zenetik, munduko hainbat txokotara eraman ditu bere lanak Ertza konpainiak: Txina, Filipinak, Brasil, Peru, Costa Rica, Mexiko, Errusia... Sorkuntza arloan eginiko lanez harago, Ertzak hainbat formakuntza eta sentsibilizazio proiektu ere jarri ditu martxan.



Jon Arbe, breakdance pauso bat egiten. JON ARBE

## Breakdancenez eta rapaz gozatzeko, baita probatzeko ere

Larunbatean, arratsaldeko seietan, hiri dantzak, rapa eta breakdance emanaldia izango dira plazan

**Jone Olabarria** ESKORIATZA

Breakdancenez eta rapaz beteko dira Eskoriatzako Gorosarri plaza San Pedro egunean. Gazteentzako diziplina horiek biak ezagutzeko aukera izango dute Gasteiztik eta Iruñetik etorritako gazte talde baten eskutik.

Hain zuzen ere, Jon Arbe buru duen taldearen ardura izango da diziplina horiek guztiak sanpedroetara eramatea: "Normalean gure dantzak erakusten ditugun arren, Eskoriatzan emanaldia parte hartzaileagoa egingo dugu. Ordubeteko pieza egiteko asmoa dugu. Hasieran, erakustaldia izango da, gehienbat, dantzena, hori delako gure espezialitatea. Gero, rapean aritzen den mutil batek euskarazko saioa egingo du, inprobisatuz".

Lehen aldian izango dute Sanpedroetan taldeko kideek, eta publikoaren beharren arabera ikuskizuna moldatu egingo du-

tela diote: "Ezberdina da haur asko badaude edo publikoa nagusiagoa bada. Ikusleak parte egin nahi ditugu, eta, hortaz, bakoitzaren aukeren arabera moldatzen dugu kaleko emanaldia", azaldu du Arbek.

Hala, Gorosarri plazara gerturaten denak 70eko hamarkada amaieran afroamerikar gaztediak sortutako kirol edota kaleko dantza mota probatzeko aukera izango du, 18:00etan.

## Rap emanaldia, euskaraz

Arbek azaldu duenez, taldeko kideetako bakoitzak espezialitate bat du: "Batzuk hobeto moldatzen gara dantza estilo batzuetan edo besteetan, baina bada rapean aritzen bereziki ondo moldatzen den kide bat". Haren eskutik, inprobisatuz eta kalean ikusten duenarekin euskarazko emanaldi txiki batez gozatzeko aukera izango da jaietan.



ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK

Ondo ibili jaietan!



Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza. Tel.: 943 71 45 06  
www.mirvat.com



Nogen taldea maiatzean Bergarako Seminarioxan emandako kontzertuan. IMANOL SORIANO

# Nogen taldearen eskutik pop-folk doinuak plazan

Donostiatik datorren taldeak kontzertua eskainiko du aurtengo San Pedro jaietan. Hitzordua herriko plazan izango da, domekan, ekainaren 30ean, 23:00etan. Taldearen aurretik, Onki Xin laukotearen doinuak entzuteko aukera ere egongo da

## Jone Olabarria ESKORIATZA

2016an Danimarkan sortu eta gerora Donostian forma hartu zuen Nogen taldearen emanaldia izango da San Pedro jaietan, ekainaren 30ean, 23:00etan hasita. Uda kontzertuz "beteta" dutela azaldu du Alex Irazusta taldeko gitarra joleak; hala ere, "gogotsu" daude Debagoienean jotzeko: "Lehen aldia dugu Eskoriatzan, baina ziur gaude publikoak ondo hartuko gai-

tuela. Gehiagotan izan gara bailaran jotzen eta jendearekin oso gustura sentitu gara".

Era "ezohikoan" sortutako taldea da Nogen: "Erasmus-en zegoela, ukelelea jotzen hasi zen taldekide bat, Markel Idigoras. Donostiara itzultzean, jarraipena eman nahi izan genion eta bion artean hasi ginen abestiren bat edo beste sortzen. Gero, Ane Negueruela gehitu zitzaigun, eta ahotsa

jarri zion taldeari", azaldu du Irazustak.

Orditik hona, gorabehera ugari bizi izan dituzte, baina 2017an, egun duten boskote forma hartu zuen Nogenek. Hala, iaz azaroan kaleratu zuten pop-folk doinuak nahasten dituen taldearen lehen lan luzea, *Liv til doden* (Hil arte bizi).

"Uda iritsi aurretik, aretoetako kontzertuak eskaintzen ibili gara, diskoa aurkezten, eta orain, kon-



Orkestraren emanaldia, Skay Dance panpina erraldoiarekin. NUEVO TALISMAN

## Dantzaldia Nuevo Talisman-ekin

Ehundik gora emanaldi eskaintzen ditu urtean Errioxako Calahorra herritik datorren Nuevo Talisman orkestrak; batez ere, udan. Abuztuko hilabetea herriz herri igaro ohi dute, egunero emanaldiren bat eskainiz. Horietako hitzordu bat aruten Eskoriatzako sanpedroetakoa izango da. Hain zuzen ere, zapatuan, ekainaren 29an, musika eta kolorez beteko dute herriko plaza, 23:30ean hasita.

Doinu dantzagarriez gain, ikuskizunik ez da faltako Nuevo Talismanen emanaldian; bederatzi kideko taldeak konfeti efektuak, su artifizialak –lurrekoak eta airekoak– eta argi efektu ugari konbinatzen ditu. Horretaz gain, Skay Dance izeneko panpina erraldoi bat –zazpi metro– ere erabiliko dute taldearen eszenaratze ikusgarriko.

tzertu irekiekin gabilta". Bietan oso gustura sentitzen direla azaldu dute, eta ezberdintasun handirik ez dagoela bataren eta bestearen artean. "Beti berotu behar da pixka bat publikoa, kontzertu hasieraren eta azken abestien artean nabari dugu ezberdintasun handiena, jendea animatuz joaten da".

## Hiru hizkuntzatan

"Margolari batek kolore guztiak erabiltzen dituen bezala, guk

ere dakizkigun hizkuntza guztiak erabiltzen ditugu gure abestietarako", azaldu du Irazustak. Hori dela eta, taldearen kantuek euskarazko, ingelesezko eta gaztelerazko letrak dituzte. Abestiak sortzerakoan jarraitzen duten bidez galdetuta, lehen urratsa musika sortzea dela azaldu du, eta behin oinarria dutenean "era oso naturalean", letrak gehitzen dizkiotela.



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

Ondo  
pasatu  
San Pedro  
jaiak!

### Eskoriatzako campusa

Dorleta auzoa, z/g  
20540 Eskoriatza

### Aretxabaletako campusa

Otalora 31  
20555 Aretxabaleta

943 71 41 57

[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)



Iaz egindako goitibehera jaitsiera. IMANOL SORIANO

## Goitibehera jaitsiera, Bolibarren behera

Bigarren urtez egingo da goitibehera jaitsiera herrikoia San Pedro jaietan. Iaz moduan, Elorreta auzotik herrirainoko bidea egin beharko dute parte-hartzaileek. 11:00etan hasiko da, eta sari banaketa, berriz, 13:00etan izango da, plazan

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Hainbat urte dira Apotzagako goitibehera jaitsiera egiten dela, baina honako hau irailen izaten da. Iaz, berritasun moduan, lehenengoz, San Pedro jaietan egin zen, eta Apotzagan behar-errian, Elorreta auzotik herrira bitartean gauzatu zen. Zortzi partaide izan ziren eta lau txanda egin zituzten Elorreta auzotik herrira bitartean. Aurten ere berriz egitea erabaki dute, eta San Pedro egunean izango da, 11:00etan hasita.

### Sari potoloak aurten ere

Adin guztiei zuzenduta egongo da, eta izen-ematea kultura etxean egin beharko da. 943 71 46 88

telefonora deituz, edo [kultura@eskoriatza.eus](mailto:kultura@eskoriatza.eus) helbidera idatziz.

Sariak honako hauek izango dira: bakarka, jaitsiera barregarriena, 60 euro eta taldeka, jaitsiera barregarriena, 120 euro. Gainera, sari bat zozketatuko dute parte hartzaile guztien artean: bakarka aritutako norbaiti egokitzen bazaio, 50 eurokoa izango da eta talderen bati egokituz gero, 100 eurokoa. Eta emakumeen parte hartzea sustatzeko, beste sari bat ere zozketatuko dute parte hartzen duten emakume guztien artean. Bakarka aritutako norbaiti egokitzen bazaio, 50 eurokoa izango da eta talderen bati egokituz gero, 100 eurokoa.

16 urtetik beherakoen irabazleari, saria dirutan eman behar-errian bonua emango zaio, herrian gastatzeko. Sari banaketa, aldiz, plazan izango da, 13:00etan, bandaren kontzertuaren ostean.

### Jose Angel Urrutia gogoan

Goitibehera jaitsiera antolatzen zuen Jose Angel Urrutia ekainaren 15ean zendu zen, eta gogoan izango dute. Egunean bertan ez dute egingo ekitaldi berezirik egingo, baina Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldekoek adierazi dute irailen 7an egingo den Apotzagako jaitsierari begira omenaldia egingo dutela haren omenez urteetan egindako lanarengatik.

## Gaztetxoendako aukera ugari aurtengo San Pedro jaietan

Kuadrillen arteko jokoak gaztetxoentzat San Pedro egunean eta jolas-parkea Euskal Jai egunean

### I.B ESKORIATZA

Nerabeentzat zuzenduta, urtero egiten dira jokoak San Pedro jaietan. 6 eta 12 urte bitartekoentzat, berriz, iaz egin ziren lehen aldiz. Hori horrela, aurtengo jaietan, 12 eta 17 urte bitarteko gazteak, Gernika plazan batuko dira San Pedro egunean, eta gaztetxoagoak, Fernando Eskoriatza plazan.

17:30etan hasiko dira, eta joko ezberdinak izango dituzte aurretik: "Gaitasun ezberdinak erabili beharreko jokoak izango dituztela aurretik. *Bat irabaz-*

*teko joko*a, oso gustuko dute esaterako, eta hori egingo da, baina ez dugu gehiago aurreratu nahi", adierazi du Maider Etxaniz gazteria teknikariak.

### Uretako txirrista erraldoia

Jaiei amaiera emateko, Euskal Jai egunean, uztailearen 1ean, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean, haurrentzako parkea jarriko dute Zaldibar aparkalekuaren ondoko plazan. Bertan, uretako txirrista erraldoia eta rokodromoa tirolinarekin jarriko dute.



ESKORIATZAKO UDAL ARTXIBOA

## 'Eskoriatzako udaletxeak'

*Eskoriatzako udaletxeak* izeneko erakusketa izango da ikusgai museoan. Ekainaren 27an 19:00etan inauguratuko dute, eta uztailearen 10era arte egongo da ikusgai. Uztailearen 2tik aurrera, 18:00etan gazteleraz eta 19:00etan euskaraz, bisita gidatuak izango dira. Santa Marinaran, batzokia dagoen lekuan... egon izan da udaletxea Eskoriatzan. Horien argazkiak eta historia ezagutu ahal izango da erakusketa honetan.

## SAN PEDROAK ETA FERIXA NAGUSIKO JAIK 2019

GOIENA TELEBISTA, ESKORIATZA ETA ELGETAKO JAIK  
UZTAILAREN 2AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
AITOR AGIRIANOK GIDATUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Musika kontzertuak nagusi txosnagunean

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek egitarau zabala antolatu dute aurten ere txosnagunerako. Gainera, gazte jendea batu dela taldera eta jai batzordean izandako parte-hartzea handia izan dela gaineratu dute

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek San Pedro jaietarako egitarau zabala prestatu dute. Hala, txosnagunera jendea erakartzeko, kuadrillen arteko bazkaria, musika kontzertuak eta bestelakoak antolatu dituzte, urtero moduan.

Santa Marina plazan egongo da txosnagunea, eta ekainaren 28an, 18:30ean, izango da irekiera. Horretarako, txorimaloaren jaitsiera antolatu dute, berezitasun moduan, eta txaranga ibiltaria ere izango da. Txorimaloa Arbiñoste kaleko etxetatik Santa Marinan egongo den txosnagunera jaitea dela asmoa adierazi dute antolatzaileek. Gauean, berriz, nagusien dantborrada izango denez, horren ostean, gazteak txosnagunera hurbiltzeko, The Big Mac izango da oholza gainean musikaz girotzen.

## Kontzertuak, ekainaren 29an

Zapatuan, berriz, San Pedro egunean, kontzertu eguna izango da. 23:00etan hasiko dira emanaldiak, eta honako hiru talde hauek izango dira oholztan: Kilimak, Hortzaka eta Sofokaos. Kilimak taldearen euskal rumbarekin hasiko dira kontzertuak. Ostean, Hortzaka talde getaria-



John Dealer & The Coconuts legazpiarrak kontzertua eskaintzen. JOHN DEALER

rrak punk-rock doinuak eskainiko ditu, eta, amaitzeko, Sofokaos Antsoingo punk-rock taldea izango da oholztan.

Kuadrillen Egunean, ekainaren 30ean, berriz, bazkaria egingo da, 14:00etan hasita, txosnagunean, eta txartelak erosteko

**EKAINAREN 23 ARTE EGONGO DA AUKERA KUADRILLEN EGUNEKO BAZKARIRAKO TXARTELAK EROSTEKO**

azken eguna domeka izango da, ekainaren 23a. 12 eurotan erosi daitezke, Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan, eta menua honako hau izango da: makarroiak eta okela saltsan, ardoarekin edo sagardoarekin, eta kopa. Aukera begetarianoa ere egon-

**BERRIKUNTZA DA TXORIMALOAREN JAITSIERAREKIN IREKIKO DUTELA TXOSNAGUNEA**

go da, eta horretarako txartela erosterakoan abisatu egin behar delako adierazi dute Eskoriatzako txosna batzordeko kideek.

## Bingoa bazkalostean

Kuadrillen arteko jokoek emaitza bikaina izan dute urteetan, baina azken edizioetan gainbehera izan da. Iaz, esaterako, kuadrillak barik, edozeinek eman zezakeen izena, eta ondoren taldeak egin izan dira, adin ezberdinetakoak nahastuta, baina ez zuten arrakasta handirik izan. Hori horrela, aurten, herriko hainbat txokotara jokoak egitera mugitu barik, txosnagunean bertan egingo dira bazkalostean. "Azken bi urteetan bingoa izan da bazkalostean, eta giro ederra sortu da. Horrekin batera, tonbola ere jarriko dugu hainbat apaingarri dibertigarriekin, eta, horren ostean, askotariko jokoak izango dira: lokotzak, aulki jokoa...".

## Amaiera, musika emanaldiekin

Herri egunean, uztailaren 1ean, Wood String talde aretxabaletarra eta John Dealer & The Coconuts talde legazpiarra izango dira oholza gainean. Emanaldiak 19:30ean hasiko dira, eta aretxabaletarren abesti akustikoez eta legazpiarren rock-and-rollaz gozatu ahal izango dute bertaraten direnek.

## Gazte parte-hartzaileak

Mikel Letona Eskoriatzako txosna batzordeko kideak adierazi duenez, antolakuntzara jende dezente batu da aurten: "Txosna batzordera kide berriak gerturatu dira, eta, horrekin batera, jai batzordeko bileretara ere bai. Pozik gaude horregatik, eta datozen urteei begira hala jarraitzea gustatuko litzaiguke".

## Txosnaguneko egitaraua egunez egun

Eskoriatzako txosna batzordeak antolatutako egitaraua egunez egun:

### Ekainak 28

- **18:30** Txorimaloaren jaitsiera.
- **Ondoren** Txaranga ibiltaria.
- **01:30** The Big Mac.

### Ekainak 29

- **23:00** Kontzertuak: Kilimak, Hortzaka eta Sofokaos taldeak.

### Ekainak 30

- **12:30** Sagardo dastaketa.
- **14:00** Bazkari txosnagunean. Menua: makarroiak eta okela saltsan. Txartelak Inkernu eta Goxo Txikin salgai, 12 eurotan.
- **17:30** Bingoa eta bazkalosteko jolasak.
- **01:30** DJ Txorimalo.

### Uztailak 1

- **19:30** Kontzertuak: Wood Strings eta John Dealer & The Coconuts.
- **00:00** Txorimaloari agurra.

Oharra: San Pedro jaietan txosnagunean barran lan egiteko txandak bete barik daude, eta interesa duenak aukera du horretarako, Inkernu tabernan dagoen taulan izena emanda.





Umeak Agorrosingo ur txorroten gunean jolasten, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

## Kritika zaparrada eragin du ur txorroten zoruak

Gaur astebete irekitako Agorrosingo ur txorroten lurra latzegia delako ume batek baino gehiagok urratuak izan ditu erortzerakoan, eta hainbat erabiltzaile kexatu egin dira; Udalak bihar eta etzi egingo ditu konponketa lanak, eta, horretarako, txorrotak itxi egingo dituzte

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Uda denboraldia hastearekin batera, ekainaren 14an jarri zituzten martxan Agorrosingo ur txorrota berriak. Ezin da esan hasiera ona izan dutenik, hainbat erabiltzaile kexatu direlako zoruagatik; ume bat baino gehiago artatu behar izan dute erortzerakoan urratuak izan ditue-

lako. Kirol teknikariburu Iñaki Ugartebururekin egon da GOIENA: "Arazoak ditugu zoruarekin eta irtenbiderik egokiena aztertzen ari gara". Eguaztenean bilera tekniko bat egin zuten eta erabaki nagusia izan zen ur txorroten guneko zoruak gastatzea, ez dadin horren latza izan: "Horretarako, eremuak lehor egon

behar du". Atzo eguerdian jakinarazi zutenenez, asteburuan zehar egingo dira lan horiek.

**Astlehenean 1.700 erabiltzaile** Eguzkiak eta beroak herritar asko erakartzen ditu Agorrosinera; horren adibide da astlehenean 1.700 herritar inguru pasatu zirela Agorrosingo sa-

### Haserrea; bereziki, gurasoen artean

Joan den egubakoitzean estreinatu ziren ur txorroten gaineko kritikak bolo-bolo ibili dira asteon. Kirol Zerbitzuaren arabera, ez dira asko izan era ofizialean jaso diren kexak; eguaztenera bitartean, behintzat: "Arautegi bat egitea eskatzen zuten kexaren bat jaso dugu, baina bestelako kexarik ez apenas". Txorrotak ireki eta hurrengo egunean, zapatuan, sorosleek hiru ume artatu behar izan zuten urratuengatik; Udalak badaki gehiago izan direla eta jarrita daude soluzio bila. Izan ere, sare sozialetan hainbat izan dira txorroten zoruaren gainean kexatu diren erabiltzaileak, bereziki gurasoak. "Uda heltzen denean asko izaten gara kexatzen garenak eta zerbitzua ez bada egokia ondo dago kexatzea. Baina kexak aurkeztu behar dira kiroldegian eta udaletxean, dagokionari bideratzeko", dio anonimotasuna gorde nahi izan duen guraso batek.



Urratua ume baten hankan. N.M.

rreratik: "Jende asko da, gehienak arratsaldeko ordu tarte jakin baten datozenak, eta instalazio guztiak jartzen dira azkenera arte proban halakoetan; bagabiltza gaiarekin. Gaur [martitzena], sorosle berri bat jarri dugu gune horretan errefortzu modura, eta erabilera zaintzeko arautegi bat osatzekotan ari gara -nahiz eta hasieratik ez genuen jarri nahi-, Oñatiko eta Antzuolako udalekin berba egin ostean. Lehen esperientzia izan da honako hau guretzat, eta enpresa-

rekin elkarlan estua dugu; uste dugu irtenbide egoki bat eman-go diogula", dio Ugarteburuk.

**Alkatearen bisita txorrotetara** Gorka Artola alkateak ere bertatik bertara bisitatu ditu txorrotak asteon: "Bizilagun batzuen kexak irakurri eta entzun ditugu, eta martxan dagoen instalazio honi soluzio tekniko bat aurkitu behar zaio. Ea moduren bat topatu daitekeen irisgarritasun baldintzak beteta zauri horiek egiteko arriskua saihesteko".



JOKIN BEREZIARTUA

### Udalbatza eta alkate berria

Bederatzi aurpegi berri ditu 2019-2023 agintaldirako udalbatzak eta Gorka Artola da alkate berria, frankismo osteko Bergarako alkaterik gazteena. Alkatetzarako aurkeztu zen bakarra, aldeko bederatzi boto eta zazpi boto zuri jaso zituen; EAJko Esther Ortiz de Zarate ez zen egon

eta hurrengo bilkuran jasoko du zinegotzi kargua. "Pozez, ilusioz eta arduraz" hartu du kargua Artolak: "Gure lehentasuna herritar guztien ongizatea izango da [...]. Nahiak eta ezinak kudeatu beharko ditugula jakinda ere, onena emateko asmotan, mila esker bergarar guztiei".

### GORA ETA BEHERA



E.A.

### Eroskiko zamalanen aldapa, "lotsagarri"

Kruz Gallastegi kaleko Eroskiko aldapa "zikin eta lotsagarri" dagoela dio herritar batek. Udalarari eta Eroskiri, neurriak hartzeko eskatu die; eta herritarrei, horren zikinak ez izateko.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Aniztasuna normalizatzea, Harrotasuna-ren helburua

LGTBI+ kolektiboa ikusgarriago egiteko eta euren eskubideak aldarrikatzeko lanean dabil Harrotasuna taldea, eta hainbat ekintza antolatu dituzte; ekainaren 28rako bailarako manifestazioa antolatu dute Oñatin: 'Gora arraroak, bereziak, querrak!' da aurtengo leloa

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Astebete barru, ekainaren 28an, ospatuko da nazioartean Harrotasunaren Eguna, LGTBI+ kolektiboaren ikusgarritasuna bultzatu eta haien eskubideak aldarrikatzeko. Bergarako Harrotasuna taldeak, Udalarekin eta Euskadiko Gazteria Kontseiluarekin elkarlanean. Udaleko Berdintasun Zerbitzuko arduradun Mainer Urbietak elkarlan hori nabarmendu du eta Gune Anitza jarri du horren adibide gisa: "Gune Anitzaren zigilua duten herriko gune, elkarte eta lekuetan errespetatu egingo dira sexu eta genero aldagai guztiak eta leku horietan ez dira onartuko eraso LGTBI fobikoak".



Oteiza, Urbietak eta Gallastegi. J.B.

**Zebra-bide batekin hasi zen**

Harrotasuna-ko Aritz Oteizak gogoratu duenez, ia ezerezetik sortu zen taldea, duela bi urte pasatxo: "Alboko herri batetik ideia hartuta, zebra-bide bat ortzadar kolorez margotu genuen

Agorrosinen eta espero baino jende gehiago batu genuen; horrek indarra eman zigun ekimenak antolatzen jarraitzeko".

Harrotasuna-ko Mireia Gallastegik hezkuntzaren garrantzia azpimarratu zuen eguazten arra-

tsaldeko aurkezpenean: "Etxetik hasi behar da heziketa askea eta eskolan jarraipena eman. Eta noski, kolektiboa ikusgarri egin behar da; armairutik irten nahi baduzu ondo, eta bestela ere ederto. Kasu guztiak normaltasunez onartu behar dira".

**la aste osorako egitaraua**

Martitzenetik egubakoitzera arteko egitaraua antolatu dute. Ekainaren 25ean, 6 eta 9 urte arteko umeei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da Udal Liburutegian (18:30), Maite Francoren eskutik. Ekainaren 26an, *Bar Bahar* pelikula emango dute Irizar jauregian (19:00); hilaren 27an, Gune Anitza zigilua banatuko dute eta talde argazkia atera, Muniben (15:00), eta 19:00etan performance bat egingo dute Iralan; ekainaren 28an, Koordinadora TransMarikaBollo Feministaren eskutik, bailara mailako manifestazioa egingo dute Oñatin (20:00).



DUINTASUNA

## Uda aurreko azkena, hilaren 24an

Erretiratu eta pentsiodunek ekainaren 24an egingo dute uda aurreko azken elkarretaratzea; 12:00etan elkartuko dira, plazan, lehen arretako langileen aldeko sinadura bilketa batekin eta txistor-janarekin: "Irailean itzuliko gara hauteskunde kanpainako promesak betearazteko. Eskerrik asko astelehenero pentsio publiko duinen alde kalera irten direnei", diote.

## San Martzial: kantina Gure Artera-Sarek eta txosna Harrera taldeak

Ekainaren 30ean ospatuko da bergararentzat urteko erromeriarik kutunena dena, San Martzialgo erromeria. Bada, egun berezi horri begira, Udalak aditzera eman ditu nortzuk ustiatuko duten kantina eta txosna. Kantina Gure Artera-Sare taldeak ustiatuko du eta txosna, berriz, Harrera elkar-teak. Udalak jakinarazi du bi

talde horiek izan direla eskara formala egin duten bakarrak eta, beraz, ez dela egon zozketa egiteko premiarik.

Bi elkarteei adierazi zaie deialdia arautu duten oinarrien hirugarren puntuan jasotakoa bete beharko dutela eta puntu horrek zehazten duela, besteak beste, ekainaren 25eko 12:00ak baino lehen fidantza aurkeztu beharko dutela. Halaber, ustiatze-eskubideari uko egin nahi badiote, idatzia Udalean aurkeztu beharko dute gaurko, ekainak 20.

**HELDUEN HEZKUNTZA**  
"Berak bezalako pertsonak prestatzen ditugu".

Etorri informatzera eta bideratuko zaitugu!

**Irizar** jauregi berpizkundeko lorategia XVII. mendia

Doakoa eta ikastetxe publikoen berme guztiekin.

**Ezagutu gure eskaintza!**

**Maiden Ramada (79 urte).**  
Ikaaslea, Bergara.

Es nuen ikasle Beotilegna Institutuan, horregatik Heileen Eskolan matrikulatu nintzen Gai Mailako sarrera proba prestatzeko. Oro guttura aritu nahi Heileen Eskolan eta, gainera, azterlana aprobata del. Orain, Oñatin arituko Gai Mailako sarrera proba egingo del.

**Gaiakoa Espasoa (40 urte)**  
Langilea, Bergara.

Bigarren Hezkuntzako graduatua izan nuen Heileen Eskolan. Horregatik ikastetxean Gai Mailako sarrera proba prestatzeko animatu gaur egun. Fabrikazio Mehanikako sarrera, egiten dhardel eta Mailako lantegian lanetan ari nahi. DIME jantzen ikasteko gogoa eta ikasitza berreskuratu bainuen.

**18 urte baino gehiago badituzu, ez laga aukera pasatzen. Atera ezazu Bigarren Hezkuntzako graduatua eta zabal itzazu formatzeko eta lana topatzeko aukerak.**

**GOI MAILAKO ZIKLOETARA sartzeko prestakuntza. INGELESA. FRANTSESA. INFORMATIKA. GIZARTE ZIENTZIETAKO IKASTARO MONOGRAFIKOAK**

Bergara: Irizar jauregia, Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52  
Oñati: Larrañe Institutua, San Lorenzo auzoa. Tel.: 943 78 35 77  
Sorokuze Baltegiatan 18. Tel.: 943 75 30 17



Sorginak suaren bueltan dantzan San Martin plazan, iaz, solstizio gauaren ospakizunetan. XAXAU JAI HERRIKOEN KONPARTSA

# Solstizio gaua, eta jaiak San Juanen eta Elosuan

Domekan, San Juan bezpera, solstizio gaua ospatuko dute San Martin plazan (22:30), eta ipuin kontaketa, sorgin dantza eta musika izango dira; San Juan auzoan eta Elosuan, berriz, jaiak ospatuko dituzte zapatutik astelehenera, ohiko egitarauarekin

## Jokin Bereziartua BERGARA

Urteko egunik luzeenak eta gaurik motzenak bizi izaten ari garela ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira Bergaran ere. Domekan solstizioa gaua ospatuko dute San Martin plazan (22:30); Xaxau jai herrikoen konpartsa duela urte gutxi batzuk hasi zen gau horretarako egita-

rau xume bat antolatzen eta urtez urte gero eta jende gehiago batzen da plazan. Suaren bueltan, ipuin kontaketa, sorgin dantza eta musika izango dira, besteak beste: "Dantza, ilargia, ipuina, musika, magia, *sorginak*, irudimena, eguzkia... sua!". Xaxaukoek bertaratzeko gonbidapena egin diete herritarrei.

## Ohikoa San Juanen eta Elosuan

Askoz tradizio luzeagoak dira San Juango eta Elosuko jaiak. Bihar hasi eta astelehenera arte –San Juan eguna–, askotariko ekitaldiak izango dira bi auzoetan. San Juanen ortu lehiaketa da ekitaldi nagusia; Elosuan, berriz, herri kirolek pizten dute ikusmin handien.

## San Juan auzoko jaiak

### Zapatua, ekainak 22

- **18:00** Lizarra, eliza eta santutxu berritua apaintzea, loreak jarrita.
- **21:00** Jaien hasiera.
- **21:30** Auzoko afaria Tartufo jatetxean.

### Domeka, ekainak 23

- **21:00** San Juan suak baserrietan.

### Astelehena, ekainak 24

- **12:00** Meza.
- **12:00** Kontzertua, San Joxepeko erretiratuen koruarekin. Ostean, luntxa herriko trikitilariekin.
- **13:00** VIII. lore sorta lehiaketa; ohitura zaharrak hartu beharko dira kontuan. Bi sari: bata auzotarrentzat eta bestea gainerakoentzat.
- **13:15** Auzoko 80 urtetik gorakoei omenaldia. Ondoren, ortu lehiaketako sari banaketa.
- **14:00** Erretiratuendako bazkaria Tartufon. Ondoren, oparien zozketa.

Oharra: Ortu lehiaketako argazkien erakusketa ekainaren 24an, plazan.

## Elosua auzoko Otaba jaiak

### Zapatua, ekainak 22

- **09:00** Jaien hasiera.
- **09:30-14:00** Urola Hegiko erroten ibilaldia.
- **13:30** Herri bazkaria.
- **16:30** Mus txapelketa.
- **20:30** Bertso afaria Aratz Igartzabalekin eta Iker Zubeldiarekin. Izena emateko: 688 92 00 86.

### Domeka, ekainak 23

- **12:00** Pilota partiduak.
- **13:00** Meza nagusia.
- **14:30** Erretiratuen bazkaria, Elurmendin.
- **18:00** Herri kirolak: Aratz Mugerza eta Luis Txapartegi lehiatuko dira. Ondoren, erromeria.
- **22:00** San Juan sua.

### Astelehena, ekainak 24

- **12:00** Hildako auzotarren aldeko meza.
- **13:00** Luntxa.
- **15:00** Auzo bazkaria.
- **17:30** Jolasak umeentzat.
- **19:00** Triki-poteoa.
- **21:00** Afaria eta erromeria.

Oharra: Hiru egunetan trikitilariak egongo dira giroa alaitzen, eta taberna zerbitzua egongo da.



MIGUEL ANGEL BRETOS

## La Pamplonesa-ren mendeurrenean

Sanferminetako suziria botako duen La Pamplonesaren mendeurreneko ospakizunen barruan, Bergarako Musika Bandak Iruñeko zezen-plazan jo zuen joan den zapatuan, nazioarteko beste 60 bandarekin batera. "La Pamplonesa sortu aurretik, banden lehiaketa bat antolatu

zuten Iruñean, eta han izan zen Bergarako banda. Hori izan da gu gonbidatzearen arrazoia". Banda guztiak elkartutakoan zezen-plazan, 3.000 musikari inguru, bi pieza jo zituzten elkarrekin: *La alegría en San Fermín* –*Riau-Riau* moduan ezagunagoa– eta *Clarín de fiestas*.

## OHARRAK

**Katxalin jaia bihar, Bedelkarren babesarekin**  
Katxalinen lana ikusgarriago egitea du helburu jaialdia; Iralan izango da, 18:00etatik 22:00etara. Katxalinekoen eskulanak, Candem Town-ekoan dantza emanaldiak eta musika izango dira.

### Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa

Bihar emango dira sariak; Seminarixoan, 12:00etan.

### Labegaraieta kiroldegiko lanak, hastear

Udalak aditzera eman du datorren astean hasiko dituztela Labegaraieta kiroldegi ondoko biltegia botatzeko lanak.

### Bergara Hiria argazki lehiaketa: sari banaketa

Gaur izango da ekitaldia, Aroztegin (20:00). Koloretan eta zuri-beltzean, Jose Agustin Gurrutxaga bergarra izan da irabazlea. 145 argazki jaso dira, 68 zuri-beltzean eta 77 koloretan. Erakusketa gaurtik uztailearen 7ra arte egongo da ikusgai.

### San Joxepe: Pentekosteetako jokoan irabazleak

Bolotan Agustin Iñarra izan zen nagusi; tokan, Emilio Gutierrez; eta igel jokoan, Belisario Carrero. San Joxepekoek esker ona adierazi diete Udalari eta Miner Ardoak enpresari.

# Mozarten musika, hura gogora ekartzeko

Bergarako Orfeoia eta Ganbera orkestrak 'This is W. Mozart' kontzertu sinfonikoa eskainiko dute uztailaren 7an, San Pedro parrokian. Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte, 10 euroren truke, Mujika eta Subijai jantzi-dendetan eta Seminarixoan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
Mozart musikari ezaguna gorai-patzeko asmoz egingo du kontzertu sinfonikoa Bergarako Orfeoia. Uztailaren 7an izango da emanaldia, 19:00etan, San Pedro parrokian. Oraingoan, ondoan izango dute Ganbera orkestrako musikariak.

"Literatura musikal handia duen konpositorea da Mozart, eta jendeari asko gustatzen zaio. Aukeratu ditugu konpositoreak hamarkada batean sortutako lanak: 1776-1786 artekoak", azaldu du Orfeoiko zuzendari Aitor Biainek.

## Lehenengoa, instrumentala

Lau lan aukeratu dituzte; lehenengoa, gainera, orkestrak bakarrik joko du: *Eine Kleinen Nachtmusik G major Kv525*. "Oso musika ezaguna da; berez, bost mugimendu dauzka, baina bat galdu egin da", dio Biainek. Ondoren, *Enaren meza* eskainiko dute, eta hirugarren pieza Mozarten *Bezpera solemneak* ezaguna izango da. Emanaldia amaituko dute *Ave Verum* ezagunarekin, korauek eta orkestrak elkarrekin eskainita.

## Sarrerak, 10 eurotan

Emanaldia uztailaren 7an izan arren, sarrerak dagoeneko salgai



Aitor Biain, Idoia Juldain eta Julen Alberdi. AITZIBER ARANBURUZABALA

jarri dituzte: Mujika eta Subijai jantzi-dendetan; Seminarixoko leihatilan, ekainaren 27an eta uztailaren 4an, 18:00etatik 20:00etara; eta Irala kalean, ekainaren 22an, 23an, 29an eta uztailaren 6an, 12:00etatik 14:00etara. 10 eurotan daude salgai. "Aurrez guztiak salduz gero, egunean bertan ez da sarrerarik egongo", gehitu du Biainek.

## Eszenan, 91 lagun

Begarako Orfeoia Oñati abesbatzarekin eskaini izan ditu azkeneko urteetan horrelako

kontzertuak: "Proiektu handiak izan dira, 100 abeslari eskatzen zituztenak. Oraingoan, baina, proiektu txikiagoa da. Agertokian 65 abeslari, 22 musikari eta lau bakarlari egongo dira", azaldu du Biainek.

Bakarlariak Nerea Ibarra, Ainara Uribealzo, Aitor Garitano eta Karlos Etxaniz izango dira. San Pedro parrokian 700 lagunendako lekua egingo dute: "Musikariak lurretik 40 zentimetro jarritako oholtzan egongo dira; ikusle guztiek ondo ikusiko dute", gaineratu du.



OIHANA ELORZA

## Angiozarko trikitilarien saioa

Angiozarko Trikiti Eskolako ikasleak amaierako erakustaldia eskaini zuten eguaztenean. Manex Torrealde irakaslearen eskutik, *Andre Madalen*, *Neska zaharrak*, *Zazpi jauzi...* jo zituzten, eta Huntza taldearen *Lasai* abestia trikitiaz jotzeaz gain, abestu ere egin zuten. Gainera, *Ameriketara joan nintzen* pieza rap estilokoan eskaini zuten, bisera jantzita.

## Moñuxek "ametsa egia" bihurtu du, Orkestrarekin debutatuta

Bilboko Euskalduna Jauregian jo zuen Euskadiko Orkestrarekin, Oscar Abella tuba-jolearen eskutik

## A.E. BERGARA

Amsterdamgo kontserbatorioan tubako goi mailako ikasketak egiten diharduen Andoni Moñuxek Euskadiko Orkestrarekin jo zuen astelehenean, Euskalduna Jauregian: "Lehenengo aldiz Euskadiko Orkestrarekin. Amets bat egia bihurtuta: hainbeste urtez nire maisu eta erreferente izan den pertsonaren ondoan jo ahal izatea. Bihotz-bihotzez, mila esker, Oscar Abella", azaldu du Moñuxek Bilbon bizi izandakoaren harira. XI. Ezagutzaren Mugak sari bana-

keta entzutetsuaren ekitaldia girotu zuen Euskadiko Orkestrak.

"Erronka handia izan da, jo genuen obra oso konplikatua zelako: modernoa, konplexua... presioa handia zen eta, gainera, lehenengo aldia izanda orkestra profesional batekin... Behin entseguak hasita, gauzak oso ondo joan ziren, igartzen da profesionalak direla. Oso polita izan zen ekitaldia eta pozik geratu nintzen", azaldu du Moñuxek. Ekainaren 26an, Amsterdamgo kontserbatorioan egingo duen saioarekin amaituko ditu ikasketak.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**TELEIXA**  
BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Iaz, Zurrategi plazan haur danbor-jotzaileei merienda banatzen. GOIENA

## Kalebarrengo festa eta San Juan sua, eskutik

Aurten ere, Kalebarrengo jaiak eta San Juan bezpera asteburu berean ospatuko dituzte antzuolarrek. Gaur, egubakoitza, emango zaio festari hasiera, haurren danborradarekin; domekan, arbola jaso eta sua piztuko dute Herriko Plazan

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolarrak herriko jai nagusiaren atarian dauden arren, ospakizunetz bateriko asteburu dute aurretik. Iaz bezala, Kalebarrengo jaiak San Juan bezperako ospakizunekin bat egingo dute aurten ere. Gaurtik domekara, askotariko ekintzak izango dira herritar ororendako.

Hala, gaur, arratsaldeko zazpietan, jaiari hasiera emango die haurren danborradak –18:30ean, danborradan parte hartuko duten haurrentzat merienda banatuko dute Zurrategin–.

Gaueko hamaiketatik aurrera, musikak hartuko du protagonismoa eta Talka bertsio talde akustikoarekin emanaldiaz gozatzeko aukera izango da Zurrategin. Indarrak dituztenendako, goizaldeko ordu baterako, festa giroari eta umoreari eusteko, aulki jokia antolatuko dute.

### Elkartasun pintxoak

Ohitura den legez, Sagiri eta Anelkar elkarteek elkartasun

pintxoak banatuko dituzte gaur, 19:30ean, Zurrategin. Jasotako dirua astelehenean Arrasateko aterpetxera iritsiko diren haur sahararrendako izango da. Izan ere, Debagoienera hamalau haur etorriko dira. Horietatik hiruk Eskoriatzako eta Arrasateko familiekin egingo dute bi hila-beteko egonaldia.

Sagiri elkarte kide Marta Sanchezek aitortu du, baina, *Oporrak bakean* kanpainako haur kopuru eskaera jaitsi egin dela, oro har. "Egia da iaz haur eskara egin zuen familiarik ez zela izan Debagoienean; eta aurten, ordea, hiruk egin dutela. Baina, orokorrean, *Oporrak bakean* ekimenean parte hartzeko familiak bilatzea kostatu egin da. As-

**ASTELEHENEAN, 14 HAUR SAHARAR BI HILABETERAKO ETORRIKO DIRA DEBAGOIENERA**


telehenean etorriko dira bai Arrasateko aterpetxean egongo diren hamaika haur sahararrak eta familietan egongo diren beste hiru. Gurera, hamalau".

### Arbola eta sua

Zapatuan, 11:00etan, mural kooperatiboa egingo dute eta ondoren, ginkana. Arratsaldean, berriz, Kalebarrengo auzotarrek arbola jasoko dute, Ondarreko gaiteroen doinuek lagunduta, 20:00etan. Ondoren, herri afaria egingo dute eta 00:00etan, bikoteka, sagar dantza herrikoari hasiera emango zaio.

Domekan, berriz, 12:00etan, gaztetxoaren dantza saioa izango da. Iluntzean, eratu berri den udalbatza berriak arbola jasoko du, 20:00etan, eta ospakizunari hasiera dantza saioak lagunduta emango zaio. San Juan bezperako sua ere piztuko dute eta suaren bueltan herritarrek espiritu txarrak uxatzeko aukera izango dute. Ondoren, Gau Argi taldearen dantzaldia izango da.

## GORA ETA BEHERA



ANTZUOLAKO UDALA

### Antzuolako Udalak gaztetxea itxi du



Azkenaldian, zaborrarekin, sute batekin eta lapurretekin topo egin dutela dio Udalak. "Gaia bideratzen saiatu garen arren, ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira, eta itxi egin dugu".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



MAIDAR ARREGI

## Udalbatza berria, osatuta

Normaltasun osoz, eta lehen bozketan, Beñardo Kortabarria aukeratu dute Antzuolako alkate –sei boto Kortabarriak, hiru Basilio Ormazabalak eta bat zuri–. Udalbatza berria eratuta, hurrengo urratsa egiteko 30 eguneko epea dago. Hau da, batzordeak osatzeko eta kanpo batzordeetarako ordezkariak aukeratzeko –Mankomunitatea...–.

### Gipuzkoako txirrindulari gazteen lasterketak bihar

Ekainaren 22an, zapatua, Gipuzkoa osoko haurren eskolarteko txirrindulari lasterketak egingo dira, Lokatzak antolatuta, 15:30etik 17:30era bitartean. Benjamin, alebin eta infantil mailako lasterketak izango dira, neska zein mutilendako. Gipuzkoako hainbat herritako taldeak etorriko dira lasterketan parte hartzera.

### Herriko pilota txapelketako finalak jokatuko dira gaur

Aste Santu ondoren abiatutako herriko txapelketako finalak jokatuko dira gaur, 18:00etan: Amets Larrea eta Lur Olabarria, Madi Alonsoren eta Julen Errastiren aurka; Auritz Iturbe eta Ander Etxaniz, Hegoi Aranbururen eta Aitor Altzelairen aurka; eta hirugarren partidua, Leire eta Nagore Galeano, Unax Errastiren eta Jon Tenaren aurka.

# San Juan sua, usadio zaharren oihartzuna

Herriko neska-mutikoeek gertu dute sua egiteko piloa. Maala guraso elkarteak jokoak eta ogitartekoen banaketa iragarri ditu domekarako eta Goibeko elkarteak Andoni Ollokiegiren kontzertua gaurko, Ozkarbi elkarteak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Eginda dago piloa Bolatokiko kantxa ondoan. Badira aste batzuk herriko neska-mutikoeak lanean hasi zirela, eta, Udalarekin horrela adostuta, txikiagoa izango da aurten sua. Plastiko zatiak eta olio zikindutako egurrak erretzekoa den pilora ez botatzeko konpromisoa ere hartu zuten umeeek.

Domeka da aurten ekainaren 23a, eta, urtero moduan, ilundutakoan piztuko dute sua Elgetan. Sutan erreko duten panpina ere gertu dute neska-mutikoeek. Ludoteka eta gazteleku orduetan egin dute arlotea asietan, horretarako propio antolatatu diren tailer berezietan.

**Plaza jokoak aurretik**

Maala guraso elkarteak, Udalarekin elkarlanean antolatuta, Kalaka jokoak iragarri ditu domeka arratsalderako. Aurreko urteetan DJ festa egin bada ere, aurten bestelako proposamena gertatu du guraso elkarteak, eta 18:00etatik 20:00etara zurezko plaza jokoak eta joko kooperatibo erraldoiak izango dira Bolatokian. San Juan bezperako bigarren nobedadea urteroko ogitarteko banaketan izango da. 20:30erako iragarri dute, eta, neska-mutikoeek ogitartekoak doan jasoko badituzte ere, gainerakoendako prezioa 2 euro izango dela jakinarazi du guraso elkarteak.

Urtero moduan, luze joko du San Juan bezperak Elgetan. Suaren gaintik salto egitea da usadio zahar honetatik gaur egunera arte iritsi den ohituretako bat.

**Musika ikasleen saioa bihar**

Zapatuan, berriz, ikasturte amaierako emanaldi berezia egingo dute Elgetako musika ikasleek. Espaloia kafe antzokian izango da saioa, 12:00etan. Neska-mutikoeek Lorea Larrañaga eta



Elgetako gazte bi San Juan suaren gaintik salto egiten. L.Z.L.

## ILUNDUTAKOAN PIZTUKO DUTE BOLATOKIAN PREST DAGOEN PILOA, DOMEKAN

Maitena Mañarikua musika irakasleen gidaritzapean egingo dute emanaldia. 31 neska-mutikok hartuko dute parte eta gitarra, pianoa eta bonbardinoak joko dute, gurasoendako eta senitartekoendako.

## Andoni Ollokiegi, gaur, Ozkarbin

*Bago!az* lehiaketako Andoni Ollokiegik kontzertua egingo du, 19:30ean. Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak Ozkarbi elkartearekin elkarlanean antolatutako kontzertua da. "Bilera batera deitu gintuzten eta batera zer egin genezakeen egon ginen pentsatzen, eta zer zen ona herriarendako", azaldu dute Goibekotik. "Ikusi genuen formatu txiki-ertaineko hainbat gauza antolatzeko modua, sarrera xume bat jarri.

Animatuko gara urtean ekingo den batzuk antolatzera Ozkarbiren laguntzarekin, eta lagunduko digu Espaloian urteetan josi dugun sareak. Formatu txikiagoko proposamenak izanagatik kulturaz gozatzen datozenak gustura atera daitezela, behintzat". Gaurko kontzerturako sarrera 3 euro da, eta umeeek heldu baten ardurapean sartu beharko dute.



Andoni Ollokiegi. HERRI BIZIA



L.Z.L.

## Cie Alurecyko langileak, protestan

Albiste jaso dute 2019ko abenduan itxi egingo dutela Elgetako planta. "Itxierak atzera bueltarik ez badu, eskatzen dugu hemeretzi langileen lanpostuak ziurtatzeko. Cie Automotive talde handia da eta baditu beste planta batzuk inguruan", azaldu du LABeko ordezkari Xabier Llodio. "Lanpostuen defentsan ari gara eta mobilizazioekin jarraituko dugu".

## 9.400 metro koadroko pabiloia zabalduko du IDR taldeak

Servimasako gerenteak esan du abuzturako ez bada urtarrilerako egokituko dutela planta berria Pagatzen

**L.Z.L.** ELGETA

Lau enpresak osatzen dute gaur egun IDR taldea. Enpresa horiek dira temperatura handietarako isolamenduak egiten dituen IDR, sukaldeko eta bainuko altzariak egiten dituen Servimasa, siderurgiako osagaietan espezializatutako Sidermes eta aluminiozko estrukturak egiten dituen OSG.

Taldeak 9.400 metro koadroko planta zabalduko du laster Elgetako Pagatza industrialdean. Servimasa enpresako gerente Ion Agirrebeñak baieztatu du

leku premia duela Bergaran kokatutako enpresak, eta inbertsioa egin duela taldeak Elgetan pabiloi berria egiteko. "Obrak egin behar ditugu, baina asmoa da abuztuan ez bada urtarrilean abiaraztea planta berriaren jarduera".

**40 langile Elgetara**

Planta berriaren irekierak ekarriko du Bergarako langileak Elgetara igoko direla lanera. "Lau enpresen artean 40 bat langile igoko gara", esan du Agirrebeñak.

## Agintaldi berria martxan

Zapatuan eratu zen udalbatza berria, eta Iraitz Lazkano izendatu zuten alkate. Orain, 30 eguneko epean erabaki behar dira, besteak beste, udalbatzarren maiztasuna, batzar informatiboaren eraketa eta ordezkariak, udal ordezkariak bestelako erakundeetan... Bien bitartean, udalbatza berriak martitzenean egingo du agintaldiko lehenengo osoko bilkura.



L.Z.L.

**EGUENA 27****MOZORRO EGUNA**

**12:00** Buruhandiei ongietorria egingo diete plazan. Udalekuetako umeek egingo dute.

**19:30** Mozorro jaitsiera Elgetako trikitilariekin. Ondoren, brindisa, alkate txikia izendatzea eta kartel lehiaketako saria ematea.

**20:00** Triki-poteoa herriko kaleetan zehar.

**23:00** Erromeria plazan, Mugi Panderoa taldearekin.

**00:00** Larrain dantza. Ondoren, Mugi panderoa taldearekin erromeriak jarraituko du.

**BARIKUA 28****UMEEN ETA ERRETIRATUEN EGUNA**

**11:00** Umeentzako puzgarri eta jolasak Salbador kalean.

**11:15** Intxorta elkarteak salda banatuko du.

**12:00** Harri-jasotzaileak: Imanol Albizu *Goikoetxe*, Karmele Gisasola eta Inhar Urruzuno.

**13:00** Meza nagusia, iazko jaietatik hil diren erretiratuen alde. Xalbadorpek antolatuta.

**13:45** Erretiratuek argazkia aterako dute.

**14:00** Erretiratuentzako bazkaria Espaloian (10 euro). Ondoren, bingo jolasa eta erromeria.

**14:00** Umeentzako bazkaria plazan (5 euro).

**15:30** Puzgarri eta jolasak umeentzako.

**18:30** Buruhandiak herriko kaleetan zehar.

# EGITARAUA



GOIENA

**Mozorro jaitsiera Elgetako trikitilariekin.**

Jaitsieraren ostean, brindisa, alkate txikia izendatzea eta kartel lehiaketako saria ematea egingo dituzte.

*Herriko plazan, 19:30etan*

**19:00** Tio Teronen Semeak: *Festamentua* dantza ikuskizuna plazan.

**23:00** Zezensuzkoa.

**14:00** Erretiratuentzako bazkaria Espaloian (10 euro). Ondoren, bingo jolasa eta erromeria.

**23:15** Kontzertua plazan: Modus Operandi eta Gora Herria.

**ZAPATUA 29****HERRI EGUNA**

**11:15** Esna deia.

**11:30** Kuadrillen hamaiketako Ozkarbi elkartean.

**12:30** Jaioberriei harrera udaletxean.

**13:00** Soka dantza eta Elgetara etorri berriei harrera. Ondoren, euskal dantzak Elgetako dantzarien eskutik.

**14:30** Herri bazkaria plazan. Paella, ogia, kafea (5 euro). Aukera beganoa egongo da.

**16:00** Erromeria JAINAGA ETA NARBAIZArekin.

**18:00** Zirku erakustaldia. Hendaiaiko zirku eskola. Izena emateko: [danonartian@elgeta.eus](mailto:danonartian@elgeta.eus).

**18:30** Ustekabe txaranga herriko kaleetan zehar.

**19:30** Txitxi-burruntziak Intxortako Lehoiak peñaren eskutik.

**20:00** Buruhandiak herriko kaleetan zehar.

**20:00** Erromeria INGOU taldearekin.

**23:00** Zezensuzkoa.

**23:05** Aizu! musika taldea –Kortatu taldearen tributua–.

**01:00** Helduentzako puzgarri eta oreka jolasak Salbador kalean.

**DOMEKA 30****FERIXA NAGUSIKOA**

**09:00** Ferixa Nagusia: ganadu erakusketa, artisauak ....

**17:00** Buruhandiak herriko kaleetan zehar.

**18:00** Ertzak taldearen ikuskizuna plazan.

**19:30** Bolo txapelketa egingo dute Bolatokian.



Izar Han Xue, kartelarekin. UDALA

## "Ezuste harrapatu nau, ez nuen espero nirea aukeratzea"

### IZAR HAN XUE IRAZABAL KARTEL IRABAZLEAREN EGILEA

**Jone Olabarria** ELGETA

Zortzi proposamenen artean Izar Han Xue Irazabalena aukeratu dute herritarrek aurtengo Ferixa Nagusikoak iragartzeko.

#### Lehen aldiz aurkeztu duzu zure lanen bat lehiaketara?

Parte hartu izan dut halako lehiaketetan aurretik. Elgetako liburutegiak urtero antolatzen ditu, eta bertan, bi aldiz eskuratu dut lehen saria.

#### Zertan inspiratu zara orainoan?

Jaietan egin ohi den zezensuzkoa irudikatu nahi izan dut. Horretaz gain, behin ilunabarrari atera nion argazki bat ere erabili dut, eta, hori oinarri hartuta, kartelaren atzeko alde diseinatu dut.

#### Nola egiten duzu lan?

Beti eskuz aritzen naiz, bai diseinurako, baita kolorea emateko. Gero, eskaneatu egiten dut, digitalizatzeko.

#### Espero zenuen irabazle irtetea?

Ez, inondik inora ere; ezustean harrapatu nau, egia esanda.

**ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!**



**MAKINA ERREMINTA SL** Elorrio bidea z/g, Elgeta



# Guztia prest dute Ferixa Nagusiko azokarako

Idiek bereizi dute Elgetako Ferixa Nagusiko azoka betidanik, eta aurten ere 23 pare espero dituzte. Ekainaren 30ean egingo duten azokan, ganaduaz gain, artisautza postuak, askotariko jakiak eta baserriko produktuak ere egongo dira

## Jone Olabarria ELGETA

Herriko jai nagusiei izena ematen dien Ferixa Nagusixa egingo dute domekan, ekainaren 30ean. Elgetakoa ganadu feria ezaguna da inguruko herrietan; bereziki, bertan aurki daitezkeen idiengatik.

Urtero moduan, bi gunetan banatuko da aurten ere feria: plazan eta inguruetan artisau eta saltzaileen postuak egongo dira, eta Berraondon ganadu feria kokatuko da. Oraindik guztiz zehaztuta ez dagoen arren, 60 bat postu espero dituzte plaza inguruan, artisau eta saltzaileenak. Horietako hainbat Elgetako herritarrenak izango dira;



Herritarrek iaz ganadu feria ikusten. GOIENA

batez ere, jaki eta artisautza produktuenak.

Ganadu ferriari dagokionez, 23 idi pare espero dituzte aurten, baina horiekin ez da izango elgetarrik; bai, ordea, ardi edota ahuntzekin.

## Bolo txapelketa

Urte batzuetan egitarautik kanpo egon ostean, aurten bolo txapelketa itzuliko da jaietara domeka arratsaldean. Hitzordua 19:30ean bolatokian izango da eta izen ematea momentuan bertan egingo da. Antolakuntzatik diote herritarrek parte hartzera animatzen dituztela, eta, nahiz eta egun horretarako inguruko herri askotan ere txapelketak antolatu dituzten, kanpoko jokalaria ere espero dituzte. Sariei dagokionez, lehen postua eskuratzen duenak urdaiazpikoa, cava botila eta batutakoaren %40 eramango du etxera. Horretaz gain, bigarrenak ere gazta, cava botila eta dirua eskuratuko ditu. Hirugarren eta laugarren postuak ere sarituak izango direla adierazi dute antolakuntzatik, baita izen ematea 5 eurokoa izango dela ere.

## Harri-jasotze erakustaldia eta herri kirolak plazan

### Jone Olabarria ELGETA

Umeen eta erretiratuen egunerako, barikurako, hilak 28, harri-jasotze erakustaldia antolatu dute herriko plazan. Eguerdiko hamabietan hasita, Imanol Albizu *Goikoetxe*, Karmele Gisasola eta Inhar Urruzuno arituko dira erakustaldia egiten.

Oraindik ez dakite oso ondo zer motatako ariketak egingo dituzten, edota zenbat kilotako harriekin arituko diren, baina, Goikoetxek adierazi duenez, "erakustaldia egiteaz gain, jendea herri kirolak gerturatu" nahi dute.

Hala, zenbait diziiplina probatzeko aukera ere egongo dela adierazi du: "Sokatira edota txingak bezalako ekintzak antolatuko ditugu, bertan dauden haur zein nagusiek herri kirola ezagutu eta probatzeko aukera izan dezaten".

ILEA

♀ ♂

ILEA ADAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

f ilea peluqueria/ileapaindegia

**GOIKOETXE  
HARATEGIA**



Salvador kalea 1 ELGETA  
Tel.: 943 78 82 06

**Zorionak!**  
**Ondo ibili jaixetan!**

# Erromeria doinuak protagonista jaietan

Eguenetik domekara arte, musika eskaintza zabala izango da Elgetan aurten: Mugi Panderoa erromeria, Modus Operandi taldea, Gora Herria, Aizu! eta Ingou erromeria taldea. Txarangarekin osatuko dituzte jaietako musika aukerak

## Jone Olabarria ELGETA

Eguenean emango diete hasiera Ferixa Nagusiko jaietako egitaraua Elgetan. Musika eskaintzari dagokionez, erromeria taldeak izango dira aurten nagusi: Mugi Panderoa, Gora Herria eta Ingou taldea. Txaranga eta triki-poteoa ere izango dira, jai girorik falta ez dadin.

Eguenean, triki-poteoarekin emango zaie hasiera jaietako, 20:00etan; eta gauean, Mugi Panderoa erromeriak dantzan jarriko ditu elgetarrak, 23:00etan hasita. Egubakoitzean, Modus Operandi taldeak ska doinuak beteko du herriko plaza. Jarraian,

Gora Herria taldearen emanaldia izango da.

Asteburuari hasiera emateko, zapatuan, Ustekabeen txarangak giro ezin hobea jarriko du, arratsaldeko seietan hasita. Ingou erromeriaren txanda 20:00etan iritsiko da, eta jarraian, Aizu! taldea, Kortatu-ren tributu taldea, arituko da taula gainean.

**"KARAOKEAREN ORDEZ, BESTE EKINTZA BATZUK EGITEA ERABAKI DU JAI BATZORDEAK"**

## Karaoke barik aurten

Bestalde, aurreko urteetan ohi-koa izan den karaokeak ez du lekurik izango aurtengo jaietan. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, "jai batzordeak beste ekintza batzuk egitea" erabaki du.

## Dantza ikuskizunak

Ekintza horietako batzuk dira, hain zuzen ere, dantza ikuskizunak. Barikuan, Tio Teronen Semeak taldearen eskutik *Festamentua* emanaldia izango da plazan. Horrez gain, domekan, 18:00etan hori ere, Ertza konpainiak dantza eta antzerkia fusionatzen dituen ikuskizuna eramango du plazara



Mugi Panderoa erromeria taldea. MUGI PANDEROA

## Aizu!: Kortatu-ren tributu taldea

Negu Gorriak taldearen kanta batetik izena hartu ostean, Alcorcon eta garagardo artean sortu zen Aizu! taldea duela ia hogeita urte, 2002an. Ordutik hona, taula gainean aritu dira bere kideak; nahiz eta urte pare batez geratuta egon ziren, gerora eraberrituta itzuli ziren, kide berriekin eta guzti.

Hasierako uneetan Fermin Muguruzaren taldeen bertsioak egiteko asmoa zuten arren, euskal rockaren hainbat bertsio eginez ekin zioten ibilbideari; Betagarri, Negu Gorriak, Kortatu, Ostiaputa, Banda Bassotti... Urteek aurrera egin ahala, baina, Kortaturen bertsioetan jarri dute fokua eta 2011z geroztik dihardute lan horretan. Elgetako jaietan hitzordua izango dute musikazaleek, beraz, zapatuan, 23:05ean hasita.



Elgeta  
Ferixa Nagusiko  
Jaixak 2019

Ekainaren  
27tik 30era



Ondo ibili!



# Jacinto Rivas 'Elgeta'-ren trikiti doinuak, gogora

Ferixa Nagusiko jaietan keinu bat egingo diote 'Intxuzabal' edo 'Elgeta' izenez ezaguna den herriko trikitalariari. Antzerki ukituko dantza emanaldia antolatu dute

## Jone Olabarria ELGETA

Herriak emandako soinu jole handi bati egin nahi izan diote aurten omenaldia elgetarrek. Hain zuzen ere, zapatuan, ekainaren 29an, plazan batuko dira, 13:00etan hasita, eta *Elgeta* edo *Intxuzabal* izenez ezaguna den Jacinto Rivas omenduko dute.

30 lagun inguruk parte hartuko dute ekitaldian eta, zatika banatuta, haren bizitzaren errepaso txiki bat egingo dute. Antzerkia eta dantzak uztartu nahi izan dituzte ekitaldia sortzerakoan, eta, hala, arin-arina eta fandangoa ere dantzatuko dituzte. Saioa prestatzeko, Kepa De Vegak eman ditu dantza eskolak



Omenaldian parte hartuko duen herritar talde bat, entseguetan. GOIENA

eta aurkezpena Ana Gillegik egingo du. Era berean, Garbiñe Sarasketak idatzi du testua.

## Zailtasunez beteriko bizitza

Jacinto Rivas *Elgeta* 1906an iritsi zen Elgetako Goimendi auzora. Donostian jaioa, amak kaxa batean utzi zuen, abandonatuta, eta Intxuzabal baserrian hartu zuten semetzat.

Bertan, soinu bat esku artera etorri, eta bizitzan erabakigarri izango zitzaion afizioari ekin zion. Etxean, baina, ez zuten begi onez ikusten trikitalari ofizioa eta, familiarekin tirabirak izan ostean, baserria utzi zuen. Eibarraren hasi zen soinu-jole eta sasoi hartan eman zituen lehen eskolak ere. Mantenuaren truke, etxez etxe irakasten aritu zen, eta, hala, Lajaren, Maltzetaren, Sakabiren, Auntxaren, Epelarreren eta Zialtzetaren maisu izan zen.

Trikitalarien ordura arteko errepertorio nahiko urria aberastu izana aitortzen zaio, baita dantzarekin lotzea ere. Dena den, miserian pasa zituen azken egunak *Elgeta*-k, eta, guztiz argi ez dagoen arren, 1964ko urtarrilaren 30ean hil zen, Donostian.

## Herri egunean, gaztetxoek ere dantzara

Aurten ere dantza emanaldiak egingo dituzte Herri Egunean: soka dantza, neska-mutikoen dantzak eta *Elgeta*-ri omenaldia.

Txikienean kasuan, 13:00etan hasita, 39 lagun arituko dira dantzan. Gazteenek, 27 neska-mutilek, marmutx, esku dantza, txulalai eta bolant dantza egingo dituzte. Nagusiagoek, berriz, 12 lagunek, Arabako dantzak egingo dituzte aurten: *Bailaos*, *Te vi*, *El culo* eta *Pájara pinta*.

Orain arte, eta jaietara begira, asteazkenean ibili dira entseguak egiten, Eibarko Kezka Dantza Taldeko Olaiz Agirrebeñaren, Irati Kortabitareren eta Xabat Leanizbarrutiaren gidaritzapean.

JAI ZORIONTSUAK ELGETAR GUZTIOI!



**CIE** Recyde

Pagatza Pol. Ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
www.cieautomotive.com

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue  
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

*Ondo pasatu!*

# Oñatzeko dantzariak prest Corpusetarako

Ikastetxeetan hasiko dituzte, gaur goizean, Oñatzeko dantzariak asteburu osoan egingo dituzten Corpus dantzen saioak. Herriko kaleetara eta auzoetara ere iritsiko dira. Kapitain moduan egingo duen lehen prozesioa izango da Mikel Biainentzat

## Oihana Elortza OÑATI

Asteburu betea dute Oñatzeko dantzariak. Herriko ikastetxeetara, auzoetara zein kaleetara iritsiko dira aurten ere Oñatz dantza taldearen Corpus dantzak. Eta txoko guztietara heltzeko, gaur, egubakoitza, hasiko dira Corpus jaiak Oñatz dantza taldeko dantzariendako ere.

## Munduko adituaren aurrean

Ikastetxeetarako ohiko bisita gaur egingo dute, baina arratsaldean izan beharrean goizean, ikasle guztiek goizeko ordutegia dute eta. 10:30ak aurretik joango da dantzarien talde bat ikastetxez ikastetxe, eta ordu horretan, lau taldetan banatu eta Zubillaga, Olabarrieta eta Uribarri auzoetara joango dira, adibidez. "Arratsaldean, herri barruko auzoetara joango dira, baina aurretik saio berezi bat egingo dugu Nazioarteko Lege Soziologia Institutuan. 30. urteurrena ospatzera mundu oso-tik adituak etorri dira Oñatira eta ospakizun horren barruan Corpus dantzak egiteko eskaera jaso dugu. 16:00etan joango gara Soziologia Institutura", dio Oñatz dantza taldeko kide Arkaitz Bengoak.

Zapatu goizean, Foruen plazan egingo ohi den dantza saioak ere



San Migelen babestuko dute dantzariak domekako prozesioan. IMANOL SORIANO

## LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUAN EGINGO DITUZTE CORPUS DANTZAK GAUR DANTZARIEK

ez du hutsik egingo aurten: 09:00etan izango da emanaldia. Ondoren, herriko kaleetan ibiliko dira txistulariek lagunduta.

Domekako prozesioa 11:00etako mezaren ostean abiatuko da parrokiatik eta San Migelen

inguruan astinduko dituzte kriskitinak dantzariak. Aurtengo kapitaina Mikel Biain izango da. Corpus prozesioan kapitain moduan aterako den lehen aldia du Biainek. Arratsaldeko emanaldia 18:15ean izango da, plazan.

## Bisita gidatua

Aurten ere Turismo Bulegoak bisita gidatua egingo du domekan; Corpus prozesioaren osagai nagusiak eta txoko bereziak ezagutzeko bisita izango da. 09:45ean abiatuko dira, Turismo Bulegotik.

## Bergarako ertzain-etxeke buruekin batzartuko da Gobernua

Ertzainek "jipoitu" egin zituztela diote gazteek, eta Ertzaintzak dio ez duela gertaera jasotzen duen agiririk

### O.E. OÑATI

Herriko bost gaztek adierazi dute, anonimotasuna gordeta, ertzainek "jipoitu" egin zituztela ekainaren 15 gauean, Antixena parketik ateratzean. Ertzaintzak horren berririk ez duela adierazi du, "horrelako gertaerarik jasotzen duen jardunik ez" dagoela asteburu horretako gertaeren artean. Jare Kuartela ekimeneko kideek ez dute adierazpenik egin. Udalak ere alde bietako testigantzak jaso gura izan ditu. Horretarako, Udal Gobernua gazteekin izan da eta

datorren astean, Bergarako ertzain-etxeke arduradunekin egingo dute bilera, azalpenak eskatzeko asmoz, agirietan ez baitago jasota gertaera hau.

Gazteek sare sozialetan zabalduko oharrean diote gaztetxe-ko kontzertutik ateratzean izan zela gertaera. "Argi urdinak ikustean, gutariko batek zipaioak zeudela adierazi zuen. Bat-batean, hamarren bat ertzain, kale-jantzian eta uniformedunak, gainean genituen; gu, ordea, bost ginen". Azalpenak eskatzean borrekin jo zituztela esan dute gazteek.

## Eguenean egingo du lehen osoko bilkura udalbatza berriak

Datorren egunean, hilak 27, egingo du lehen osoko bilkura udalbatza berriak. Agintaldiko batzordeen berri emango dute, baita batzordeburuak ere. Horrez gain, Oñatiko Udalak enpresa publiko jakinetan zein ordezkarri izango duen ere onartuko dute, besteak beste. Azken osoko bilkurak bezala, egunekoak ere 18:30ean izango da.

## Ordutegi berria haur liburutegian eta ur txorrotetan

Eskolako oporrek batera, astelehenean aurrera udako ordutegia izango dute haur liburutegiak eta ur txorrotek. Liburutegia goizetan bakarrik egongo da zabalik ekainean eta uztailean; abuztuan itxita egongo da. Ur-uhinak egunero egongo dira erabilgarri, 11:00etatik 21:00etara, irailaren 9ra arte, ikasturtearen hasierara arte.

## San Juan surik ez aurten plazan

Corpus jaiekin batera da aurten San Juan bezpera eguna, eta ezinezkoa zaie txondorra Foruen plazan egitea. Gainera, Oñatz dantza taldeak ezinezkotzat jo du bere partaidetza ekitaldietan, Corpus dantzen agerraldietan egongo direlako dantzariak, eta, beraz, aurten ez da San Juan surik egingo Oñatiko plazan.

Garagaltzan egingo dute sua; 21:00etan piztuko dute.



Oñatzeko dantzariak suaren bueltan dantza egiten dute. GOIENA



IMANOL SORIANO

## Guardia Zibilaria eskaera zuzena

Herritarren ia 2.000 sinadura lortu ditu Jare Kuartela herri ekimenak Guardia Zibila Oñatitik joan dadin eskatzeko. Kanpainaren eta egunaren balorazio ona egin dute ekimeneko kideek eta hurrengo pausoak zehazten hasi dira orain. Horieta bat da batutako sinadurak eta plazan ateratako argazkia politikariei aurkeztea, "gaian serio inplikatu daitezten".



Zuazola Larrañako ZIG gelako ikasleek egindako koaderno eta loreontziak izango dira oparietako batzuk. ABIXARAN

## la 60 komertzioren eta eragileren babesa jasota

Datorren ekainaren 30ean egingo dute Abixaran taldeak laugarrenez antolatuko duen Torreauzoko krosa; ia 60 komertzioren eta eragileren babesa lortu dute antolatzaileek, Oñatikoak zein kanpokoak, eta horietako bakoitzak opari bat jarriko du zozketatzeko

### Eneko Azurmendi OÑATI

Lasterketaren ostean banatzen dituzten sari eta opariengatik da ezaguna, gehienbat, Torreauzoko krosa, eta aurten ere berretsi egingo dute hori. Izan ere, dagoeneko ia 60 komertzioren eta eragileren babesa lortu dute Abixaran taldekoek. "Oñatikoak dira gehienak, baina kanpokoak ere baditugu, eta pozgarria da hori guretzat. Donostiako La Perlak, adibidez, opari bat eman digu", azaldu du Miren Urkiolak, Abixaraneko kideak.

Babesa eskatzerakoan, ez dute dirurik eskatzen, Urkiolaren esanetan. "Nahiago dugu opariaren bat ematen badigute. Komertzio bakoitzak bere oparia ematen du: izan daiteke bazkari bat, masaje bat, ile mozketa bat, gosari bat... komertzio motaren arabera", dio.

Modu horretan, parte-hartzaile askok opariaren bat eraman ahal izango dute etxera. "Oso giro polita sortzen da zozketarenean, ea bakoitzari zer toka-

tuko, eta horrek egiten du berezi kros hau. Gero, gainera, txorizo egosia eta patata-tortilla pintxoak egoten dira parte-hartzaile zein ikusleentzako".

### Taldekako parte-hartzea

Abixaranek hasieratik bultzatu izan du taldekako parte-hartzea eta emakumezkoena. "Guk modu horretan funtzionatzen dugulako. Nagusiki, emakumezkoak gara taldean, eta korrika egiteko ekartzen gara noizean behin. Korrika egitea askoz ere atsegina da konpainiarekin bazoaz. Beraz, hori sustatu gura dugu", azaldu du Urkiolak.

Aurreko edizioetan erantzun ona izan du horrek, eta taldekako parte-hartzea handia izan

**TALDEKA IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA EKAINAREN 29A DA; BANAKA, EGUNEAN BERTAN**

da. "Batzuk talde handiagoak dira eta beste batzuk txikiagoak, eta horien artean sari bereziak zozketatzen ditugu, sustatu gura dugunaren arabera".

Sariei dagokionez, lehenengo hiru emakumezkoek eta lehenengo hiru gizonezkoek jasotzen dute saria, eta baita lehenengo emakumezko oñatiarrak eta gizonezko oñatiarrak ere. Horiez gain, zozketa bidez, sari ugari banatzen dituzte, aipatu moduan.

### Izen-ematea zabalik dago

7,5 kilometroko lasterketa izango da, eta Mendizabal kirol denda, Aloña Mendi tabernan eta [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean eman daiteke izena. Egunean bertan ere 10:00ak arte izena eman ahal izango da –lasterketa 10:30ean hasiko da–. Taldeka izena emateko aukera bezperara arte egongo da, ekainaren 29ra arte, eta egunean bertan ezin izango da. Taldeka parte hartzeko, gutxienez, hiru pertsonako taldea izan beharko da.

## Ganbara eta Hots abesbatzena izango da lehen kontzertua

Sei emanaldi izango dira Kanean egitarauaren baitan; tartean Oñatiko, Indiako, Iruñeko edo Bilboko taldeak

### E.A. OÑATI

Aurtengo berrikuntza Arantzazuko Santutegiaren kanpoaldea izango da. Hain zuzen, Ganbara eta Hots abesbatzek abestuko dute han, ekainaren 28an, 22:00etan. Ganbarak autobusak jarriko ditu Oñatitik Arantzazura joateko, bi eurotan.

Aran Saiz hirukote oñatiarrak jazz eta pop estiloko abestiak eskainiko ditu Lazarragako lorategian, uztailaren 10ean.

Toki berean joko du Indiako Parvathy Baul artistak ere, uztailaren 24an.

Havana 537 taldeak uztailaren 17an joko du San Lorentzoko ermitan. Talde honek folk kurbatarra lantzen du.

Iruñetik etorriko den Broken Brothers Brass Band talde ibiltariak, bestalde, herriguneko kaleetan zehar joko du uztailaren 4an.

Egitarauko azken emanaldia familientzako antzerkia izango da, Hortzmuga antzerki taldearen eskutik. Azken urteetan bezala, Bidebarrietako jaien barruan egingo da ekitaldi hori, irailaren 1ean.

## Beste txapel bat poltsikora

Uxue Oses eta Maddalen Etxegarai pilotari gazteek maila bikainean jarraitzen dute, eta horren erakusle da pasa den asteburuan Errioxako Santo Domingo de la Calzada herrian jokatu zuten eskolarteko txapelketako finalean 16-12 irabazi zutela. *Gaizki ohitzen ari gara bi pilotari hauekin. Beste txapel bat poltsikora, azaldu du pilota sailak sare sozialetan.*



ALOÑA MENDI PILOTA SAILA

## Gipuzkoako gazte mailako itzulia dela eta, trafikoa moztuta

Gaur, egubakoitza, abiatuko da gazte mailako 30. Gipuzkoako Itzulia, Oñatiko aitzinetaparekin. Txaketuan abiatuko da proba, 17:15ean, eta ibilbidea plazan bukatuko dute txirrindulariek. Hori dela eta, trafikoa moztuta egongo da 16:45etik 19:15era, gutxi gorabehera. Beraz, San Juan kaleko garajeak ezin izango dira erabili; Aita Madina eta Lizaur kaleak moztuta egongo dira, baita ULMA Handling-erako sarbidea ere; Garagaltza auzotik irteteko, Lamiategitik buelta irten beharko da; Olaiturriko aparkalekua ere itxita egongo da 19:30ak arte.

Bidegurutzeetan 40 bat boluntario ibiliko dira lanean.

## Ekainaren 28ra arte egongo da ikusgai filatelia erakusketa

Zeka taldeak, urteroko ohiturari jarraituz, filatelia erakusketa zabaldu du asteon kultura etxean, beheko aretoan, eta datorren egubakoitzera arte egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara –zapatuan eta domekan itxita egongo da–.

Lau bilduma ezberdin egongo dira, eta 40 panel inguru. Javier Galarzak tximeleta ezberdinak landuko ditu; Luis Maiztegik hegazkin mota ezberdinak, garai ezberdinak, eta Fernando Garciak, berriz, zaldiak. Mikel Untzillak, azkenik, zigilu itxura daukaten marrazkiak landu ditu. Hala ere, hauek ez dute zigilu balio ofizialik, lagunen artean bidaltzeko erabiltzen dira.



Istar Dapena, joan den astean Sorian egindako txapelketan. Marka pertsonala ondu zuen (5,40). REAL SOCIEDAD

## Polmetasa eta Mojategi bateragarri egin behar

**ATLETISMOA** Istar Dapena arrasatearrak 5,40ko saltoa egin du asteburuan Sorian –Espainiako bigarren marka onena–. Realeko atletak Arrasateko lantegian dihardu, hiru errelebotan; iaz lesionatuta ibili eta gero, hasi da lanaren fruituak batzen

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Aste barruan Polmetasan gaueko txandan lan egin eta oherako bidea hartu du Istar Dapenak (Arrasate, 22 urte), ordu batzuk barru 5,50eko marka lortzen ahaleginduko da eta Mojategin.

Goizeko edo arratsaldeko txandekin alderatuta gauekotik kostatzen zaio gehien errekupeztzea, eta, hain zuzen, hori izan zen iaz denboraldia tokatzen zena baino azkarrago amaitzera eraman zuen motiboa: "Lanean hasi nintzen iaz eta zortzi orduz zutik egon ondoren entrenamendu saioetan iskiotibialetan arazoak izaten nituen. Lesionatuta eman nuen urtea, eta motibazioa erabat galduta. Baina gorputza ohitu egin zait eta aurten gozaten nabil", dio arrasatearrak: "Nahiz eta gaueko txandan lan egin eta gero, egun batzuetan berotzen hasi eta segituan kontratzen naizen ezin dudala jarraitu".

Egoera hori bikain ulertuko du Dapenaren entrenatzaile Jonathan Perezek; izan ere, hark ere estatu mailan elitean jardun zuen urteetan, eta hori lantegi-



Dapena, marka egin berri. REAL SOCIEDAD

**UZTAILAREN 9AN  
PORTUGALEN EGON  
GURA DU, ESTATUKO  
BI ONENENDAKO  
LEKUA BAINO EZ DAGO**

ko lanarekin bateratu behar zuen. Kontua da, baina, Dapenak asteburuan 5,40ko marka egin duela Sorian, eta orain momentuan atleta bakarra dagoela Arrasatekoak baino marka hobea duena: Didac Salas kataluniarra (5,52): "Rankingeko lehengo sei atletak atletismora dedikatzen dira. Ni sailkapenean bigarren postuan nago Adrian Vallesek berdin (5,40) eta hura Madrilen dago, goi mailako zentro batean. Goiz eta arratsalde entrenatzen dira, fisioterapia saioak dituzte egunero... Bai, abantailak dituzte, baina atletismoaren aldeko apustua egin eta min hartzen badut, zer lortzen dut? Dena utzi eta etxera etorri beharko nuke. Hau ez da futbola, atleta profesionalena ez da bizimodu ona. Nik hemen dudaren aldeko apustua egin dut".

Nahiz eta Arrasatekoak badakien halako apustu bat egiteko oraindik adin aproposa duela: "22 urte ditut, pertika-saltoa egiteko oraindik gaztea naiz; izan ere, hemen teknika oso-oso garrantzitsua da eta esperientzia

hori urteek ematen dute. Esan genezake 26-27 urterekin egoten direla atletak mailarik onenean. Baina, horretarako, zortea behar da lesioekin".

### 5,50eko marka du begiz jota

Arrasatekoak ondo daki hamar zentimetro gehiagoko saltoa egiteko kapaz dela: "Hortxe dut marka hori, oso gertu. Sorian ahalegindu nintzen, baina ez nuen lortu; hala ere, sasoi onean nago eta badakit gertu dudala. Lortuz gero, demaseko poztasuna hartuko nuke, marka oso garrantzitsua izango litzatekeelako –Europako txapelketa absoluturako gutxieneko marka 5,60koa da–.

Oraingoz, saiatzen jarraituko du, eta aire libreko denboraldian buru-belarri sartuta dago –aste barruan Mojategin parte hartze libreko saioak izan ditu Malen Ruiz de Azuarekin batera–: "Maleni ere horixe falta zaio, txapelketa on bat parean tokatzea. Oraingoz, ez du marka pertsonala ontzerik lortu, baina ondo dabil entrenatzen, eta edozein momentutan 4,40ko edo 4,45eko marka egiten ikusten dut".

### Portugal begiz jota

Uztailaren 9an, Euskadiko Txapelketa absolutuak jokatuko dituzte, baina arrasatearrak beste hitzordu bat du begiz jota, asteburu berean Portugalen egingo duten Nazioarteko Jauzien Topaketa: "Txapelketa horretara Espainiako bi marka onenak dituztenak joango dira, eta, oraingoz, Adrian Vallesek eta biok marka berbera dugu. Valles AEBetara salto egitera joandako atleta bat da, eta oso marka onekin itzuli zen handik. Nahiz eta biok marka berbera izan, nire bigarren marka onena 5,32koa da, eta Vallesena 5,30, eta hori ere kontuan hartzen dute. Ez dakit zer gertatuko den".

### Realarekin podiumean

Aipatu moduan, Soriatik marka politarekin itzuli zen Dapena, baina ez hori bakarrik, Reala hirugarren sailkatu zen eta Kluben Arteko Txapelketan, Europako Txapelkun izan diren Playas Castellonen eta Bartzelonaren atzetik: "Duela bi urte ere podiumera igo ginen, baina ez nuen uste horren azkar halako lorpen bat errepikatuko genuenik, sekulakoa izan da".




Bular aldean zauri nabarmena. D.E.

### TXIRRINDULARITZA

## Azkarate, onik, susto ona hartu eta gero

Eulen taldeko Andoni Azkarate ziklista arrasatearrak susto ederra hartu zuen domekan Euskadiko Txapelketan. Gontzega-raigane jaisterakoan izan zuen erorikoa, eta bazter-babesaren oinarriarekin hartu zuen kolpea: *2019an gaude eta bide bazterrean aiztoak diruditen bazter-babesekin jarraitzen dugu*, salatu zuen David Etxebarria zuzendariak sare sozialetan.



2015eko erlojupekoan. GOIENA

### TXIRRINDULARITZA

## Gipuzkoako Itzuliko atariko proba gaur

Oñatin egingo dute gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Itzuliko atariko proba. Gazte mailakoendako proba 17:15ean hasiko dute, eta Gipuzkoa osoko klubetako ziklistak banan-banan abiatuko dira herrigunean prestatutako bi kilometroko erlojupekoan. Zapatuan Andoinen izango dute bigarren etapa eta hirugarren etapa azken etapa, berriz, Lazkaon izango da.

# Euskal Herriko 32 atleta onentsuenak batu dituzte

**ATLETISMOA** Zapatuan egingo dute, 18:00etan hasita eta zirkuitu homologatuan, Oñatiko Hamar Kilometroko Corpus Lasterketa. Euskal Herriko elite mailako korrikalari onentsuenak arduratuko dira ikuskizuna Oñatiko kaleetara eramaten

## X.U. OÑATI

"Oso pozik gaude bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere irteera puntuan batuko ditugun atletekin", adierazi dio aste barruan Asier Osinagak GOIENARI. Izan ere, Eneko Agirrezabalen azken orduko hutsegiteak ez du Antxintxiketan taldekoen poztasuna zapuztu: "Azken orduko gorabeherak izaten dira horiek, eta pena da, Agirrezabal izango da-eta orain momentuan Euskal Herrian 5.000 metroko proban dagoen atletarik azkarrena. Baina, egongo ez direnak beharrez, gura dugu egongo direnak nabarmendu".



Elena Loyo, iaz. I.S.

Eta hor asko dago azpimarratzeko; izan ere, besteak beste, iazko irabazle Iraitz Arrospide eta Elena Loyo Oñatin izango dira bihar, zapatua: "Iraitzen kasuan, esfortzu handia egin du gurera etortzeko -Ingalaterran bizi da-. Oñatiko lasterketa oso gustuko du eta Gabonetarako jada bere posta elektronikoko bat jaso genuen lasterketaren egunagatik galdezka, bere egutegian sartzeko. Harekin batera David Gartzia Txiki durangarra irteera puntuan egongo da -hainbatetan irabazi du Antxintxika Krosa Bergaran-, Unai Arroyo, Alex Oiarbide... Distantzia horietan azkar korrika egiten du-

ten atletak dira, azken batean". Bada, Antxintxiketan-etik aurreratu dute Imanol Cruz, Martin Amilibia eta Ander Sagarzazu ere irteera puntuan egongo direla. Gizonezkoetan hamazortzi izango dira, eta debagoien-darren artean oñatiarrak izango dira irteera puntuan: Erik Martin eta Sergio Garcia.

## Hamalau emakumezko

Emakumezkoetan ere lehia polita izango da: "Iazko irabazle Elena Loyo izango da orain momentuan gurean dugun atletarik onena, eta hark ere aspaldi erakutsi zuen gurera etortzeko interesa. Baina arabarrak borroka polita izango du, besteak beste, Irene Loizate -Oñatiko duatloiko irabazlea- edo Maider Leoz moduko atletekin. Bailarakoei dagokionez, Miren Apraiz arrasatearra irteera puntuan izango da".

Emakumezkoetan (18:00) hamalau atleta batuko dira irteera puntuan, eta gizonezkoetan (19:00) hamazortzi. Lasterketak hasi baino hamar minutu lehenago atletak banan-banan aurkeztuko dituzte.



San Martin plazan jokatzeko. GOIENA

## SASKIBALOA Hiruko saskibaloia txapelketa asteburuan Bergaran

"Badirudi eguraldi ona izango dugula, eta hori ari gara momentuan zaintzen", adierazi dio aste barruan Marian Mellado BKEko ordezkariak. Horrek esan gura du hiruko saskibaloia txapelketa San Martin plazan egingo dutela, Agorrosinen beharrez: "Iazko talde kopuru antzerakoa izango dugu, 60 inguru". Bihar goizean hasiko dute torneo infantilek, kadeteek eta juniorrek.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOIKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxe: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@uribesalgo.es



Astelehenean banatu zituzten, Donostiako Tabakalera eraikinean, Hi Gazte! lehiaketako sariak. AITOR AGIRIANO

## Hi Gazte! lehiaketarekin, hiru sari Debagoienara

Foru Aldundiak bultzatutako 'Gazteak euskaraz etorkizuna eraikiz' ekimenak gazteek ikus-entzunezkoak euskaraz sortzea eta kontsumitzea du helburu; sei ikastetxerekin egin duten probaren harrera ona ikusita, ekimenarekin jarraitzeko asmoa adierazi dute

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Euskal Herriko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, gazteek, orokorrean, ez dute ikus-entzunezkoak euskaraz sortzeko eta kontsumitzeko ohitura handirik; izan ere, Gipuzkoako 2.500 gazte gipuzkoarri galdetuta, honako hauek izan ziren atera zituzten ondorioak: %70ek gazteleraz kon-

tsumitzen dutela, %20k euskaraz eta %10ek, berriz, ingelesez. Inkesta horietan, euskaraz eskaintza handirik ez dagoela adierazi zuten gazteek.

### Euskaraz sortzeko lagungarri

Ikerketaren emaitzekin ardurata abiatu zuen, orain dela hamabi hilabete, Foru Aldundiak *Gazteak euskaraz etorkizuna*

*eraikiz* izeneko ekimen pilotua, hain justu, etorkizuna euskalduna izateko asmoa duena oinarrian. Hauxe adierazi zuen Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olanok astelehenean Donostiako Tabakalera eraikinean dagoen 2deo laborategian egin zuten ekitaldian: "Garbi daukaguna da gaurko errealitatea ikusita ez dakigula zein

errealitate izango dugun urte batzuk geroago, baina argi dugu errealitate hori euskaraz izan behar dela. Horregatik, *Gazteak euskaraz etorkizuna eraikiz* tresna horrek duen helburu nagusia da edukiak euskaraz sortzea, gure hizkuntzak luzaroan bizi iraun dezan".

Ekimena Foru Aldundiak babesten badu ere, bestelako eragileekin elkarlanean ari da lanean; besteak beste, Goiena Komunikazio Taldeko Oihane Agirrek jardun du proiektua gidatzen: "Gure helburu nagusia gazteak ikus-entzunezko sorkuntzan ahalduzkoa da, eta, era berean, euskarazko ikus-entzunezkoak kontsumitzeko garrantziaz jabetzea; eta bide horretatik joan da dinamika. Iaz abiatu genuen, ekainean, Arizmendi Ikastolako ikasleekin egin genuen proba pilotuarekin, eta, pilotu horretatik abiatuta eta hainbat moldaketa eginda, dinamika zabalagoa sortu genuen ondoren; oraingoan, Gipuzkoako sei ikastetxerekin".

### Ikasi, sortu eta erakutsi

Hiru fasetan banatu dute ekimena, eta formakuntza saioekin abiatu zutela gaineratu du Agirrek: "Ikus-entzunezkoen buruzko saioak egin ditugu 14 eta 16 urte bitarteko gazteekin, eta, horrez gainera, hainbat aditurrekin eta arloko profesionalen egoteko aukera ere izan dute, horien bizipenak lehen eskutik ezagutzeko. Ikus-entzunezkoetan ahalduzkoa gura izan ditugu gazteak, eta, horretarako, esku- ra dituzten erremintak erabili- ta, hau da, telefono mugikorren bideoak grabatzeko oinarriko pauta batzuk ematen saiatu gara. Eztabaida saio batzuk ere egin ditugu, eta etorkizune-

ra begira jartzeko eskatu diegu, hori izan zen-eta geroago ekoiztu dituzten lan horietarako proposatu genien gaia".

Formakuntza saioetan emandako pautak jarraitu eta saioetan hasi zituzten lanak ekoiztea izan da bigarren fasean egin dutena; eta dinamika borobiltzeko, egindako lanak partekatu eta saritu dituzte, Hi Gazte! lehiaketaren bitartez.

Parte hartzaileek eta ekimenaren bultzatzaileek positiboki baloratu dute orain arte dinamika eman duena; hori horrela, Olanok datorren urtean jarraitzeko asmoa dutela aurreratu zuen: "Oso pozik gaude eta nahi genuke ekimena Gipuzkoako ikastetxe guztietara hedatzea".

### Seitik hiru sari, Oñatira

21 proiektu aurkeztu zituzten eta horietatik sei jaso zuten saria astelehenean. Ordiziako Jakintza ikastolako lana izan zen irabazle nagusia; bigarren saria Oñatiko Zuazola-Larraña BHIko ikasleek jaso zuten *Hezkuntza etorkizunean* bideoagatik; eta hirugarren saria, berriz, Tolosara eraman zuten.

Aipatutakoez gain, beste hiru sari ere banatu zituzten eta Oñatikoek beste bi eskuratu zituzten: euskara saria eta publikoarena. "Esperientzia ona izan da ekimena, ikasteko modu proposa iruditua zaigu bideoak egitea. Ikas bidaiarako erabiliko ditugu sariak", azaldu du Hegoi Inurritegi ikasle oñatiarrak.

### DINAMIKA PILOTUAK IZAN DUEN HARRERA ONA IKUSITA, ESKOLA GEHIAGOTARA ZABALDU GURA DUTE

## SAN JUAN JAIK 2019

HEMEN DEBAGOIENA  
JAIEN GAINENKO LABURPEN ZABALA  
EKAINAK 24 ETA 25, 18:00, 20:00, 22:00  
JAIK: SAN JUAN JAIK 2019  
JAIEN ESKAINITAKO SAIO BEREZIA  
EKAINAK 25, MARTITZENA, 21:00, 23:00


BABESLEA:



goiena  
Zu hemen zaude.







Erakusketako pieza batzuk Nafarroako Altzua herrian dagoen Oteiza Museoan. CRISTINA NUÑEZ BAQUEDANO

# Oteizak egindako lanean sakontzeko ekimenak

'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969' izeneko erakusketak izango dira Jorge Oteiza Fundazio Museoan eta Arantzazuko Gandiaga Topagunean; horrez gain, bisita gidatuak, tailerrak eta eskultorearen obrari buruzko argitalpenak ere badaude

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI  
Arantzazuko basilikako fatxadarako gauzatu zuen esku-hartzea da, adituen esanetan, Jorge Oteizaren obra publikorik handiena, "arte eta arkitektura modernoak iritsitako goreneko uneetako bat, eta estetika erlijiosoak XX. mendean izan zuen berrikuntzaren ikurretako bat".  
Arantzazuko lana amaitu eta 50 urtera, "proiektuaren esangura artistikoa eta kulturala aztertzeke helburuarekin", Jorge Oteiza Fundazio Museoak, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Frantziskotarrek, elkarlanean, *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969* izeneko bi erakusketa prestatu dituz-

te, non 200 piezatik gora erakutsiko dituzten; horien artean, inoiz erakutsi gabekoak.

**Altzuzakoa, eguaztenetik zabalik**  
Eguaztenean ireki zuten bilduma nagusia, Nafarroako Jorge Oteiza Fundazio Museoan dago eta urriaren 27ra arte izango da ikusgai, eta, besteak beste, igeltsuzko eskultura-estudio sorta zabaldu bildu dutela azaldu dute: "Behin betiko proiektuaren klabeak eta azken fatxadara iritsi arteko artistaren irtenbideak aztertzen ditu; esaterako, eskultura-kontzeptua, horma-erliebearen planteamendua, apostoluen frisoaren eta Ama Birjinaren ikonografiaren definizioa...".

Gandiaga Topaguneko bilduma, berriz, ekainaren 28an zabalduko dute, urriaren 27ra bitartean. "Sekuentzia gisa, eta garapen kronologikoa oinarri hartuta, proiektuaren klabeak azalduko dira 40 eskulturen bitartez eta askotariko dokumentazio, argazki, eta ikus-entzunezkoekin".

**Irailaren 21ean, ospakizuna**  
Bisita gidatuak eta tailerrak ere egingo dituzte, eta irailaren 21ean, Arantzazun, Oteiza Museoako konterbatzaile Elena Martinen tesia jasotzen duen *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969* lana aurkeztuko dute; haren laburpena den argitalpena, erakusketatan daude eskuragarri.

## Euskal Herriko artistak nagusi datorren asteko EHZ festibalean

Irisarrin (Nafarroa Beherea) egingo dute, ekainaren 28tik 30era; sarrerak eta informazioa, 'Ehz.eus' atarian

**A. Aranburuzabala** ARRASATE  
Musika arloan eskaintza handia da, kopuruari zein kalitateari begiratuta, 23. aldia izango duen Ipar Euskal Herriko jaialdian. Askotariko estiloei tokia eginez, talde ezagun eta hasiberri asko

batu dituzte egitarauan; eta izango dira lan berriak aurkeztuko dituztenak ere.

Kontzertuez gainera, espresuki jaialdirako sortutako dantza emanaldia eta zirku ikuskizuna ere izango dira aukeran. Horiez

gainera, bertso-poteoak, txarangak, dantzak, erakusketak eta antzerkiak ere antolatuta dituzte.

**Hausnarketarako gunea ere bai**  
Bost ildoren inguruan eztabaidatzea eta hausnartzea proposatu dute –feminismoa, festa eredu, burujabetza-autogestioa, G7a eta migrazioa–, "arreta bereziarekin" antolatu duten gunean; hitzaldiak, tailerrak eta mahai-inguruak izango dira.

Informazioa, izen emateak eta sarrerak, *Ehz.eus* atarian.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko ekaineko sariak!



#### Arrasateko Trikitixa Eskolako CDa

Parte hartzeko sariaren izena: Trikitixa



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: klub@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Haren gaineko EPS 15/1999 legearen arabera jakinarazten dugu bere datu pertsonalari Goiena Herriko Kulturaren Iturri eta Dokumentazio Zentroa delako Datu Iturri Herriko Iturriak deitzen dugun enpresa gaitzetza. Eskubideak zuzentzeko, iruzkitzeko edo zuzentzeko helburuak dituztenak klub@goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



klub@goiena.eus



KLUBA Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu orain 2019rako

56€ ordainduta

Deitu: 943 25 05 05

klub@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**  
103. ERRENTAN EMAN  
**Calpe.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, sukalde, egongela, komuna eta terrazak. Hondartzatik 100 metrora. 655 74 57 97

104. ERRENTAN HARTU  
**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko, Arrasate erdigunean eta gertu. 608 15 37 07

**3. LOKALAK**  
301. SALDU

**BERGARA**  
Martxan dagoen taberna eskualdatzen da 943 76 24 45

**4. LANA**  
402. ESKAERA

**Bergara edo Arrasate.** Arlo mekanizatuko ikasketan daukat eta fabrika lan egingo nuke. Bost urtetik gorako umeak zaintzeko ere gertu nengoke. Euskaraz badakit. 622 35 48 02

**Bergara edo inguruak.** Arratsaldetan lan egingo nuke ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Telefonoa: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile gertu orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska arduratsua zaintza eta garbiketarako lanetan aritzeko gertu. Legezko agiriak daukat. 631 80 71 04

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu. Tabernako zerbitzari moduan ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara: 654 11 15 14

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen gizona nagusiak zaintzeko gertu. Oso ondo moldatzen naiz sukaldean. Baserrietan ere lan egin dut. Telefonoa: 672 56 69 44

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 638 85 43 36

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak eta umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten. 688 64 02 01

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo gertu nago. 602 12 79 79

**Debagoiena.** Garbiketarako egiten edo nagusiak zainduen lan egingo nuke. Baita gauetan edota oporrerako ordezkapenak egiten ere. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak daukat. Telefonoa: 682 31 97 37

**Debagoiena.** Garbiketarako edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 44 37 42

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, egunez, gauzez zein asteburuetan. Euskal sukaldaritzan ondo moldatzen naiz eta esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen. Telefonoa: 631 95 04 42

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota denetarikoko garbiketarako egiten lan egingo nuke. 633 12 85 30

